


საქართველოს
საბავშვო ლიტერატურის
საქართველოს

Zaldun tigrelarruduna

Xota Rustaveli



ALFAGUARA / Zubia

Եղյոս

հոճիցմոսզն

8. 11. 01.

Նորձոս

ALFAGUARA



Zubia

BILDUMAREN ZUZENDARIA: Joseba Santxo

BILDUMAREN ARGITARATZAILEA: Ainhoa Basterretxea

BILDUMAREN KOORDINATZAILEA: Josu Goikoetxea

KOORDINAZIO ARTISTIKOA: Zuriñe Asteasu

KOORDINAZIO TEKNIKOA: Miren Pellejero



Zaldun tigrelarruduna

Xota Rustaveli

Xabier Kintanak georgieratik itzulia
Irudiak: Mihai Ziczi

ALFAGUARA



Zubia

© Itzulpena: 1999, XABIER KINTANA
Irudiak: MIHAI ZICZI (1827-1906)
Azaleko irudia: XVII-XVIII. mendeko artista ezezagun batek egina.

© Euskarazko argitalpena:
1999, Grupo Santillana de Ediciones, S.A. / Zubia Editoriala, S.A.
Torrelaguna, 60. 28043 Madrid
Telefonoa: 91 744 90 60

Legizamon poligonoa
Gipuzkoa kalea, 31
48450 Etxebarri (Bizkaia)
Telefonoa: 94 426 90 72

I.S.B.N.: 84-8147-193-3
Lege gordailua: M-27.048-1999

Lehen argitalpena: 1999ko uztaila

Bildumaren diseinua:
José Crespo, Rosa Marín, Jesús Sanz

Papelera Echezarreta, S.A. etxearen
paper birziklatuan inprimaturik

Eskubide guztiak erreserbatuak.
Indarrean dauden legeen arabera, erabat galarazirik dago
lan hau zatika zein osorik aniztea eta, halaber, informazioa
berreskuratzeke baliabide mekaniko, fotokimiko, magnetiko
eta elektrooptikoak edo fotokopiak erabiliz erregistratzea
eta zabaltzea, jabeek aldeztu aurretik eta idatziz emandako
baimena izan ezik.



*Zaldun
tigrelarruduna*

*Euskaldunok hain ongi ezagutzen
eta hainbeste maite gaituen
Georgiako Herri anaiari,
esker onez.*

Xabier Kintana

ჩვენს ძმებს-ქართველ ერს,
ვინაც ასე კარგად გვიცნობს და
ვუყვარვართ ბასკები!
მადლიერების გრძნობით,

შაბიერ კინტანა



Georgia

Aurkezpena

Georgia Itsaso Beltzaren eta Kaspiar itsasoaren artean kokaturik dago, Kaukaso mendikatearen hegoaldean. Alfabeto propioa duen hizkuntza zahar eta kultura bereziko herria da Georgiakoa, eta bere bost milioi bizilagunekin, azken urteotan, Sobietar Batasuna ezereztu ondoren, errepublika burujabea bilakatu da. Jende alai, kantari eta abegikorrak dira georgiarrak, poeta eta musikazale porrokatuak.

Georgierak, egituraz, euskararen antz harrigarria du. Gurearen antzera, deklinabide aberatsa dauka, kasu ergatiboa eta guzti, eta horrez gainera, pertsona anitzeko aditzak ere bai. Zenbatzeko sistema, euskaraz bezala, hogeikakoa dute eta joskera arloan ere kidetasun handiak ageri ditu. Hori dela eta, hizkuntzalari batzuek uste dute euskarak eta georgierak jatorri urrun berbera dutela, eta gure bi herriak senideak direla, eta halaxe pentsatzen dute georgiarrak berek ere, gu Pirinioetako anaiatzat harturik, eta beren herrira goazenean aparteko abegikortasuna erakusten digute.

Georgiarrak III-IV. mendeetan zehar kristautu ziren, eta haiexek dira armeniarrekin batera, Kaukasiako nazio kristau bakarrak, inguruko auzo guztiak musulmanak izanik. Kristautasunarekiko atxikimendu goiztiar horrek –Biblia osoa georgierara V. mendean itzuli zen eta– Georgia mendebaldeko kultur eraginpera ekarri du, baina geografiak ekialdeko tradizioekin ere aberastu du,

persiar eta arabiar jatorriko filosofi eta literatur iturrietatik edateko aukera emanaz.

XI-XII. mendeetan georgiarrek beren gainetik arabiarren eta turko seldjuziden uztarria kendu eta erabateko independentzia eskuratu zuten, monarkia egonkorra lortuz. Garai horretan David Soslan erregearen eta Tamar erreginaren agintaldian (1184-1213) politikan, ekonomian eta kulturaren garapen harrigarria izan zuen Georgiak. Aberastasun material eta izpiritualeko giro horretan jaio eta bizi izan zen Xota Rustaveli poeta, obra honen egilea.

Haren bizitzaz gauza handirik ez dakigun arren, tradizioaren arabera, erreginaren jauregiko gortelaria izan omen zen Rustaveli, eta bere nagusia sekretuki maite omen zuen. Erregina, ordea, ezkondua zen, eta haren maitasuna ezin erdietsirik, bere bihotzeko andere gorenaren omenez mila seiheun eta hirurogeita hamaika bertsoko poema zoragarria idatzi zuen, ZALDUN TIGRE-LARRUDUNA alegia (georgieraz ვეფხისტყაოსანი *vepkhis-tqaosani*), liburu eder horretan bere sentimendu ezkutuak nolabait sublimatuz.

Obra osoa *xairi* deritzon bertso motan idatzia da. Bertso bakoitzak 16 silabako lau lerro dauzka, guztiak errima kontsonantedunak, bi hemistikiotan banatuak.

Egiturari dagokionez, kondaira lineala da, baina istorioan zehar, tarteka, beste kontakizun batzuk txertatzen ditu, gogoeta filosofiko eta aforismo ugarirekin batera, haria baina, behin ere galdu gabe.

Georgiar literaturako obra nagusi honek maitasuna kantatu eta adiskide zintzoen leialtasuna azpimarratzen du bereziki. Egileak, agian erreginaganako amodioa ezkutatu nahirik, idazlaneko jendeak eta paisajeak Arabia, Persia eta India urrunetan kokatzen ditu. Gainera, Rustavelik poemaren istorioa Persiako lehenagoko tradizio batetik jaso zuela diosku, baina kritikari guztiek hori

literaturazko ohiko aitzakiatzat jotzen dute, ez baita orain arte inon aurkitu, ez Persian ez eta ekialdeko gainerako literaturetan ere **ZALDUN TIGRELARRUDUNAREN** antzeko kontakizunik.

Izan ere, obrari darion giroa, erakusten dituen ohiturak, azaltzen duen pentsaera eta mundu ikuskera bera ezin hurbilagoak dira: erabat georgiarrak, eta Rustavelik hain ongi ezagutzen zuen Greziako kristau filosofian murgilduak, hitz bitan, nabarmenki mende-baldarrak, egileak, bere kondaira girotzeko, hor-han-hemenka tartekatzen dizkigun azaleko ukitu musulmanak gorabehera. Horregatik, pertsonaia nagusiak garai hartako georgiar gizarte feudalaren balio kultural eta moralen eredu garbiak dira.

Kontakizunaren hiru zaldunak –Avtandil, Tariel eta Pridon– garaiko heroien estereotipoak izanik ere, nork bere nortasun berezia erakusten du, maitasun itsuan, zuhurtzian edo estrategian. Neska maiteak, aldiz, –Tinatin eta Nestan-Daredjan– maitale zintzo eta leialak dira, eta beren edertasun paregabearen errainuekin beren zaldunen bidea eta inguruko mundua bera argitzen dituzte. Guztiak Eguzki, Ilargi eta izarrekin konparatzen ditu etengabeki –ez dezagun ahantz Georgia ekialdeko herrialde eguzkitsua dela–, eta haien aurpegiak arrosak eta ezpainak errubiak dira, ilea eta begiak, aldiz, azabatxe, eta azala elur, kristal edo anbar, hortzak perlekin parekatuz, orduko literatur usadioari jarraikiz. Heroiak borrokan ezin kementsuagoak badira ere, maitasun edo adiskidetasunaren aurrean, negarretan urtzen dira, penari ezin eutsiz, beti sentiberatasun handiarekin.

Batzuen ustez, obra honetako Tinatin eta Nestan-Daredjan erregina gazteen ispiluan Georgiako Tamar erregina bera islatzen digu Rustavelik, haren biografiako gertakari ezagun batzuk azaldu eta haren zuhurtzia eta edertasun harrigarriak nabarmenduz. Izan ere, poetak,

hitzaurrean aitortzen duenez, bere obra miresgarria andere hari eskaini zion bihotzez eta bizitza osoan haren menpeko leiala izaten ahalegindu zen.

Hil baino lehentxoago, Tamar erreginak Jerusalemen ehorts zezatela agindu zuen, georgiarrek han zuten monasterio batean. Hori dela eta, Tamarren gorpua haraino eraman zutenean, Rustaveli ere segizio harekin abiatu zen Israelgo Herrira eta erreginaren hilobi ondoan iragan omen zituen bere azken urteak, Gurutzearen Monasterioan, bertan aurkitu den fresko batek oraindik gogorarazten digunez.

Xota Rustaveliren obra munduko hainbat hizkuntzatarata itzuli izan da. Hemen haren pasarte gogoangarriekin, prosaz, moldapen aski luzea eskaintzen dugu euskaraz, geroan bertsoan argitaratzeko asmo dugun itzulpen osoaren aitzindari. Argitalpen hau apaintzen duten irudiak Mihai Ziczi hungariarrak egin zituen joan den mendean.

Testuingurua hobeki ulertzeko, edizio hau oharrez hornitu da, toki, pertsonaia eta ohitura arrotzak azaltzeko. Liburuaren bukaeran, halaber, obra honetan ageri diren hitz berezien zerrenda eskaintzen dugu, irakurlearen argigarri.

Xabier Kintana

Zaldun tigrelarruduna

Xota Rustaveli



ვეფხისტყაოსანი

შოთა რუსთაველი

Aitzin solasa

O Jauna:

zeure ahalmen handiaz mundua sortu eta zerutik bidali zenuen arnasarekin izaki guztiok biziaz hornitu ondoren, gizakioi lurra eman diguzu, konta ezineko animaliaz ase. Era berean, erregeen boterea bera ere nondik dator, zugandik ez bada? O Jainko Bakarra, Sortzaile neurea, babes nazazu eta indazu Satan zapaltzeko indarra. Emadazu, otoi, maitale zintzo baten bihotza eta barka itzazu, halaber, ene bekatuak.

Lotsa naiz, lehoiari¹, ezpata, armak eta ezkutua dauzkan Georgiako erregeari, eta errubi koloreko masailak eta azabatxezko adatsa dituen Tamar erreginari, neure laudorioak eskaintzeaz.

Tamar erreginari kantu egitean, odolaz nahasten zait negarra. Badakit, horretarako, tintatzat haren begien azabatxezko aintzira hartu beharko dudala, eta kanabera lirain bat haren betiletarik, lumatzat, horrela, entzuten nautenen bihotzak ene gezi zorrotzak zula ditzan.

Bertsotan kantatu beharko ditut, bada, haren ilea, ezpainak, ahoa, betile-bekainak eta haren perla irudiko hortz kristalezkoak. Ez baita harri hain gogorrik, berunezko ingude bigunak hausten ez duenik. Mintzo zolia, artea eta adorea beharko ditut, indarra eta grazia, Taniel eta istorio honetako beste zaldunak hemen goraiatzeko eta beren ibilaldi guztietan zehar haiek ongi zerbitzatzeko.

Tarielengatik negar egin duzuenok zatozte, bada, nigana, ez baitu inoiz haren antzeko beste gizon batek argia ikusi munduan. Bihotza esperantza gabeko maitasunaren lantzaz zauriturik, lanean hasi naiz bada, antzinako istorio hau perlazko lepokoa bihurtzeko asmoz. Nik, Rustavelik, lan hau neure artez burutu dut, bizia eta burua galdurik bainabil armak beherarazten dituenagatik. Haren maitasun etsiaz jota nagoelako, eta horretarako ez dut erremediorik. Hortaz, eman diezadala berak, osasuna ez bada, lurpeko hobia behintzat.

Persiako kondaira hau, nik orain georgieraz konstatzen dudana, harribitxi umezurtza zen, jendeen ahotan eskuz esku zebilena. Aurkitu ondoan, bertsoan ezarri dut eta, orain, burua zorarazten didanak bere edertasunaz koroa dezala.

Gizon bakoitzak bere zeregina bete behar du: nekazariak lurra landu, gerlariak borroka egin eta maitaleak maitatzen ongi jakin, maitasuna bera maitatuz. Izan ere, poesia, denboren hasieratik, jakituria mota bat izan da. Hitz gorenak atseginez entzuten dira, eta berba gutxitan gauza asko ikas ditzakegu. Eta bide luzeak zaldia-aren kasta ona frogatzen duen bezala, era berean, poeta-aren maila bere kontakizunaren iraupenak erakusten du.

Ezin dakioker poeta izena eman bizpahiru bertso besterik egiten ez dakienari. Ez eta bertso belaxkak idazten dituenari ere. Horrek ez daki zein hitzek hunkitzen duen bihotza. Halakoak usadio gabeko ehiztariak dira eta, gehienik ere, animalia txikiak hiltzen dituzte, baina basapiztia nagusirik ez. Hirugarren poeta taldea lagun alaiak, kantariak eta maitaleak osatzen dute. Horien bertsoak gogokoak izaten ditugu, onak direnean bederen, baina, egiazki, ez du poeta izena merezi obra luzerik egiten ez dakienak.

Benetako poetak ez du bere indarra sakabanatu behar. Aitzitik, emakume bakarra miretsi eta bera maitatu

behar du betiko. Haren edertasuna gorai patu behar du eta bere trebetasun osoa horrexeri eskaini. Nik horrela egin dut eta, egon, harro nago horregatik. Izan ere, bera da ene bizia, ikaragarria, panteraren antzera. Haren izena urrunago aipatua dut, gorespenez.

Arabiarrek beren hizkuntzan maitaleari *midjnun*² esaten diote, hau da, eroa. Eta halaxe da, jakintsuek ere ez baitute hura ulertzen. Egiazko maitaleak baina, garbia, sutsua, iraunkorra eta isila izan behar du. Ez dio bere sekretua inori inoiz aitortu behar eta bere maiteagatik etengabe sufritzeko prest egon. Bakartasunean bizi beharra dauka, maitasunarenugarretan izekirik, maitea gogoan beti. Harengatik negar egitea ongi doakio eta basamortuetan zehar bakarrik ibiltzea ere egoki du. Oroitzapenean, ordea, hura bakarra gordeko du, beste guztiei ezkutaturik.

Rostevan, arabiarren erregearen kondaira

Bazen Arabian errege bat. Izena zuen Rostevan. Handia zen, Jainkoak bedeinkatua, zuzena eta eskuzabala, anitz morroi eta soldaduren jabe, baina aldi berean, bihozbera, jakintsu eta ahalduna, eta gerlari ona ere bai.

Errege horrek alaba bakarra zuen, paregabeko neskatxa, munduko argien argia, Eguzki suen irudikoa. Hura ikusi bezain laster, guztiek galtzen zuten bihotza beragatik, arima eta zentzuarekin batera. Izan ere, haren edertasuna gorai patzeko, jakintsuen hitzak beharko lirakete, eta otoitzetako esanak ere bai. Neskak Tinatin zuen

izena, ongi gogoratzekoa, eta hazi zenean Ekia bera ilundu zuen bere argitasunaz.

Egun batez erregeak, bere visirrei dei egin ondolan, bere inguruan eserarazi eta esan zien:

–Zerbait esan nahi dizuet, erabakitzeko arazo bat dut eta. Hara, arrosak bere lorea zimeldurik ikusten duenean, beste bat dator haren orde z lorategian. Nire Eguzkia ere beheratzen hasia da, eta aurrean gau iluna dakusat jada, Ilargirik gabea. Gaitzik okerrenak, zahartasunak, jo nau, honezkero aski bizi izan naiz eta. Gaur edo bihar hilko naiz, horixe baita mundu honetako legea. Azken buruan, zertan gelditzen da argia iluntasuna nahasten zaionean? Beraz, jar diezaiogun, bada, ene alabari koroa, bera baitugu Eguzkia bainoagoa.

Eta visirrek erantzun zioten:

–O errege, zergatik mintzatu behar duzu orain adinaz? Arrosa zimelduak ere gure goresmena merezi du. Beste loreek ez baitaukate haren usain gozoa ez eta haren kolore ederrik ere. Bestalde, ez dago zeruan izarririk Ilargiarekin pareka daitekeenik, hura ilbeheran egon arren.

–Otoi, Jauna! Ez duzu horrela mintzatu behar, ez baitago zure arrosa oraino zimeldurik. Eta, bestalde, segur gaude zure kontseilua, txarra izanik ere, beste edozeinena baino hobea izanen dela. Dena den, zure bihotzak uste duen bezala jokatu behar duzu. Hortaz, ongi da, erregina izenda ezazu Eguzkia gaintitzen duena. Emakumea da, baina Jainkoak mundu honetara agintzeko ekarri zuen. Zu ez zeundenean maiz esan duguna losintxarrik gabe diotsugu orain ere. Haren egintzen distira Ekiaren parekoa da. Lehoikume guztiak berdinak dira, arrak zein emeak izan arren, beti lehoi.

Avtandil armadaburua zen, Emir Nagusiaren semea. Altzifre plantakoa, Ilargia eta Eguzkia bezalakoa.

Bizargabea zen oraindik, aurpegi ederrekoa, kristalik garbienaren antzekoa, baina ai! Tinatinen betile ilunek hiltzen zuten bera. Halere, harenganako maitasun sutsua bihotzaren barruan zeukan gorderik. Eta horrela, bere printzesa ikusten ez zuenean, haren masaila arrosak zurbildu egiten ziren, baina bera berrikustean, maitasuna berriro hazten zitzaion su eta gar, eta bere bihotzeko zauria are biziagoa egiten zen. Bai, urrikalgarria da benetan maitasuna, gizona haren oinazepean hil daiteke eta.

Rostevan erregeak tronoa bere alabari ematea erabaki zuenean, Avtandil pozarren zegoen, eta suzko gar haiek pixka bat ematu ziren. Bere buruari esan zion:

—Orain maizago ikusi ahalko dut haren kristalezko begitarte, eta agian, dudan gaitzaren erremedioa topatu ere bai.

Arabia osoan zehar hedatu zen errege handiaren erabakia:

—Agindu dut neure alaba Tinatin erregina izenda dadila. Haren distirak guztiok argituko zaituzte, Eguzki gartsuak bezala. Zatozte, bada, bera ikustera, eta gorets ezazue zeuen kantuekin.

Arabiar guztiak haraxe bildu ziren, bai gerlari eta bai handikiak. Han zen Avtandil, aurpegi argikoa, erregearen armadaren burua, eta Sograt visirra ere bai, erregearen adiskide. Bai, hantxe ziren guztiak. Eta tronoa ikustean, guztiak haren balioari prezagaitz zeritzoten.

Erregeak haraino gidaturik, distiratsu zebilen Tinatin. Tronoan eserarazi ondoan, Rostevanek koroa ezarri zion buruan. Gero, zetroa eman eta errege jantziak gainean ipini zizkion. Eguzkia balitz bezala, neskatzak dena argi ikusten zuen bere begi zoliekin. Ondoren, erregeak, bere soldaduekin, makurtu eta atzera egin zuen, hari ohore egiteko. Adarrek eta tronpetek jotzen zuten artean, erregeak hura erreginatzat bedeinkatu eta laudatu

zuen. Herri ezberdinetatik helduriko jendeek haren aitzi-
nean burua beheratu eta haren ospea goraipatzen zuten.
Erreginak, bitartean, negar egiten zuen, guztiz hunkiturik,
bere betileen bele hegala eraitsiz, aitaren tronoan eser-
tzeko ez zela gai uste baitzuen. Artean, negarrek bere
masailen arrosadia ureztatzen zioten, baina Rostevanek,
kotsolatzeko, honela esan zion:

—Aita orok bere umeari utzi behar dio lekua.
Gaur nik trinoa uzten dizut eta honela, bide batez,
erretzen nauen kezka eta sua itzaltzen ditut. Alabatxo, ez
negar gehiago egin eta kasu egiezu ene aholkuei. Nik hala
izendatu zaitudalako, orain arabiarren erregina zara eta
erresuma honen zoria zeure eskuan izanen duzu. Beraz,
har itzazu zuhurki erabakiak eta epaitu lasai arazoak.

—Gogoan izan Eguzkiak berdin argitzen dituela
arrosak eta sasiak; horrela bada, bana ezazu zeure onta-
suna bai apalen eta bai ahaltsuen artean. Izan ere, esku-
zabaltasunak gizon askea lotzen du, eta menpekoa are
gehiago. Jakizu, bada, zure ondasunak ereiten, dena
hartzten eta dena ematen dakien itsasoak egiten duen
bezala. Zeren erregeen eskuzabaltasuna Edeneko altzi-
freen parekoa baita: mundu honetan eskuzabalari guz-
tiek obeditzen diote, bai eta traidoreak ere. Jan-edanak
on egiten digu, baina zikoizkeria zertarako da? Ematen
duzuna, zeurea duzu, ematen ez duzuna, aldiz, edukazu
galdutzat.

Neskak arretaz entzuten zuen aitak ziotsona,
belarria zoli, haren kontseiluei adi. Bitartean, erregeak
poz-pez edaten zuen, umore ezin hobez. Eta Tinatinek
Eguzkia gainditzen zuen, Ekia bera Tinatindurik.

Halako batean, erreginak bere unideari, zintzoen
arteko zintzoenari, honela esan zion:

—Ekar itzazu ene altxorrak, zerorrek zigilatuak,
eta ene bitxiak oro, errege-alabatzat dagozkidanak.



Hark berehala ekarri zizkion eta ondoren erregina guztiei ematen hasi zen, esku zabalka. Eta egun horretan haurtzarotik gorderiko ondasun preziatuak banatu zituen, jende handiak eta txikiak aberastuz, eta esan zuen:

–Aitak irakatsitakoa egin dut, eta inork ez ditzala opariak ezkuta, nik emandakoak dira eta!

Eta agindu zuen:

–Zoazte ene aberastasunak hartzera. Ezkutari Nagusi, ekartzkidazu artalde eta zaldi guztiak.

Horrela egin zuen eta neskatxak, kontatu ere egin gabe, guztiak eman zituen, eta soldaduek piraten antzera bildu zituzten. Bai, altxorrak eskuratzen zituzten turkoei lapurturiko harrapakinak balira bezala. Den-dena zera-maten, baita Arabiako zaldirik garbienak ere. Bat-batean zerutik jaitsiriko ekaitza zirudien hark eta inor ez zen handik esku hutsik joan, ez gazte ez emakumerik.

Egun hori osorik eman zuten jai giroan, janari, fruitu eta edari askorekin. Soldaduak ere mordoka iritsi ziren oturuntza hartara. Guztiak pozik zeuden, erregea izan ezik, aurpegia ilunik zeukan eta. Gortelariak galdetzka ari ziren:

–Zer tristatzen du baina gure nagusia?

Avtandil, Eguzki aurpegiduna, ohorezko tokian jarria zen, soldadu haien buru adoretua, tigre eta lehoia bezalakoa. Haren ondoan Sograt visir zaharra zegoen, eta biek elkarri galdetzen zioten:

–Zer du ordea erregeak, zergatik dago hain zurbil? Zerbaitek penatzen du bera, baina ez luke hemengo ezerk kezkatu beharko. Jakin dezagun, bada, zer duen. Joan gakizkion geure solasarekin bera poztera.

Biak altxatu eta edalontziak bete ondoren, haren-gana hurbildu ziren, kezkatu. Ondoren, erregeari irri-

barre egin eta haren aurrean belaunikatu ziren. Orduan Sograt mintzatu zen, hitz ederrak esanez:

–Jauna, aurpegiz triste zaude eta irria galdua duzu. Eta, segurki, horretarako arrazoia duzu, aberastasinik gabe gelditua baitzara, zure alabak, esku zabalegi, guzti-guztiak eman ditu eta. Agian ez zenuke erregina izendatu beharko, horrelako nahigaberik gehiago ez emateko.

Horrela mintzatzen entzutean, erregea adi gelditu zitzaion. Egon, harriturik zegoen erabat, bere aurrean visirra hala hitz egitera ausartu zitzaiolako. Sograt bera ere, beranduegi baina, bere ausarkeriaz konturatu zen eta erregearen haserrearen beldur zen. Hala ere, Rostevanek irribarrez begiratu zion eta honela mintzatu zitzaion:

–Lasai; ongi egin duzu, ni zikoitza naizela uste duena erabat oker dabilen arren. Ez, ez da hori ni tristatzen nauena, ene visirra. Heldu zaidan zahartasunak ematen dit min. Zuk ongi dakizunez, alaba bakarra dut eta neure ardurarik handienaz hazi eta hezia dut bera, baina Jainkoak ez dit semerik eman nahi izan; horixe da ene zoria. Eta hara... gure artean inor ez dugu tiroan, arku-geziekin ez eta pilotan ere, ene parekoa denik, ez baita erresuma osoan gizon bat nigandik trebetasun noble horiek ongi ikasi dituenik. Agian Avtandilek, nik irakatsiak, jakin lezake zerbait.

Mutilak erregearen hitzaldia entzuten zuen, eta burua makurturik barre egin zuen, irri horrek, haren hortz zurien distira erakustean bera ederragotuz. Erregeak galdetu zion:

–Zeri egiten diok barre? Zer egin diat bada?

Berriro esan zion:

–Neure buruagatik! Zergatik egiten duk barre? Zer dut nik bada irrigarri?

Orduan zaldunak erantzun zion:

–Esanen dizut, jauna, prometatzen baldin badi-dazu ez zarela haserretuko eta ez duzula nire aurka inolako mendekurik hartuko.

Erregeak esan zion:

–Nola hasarraraziko naute bada hire hitzek? Bai, zin egiten diat, Eguzkia iluntzen duen Tinatinengatik, ez naizela suminduko.

Eta Avtandilek erantzun zion:

–Ausartzen naiz, bada, beldur gabe mintzatzeraz. Zu, errege, harrotu egiten zara arkuan duzun trebetasunagatik. Baina Avtandilek, zure oinen azpiko hauts honek, zuk bezain ongi daki tiratzen arkuan. Egin dezagun, bada, apustu, zure zaldunak lekuko direla. «Nor da ene pareko?» galdetu duzu, baina zeinek daki hori? Pilotan zein den hoberena frontoiak erabaki behar du.

Erregeak honela ihardetsi zion:

–Ez diat honetan eztabaidarik nahi eta egiten didaan erronkari gogoz heltzen zioat. Eman bada agindua, tira dezagun biok arkuan eta ez egin orain atzera. Lekukotzat zaldunik bikainenak hartuko ditiagu eta, ondoren, hesiak erabakiko dik laudorio gorespenak zeinek dituen merezi.

Avtandilek ontzat eman zuen apustu hura eta biak barrezka hasi ziren, gaztetxoak balira bezala, eta elkarrekin erabaki zuten erronkaren galtzaileak, zigorrez, hiru egunez buruhas ibili beharko zuela, kapelarik gabe. Erregeak ehiztariei agindu zien:

–Ibil zaitezte basoetan zehar eta ekar itzazue ehizi multzoak hesipeko landara edonondik.

Soldaduak ere ekarrarazi zituen:

–Zoazte eta prest egon zaitezte berehala irteteko. Eta honela amaitu zen oturuntza hura, denbora hain ederki pasarazi ziguna.

Rostevan erregearen eta Avtandilen ehizaldia

Goiz-goizean heldu zen Avtandil liraina, azuzena bezain zuzen. Soineko gorri eskarlataz jantzirik, errubizko begitartearen jabe, ehizarako kapa batekin zetorren, urrezko beloak aurpegia estaltzen ziola.

Bere zaldi zuriaren gainetik erregeari irteteko esan zion. Gertu zegoen erregea ere, eta zaldi gainera igo ondoan biak ehizan abiatu ziren. Jendeak landak inguratzen zituen, hesi handi bat eginez. Soldaduek inguru osoa jagoten zuten, txistuka eta zarataka, alaitasunez. Eta erronka hartatik garaile irteteko, tiratzaileak lerroan jarri ziren.

Erregeak agindu zuen:

—Datozela gure atzean hamabi morroi, arkuak prestatzeko eta guri gezi biziak emateko. Konta ditzatela ehizi hilak eta egiten ditugun tiroak.

Esan eta izan, berehala zelaiko leku guztietatik ehiziak irteten hasi ziren. Horra kontaezineko animaliak: oreinak, akerrak, basastoak eta sarrion jauzkariak. Ugazabak aurretik, eta atzetik morroiak, guztiak baina, lasterka. A, hura bai ikuskizun miresgarria! Begira, begira arku eta geziei, eta so egin haien beso nekazinei!

Zaldiek lurretik harrotzen zuten hautsak Eguzki izpiak ezkututzen zituen, eta haien bidean belardia odollez gorritzen zen. Geziak amaitzean, morroiek berehala beste batzuk eskuratzen zizkieten. Ehiziak jo eta bertan gelditzen ziren, urratsik ezin emanaz. Bi zaldunak landan zehar zihoazen galapan, animalia multzoen artetik, haiek gezi kolpeka hilez, sarraski horrekin zeruetako Jainkoa haserraraziz, ehizien odolaz zelaia tindatzen baitzituzten. Avtandil ikustean, guztiak honela zioten:

–Edengo altzifrea dirudi.

Berek bakarrik zeharka zezaketen eremu zabal hura iragan eta gero, ibai bat aurkitu zuten, bazterrean haitz batzuekin hornitua. Animaliak oihanean sartu ziren eta zaldiak handik ezin jarrai. Eta, hasierako indar eta adorea gorabehera, azkenean ehiztariak nekatu egin ziren. Barrezka, elkarri ziotsten:

–Apustua neuk irabazi dut.

Pozik zeuden biak eta, irribarrez, bata bestearen ondoan zebilen. Azkenean, haiekin bildu ziren atzetik zetozkien morroiak. Eta erregeak agindu zien:

–Egia hutsa nahi dut eta ez niri inolako gezurrik esan!

Morroiek honela erantzun zioten:

–Egia esanen dizugu, jauna. Okerrik egin gabe, ezin zaitugu Avtandilen parean jarri. Hala nahi baduzu, hil gaitzakezu, baina haren gezipean ehiziak etengabe erortzen zirela aitortu behar dizugu. Elkarrekin hamar aldiz hogeï ehizi akabatu dituzue, baina Avtandilek, bere aldetik, zuk baino hogeï gehiago hil ditu, ez baitu tiro batean ere hutsik egin, jaurti dituen gezi guztiakin animaliak joz, baina zure geziatariko batzuk lurretik altxatu behar izan ditugu.

Kontu horrek ez zuen inola ere erregea nahigabetu. Egon, pozik zegoen gaztearen garaipenagatik. Hura maite baitzuen, urretxindorrak arrosa maite ohi duen bezala. Horregatik, Rostevanek irribarre egiten zuen, algera. Ordurako alde egina zen haren bihotzetik lehengo tristura. Ondoren, freskatzeko, zuhaitzen itzalpera joan ziren babes bila. Soldadu guztiak haien inguruan jarri ziren, soroko galburuak bezala. Hamabi morroiak ere hantxe ziren, adoretsuen arteko adoretsuenak. Guztiak lasai zeuden eseririk, solasean, oihanari eta ibaiaren joanari begira.

Arabiako erregeak zaldun tigrelarruduna dakusa


Halako batean, handik gertu, zaldun ezezagun bat ikusi zuten negarrez, uraren ondoan eseria. Ondoan zaldi beltz bat zuen loturik. Gizona lehoiaren parekoa zen, heroi gisakoa. Zela, bridak eta tresnak perlaz zeuden apaindurik. Zaldunaren suzko malkoek, bihotzetik irtenda, aurpegiko arrosa izozten zioten. Jantzi bat zuen soinean, tigrelarruz egina, eta tigrelarruzkoa zen, halaber, haren buruko kapela. Eskuetan zigor sendoa zeukan, besoa baino lodiagoa. Guztiak ikuskizun miresgarri hori ondotik ikusteko gogoaz zeuden.

Morroi bat joan zen bihotz izekiko zaldun haren-gana. Hura bai ikuskizun tamalgarria! Burua makurturik, gizona etengabe ari zen negarrez; malkoak nonahi, kristalezko euria, haren azabatxezko begietatik jalgia. Hurbildu ondoan, morroiak ez zekien hari nola mintza. Beldurrez, ez zen ausartzen ezer esatera. Harriturik, luzaro behatu zion, baina geroago, bihotza indartu zitzaion eta honela esan zion:

—Erregeak etortzeko agintzen dizu.

Besteak negarrez segitzen zuen eta ez zuen deus aditzen, haren etorreraz ohartzeke. Morroiaren hitz bat bera ere ez zuen aditu, arduragabe baitzegoen osorik, soldadu urrunen oihu zaratotsei kasurik egiteke. Zizpuruka ari zen pitxiro, bihotza sugarrak harturik, eta haren negarra odolarekin nahasten zen, uharka batetik gainezkaturik bezala.

Haren gogoetak beste nonbait ziren, beste kezka larriek haraxe eramanik. Erregearen agindua berriz ere errepikatu zion morroiak. Ez ziren horregatik haren



negarrak amaitu, ez eta manua aditu ere, eta ez ziren haren ahoko arrosak ireki. Erantzunik ez zuenez, azkenean morroia itzuli eta erregeari esan zion:

–Uste dut ez duela zutaz deus jakin nahi. Begiak erre dizkit, Ekiak bezala, eta bihotza gogorki nahigabetu dit. Baina ez dit ezer entzun nahi izan, han luzaz egon naizen arren.

Erregeak, harriturik, bihotza gorrotoz beterik sentitu zuen. Bere aldameneko hamabi morroirik hoberenak harengana igorri zituen bat-batean. Agindu zien:

–Har itzazue eskuan zeuen armak eta zoazte, eta ekardazue han bazterrean makurturik dagoen hura.

Morroiek obeditu zuten eta harengana hurbildu ziren, arma zaratotsez. Orduan supituki zalduna jaiki zen, negarrez halere, bihotza urraturik. Begiak ingurura itzuliz, gerlari multzoa ikusi eta hitz hauek esan zituen:

–Ai ene! –besterik ez.

Zaldunak eskua begien gainetik pasatu zuen, malkoak xukatzeke. Ezpata eta gezi zorroa segurtatu ondoren, zaldiari bere beso sendoekin fermuki eutsi eta haren gainera igo zen, eta morroien hitzengatik axolatu gabe bideari jarraiki zitzaion. Erregearen zerbitzariak eskua luzatu zuten hura harrapatzeke, baina berak hain gogorki jo zituen, non etsaiak ere haiez erruki izan zitezkeen. Jo egiten zituen, gupidarik gabe hiltzen, eta haren zigorrarekin erditatik ebakitzen zituen.

Erregeak, bere senetik irtenda, sumindurik eta oso haserre, bere soldaduei haren atzetik joateko agindu zien. Besteak ez zituen begiak altxatzen, eta haien zain geratu zen. Ondoren, bere bila zihoazenengana abiatuz, guztiak lurraren gainean utzi zituen, elkarren kontra joz eta birrinduz. Rostevanek haiez urrikaltzeko aukera izan zuen.

061965940
878401101000



Orduan, Erregea eta Avtandil harengana abiatu ziren, lasterka, hain harro eta ausart zebilen zaldun hura harrapatzera. Hark baina, zaldiz, Pegaso gainean balihoa bezala, handik alde egin eta, harekin batera, Eguzkiak ere utzi zuen harana. Bat-batean, erregea bera atzetik zetorrela konturatu zen. Orduan, bera ezagutzean, bere zaldiari eragin zion eta haien begietatik berehala desagertu zen. Amildegian itzalia zela zirudien edo zeruen gainetik hegaz joana. Bilatzera abiatu ziren, alferrik ordea, ez baitzen inon haren aztarrenik ageri. Bai, bila eta xerka jardun zuten, baina dena alferlana izan zen. Guztiak hagitz harriturik zeuden, ez ohikoa delako gizakia *devi*³ baten antzera hala desagertzea. Soldaduek hildakoak deitoratzen eta beren zauriak arretaz sendatzen zituzten artean, erregeak honela zioen:

—Ikusi dut, bai, poztasuna kendu diguna.

Eta segitu zuen:

—Jadanik nekatua da Jainkoa ene orain arteko pozaz, eta horregatik atsegina atsekabe bihurtu nahi izan dit. Oraingoan heriotzaraino zauritu nau, eta inork ez du indarrik ukanen ni sendatzeko. Eskerrak Jainkoari! Horixe baita haren nahia eta borondatea.

Hori esan ondoan, atzera itzuli zen, bekosko ilunaz. Ez zituen gehiago ehizarako adarrak joarazi eta zizpuruka joan zen, etsipenez. Ehiztariek ere leku haiek utzi eta laster barreiatu ziren. Batzuek honela zioten: «Egia da.» Eta beste batzuek: «O Jainkoa!»

Erregea bere logelan sartu zen, oso triste. Inor ez zen harekin joan, Avtandil izan ezik, haren semetzakoa. Ez zen gehiago agertu bere lagunminen artean, eta orduanik isilik gelditu ziren harpa eta biolaren soinu alaiak.

Tinatinek bere aitaren tristuraren berri izan zueanean, jaiki eta haren ateraino abiatu zen, Eguzkiaren lehiakide, eta altxortzainari esan zion:

–Lo ala itzarri dago?

Honek erantzun zion:

–Eserita dago, tristurak hartuta, kolorea galdurik. Ondoan lagun bat besterik ez du, Avtandil, haren jarlekuaren aitzinean jarririk. Atzerriko zaldun bat ikusi omen du eta diotenez horrexek nahigabetu du.

Tinatinek esan zion:

–Ez natzaio orain nekatzera joanen, baina nigatik galdetzen badu, esaiozu bertan izanen naizela behingoan.

Denbora iragan eta erregeak galdetu zuen:

–Esadazue, non da ene alaba? Ene poza bera da, ene bitxia, ene biziaren ura bera.

Altxortzainak erantzun zion:

–Etorri da, tristerik eta zurbilik, baina zure nahigabea jakinda, ez zaitu gehiago gogaitu nahi izan.

Orduan erregeak agindu zuen:

–Datorrela lehenbailehen! Nola biziko naiz ni, ba, hura gabe? Esaiozu: «Zergatik alde egin duzu, zuk, aitarekin bizi zarenorrek? Zatoz eta uxa ene nahigabea, senda ezazu ene bihotzeko zauria. Esanen dizut zer gertatu zaidan eta zerk kendu didan poza.»

Tinatin, aitaren esaneko ona, berehala joan zen, haren begitarteari Ilargiaren argitasuna zeriola. Aitak bere ondoan jarrarazi zuen bigun-bigunki besarkatuz, eta honela esan zion:

–Zergatik ez zara lehenago etorri? Ene deiaren zain egon ote zara?

Neskak erantzun zion:

–O errege, hain jausirik zeundela jakinda, nor ausart zitekeen zuregana etortzen, harro izanik ere? Zure bihotz minak zeruko argizagiak ere amilaraziko

lituzke. Bestalde, gizonak, sufritu barik, arazoak gainditzen jakin behar du.

Erregeak orduan esan zuen:

—Alaba, zoritxar handia gertatu zait, baina zure etorrerak eta zu ikusteak poza ematen dit. Nahigabea kentzen didazu elixir bikainak bezala. Ene zizpuru aie-neak zuk ongi ulertuko dituzu. Hara, zaldun bat ikusi dut, arrotz bezain miresgarria, eta harengandiko distirak munduaren azken txokoa argitzen zuen. Nondik zetorren ez dakit, ez zerk penatzen zuen, ez eta zergatik ari zen negarrez ere. Ez du nahi izan nik bera ikusterik eta, horregatik, neure erresuman halako deskortesia egin didalako, oso haserre, harrapatu nahi izan dut. Baina ikusi nauenean, bere zaldi beltzaren gainean abiatuz, begietako malkoak kendu eta bera atxilotzera igorri ditudan soldadu guztiak birrindu ditu, eta berehala deabrua bezala desagertu da, ene gizonen zoriaz arduratu gabe. Oraindik ere ez dakit egia ala ametsa izan ote den.

—Harriturik nago. Zer zen hura baina? Nolako ametsa ote nirea? Soldaduak hil dizkit odola uholdeka isuraraziz. Gizakit zat jo al daiteke gure begien aurretik horrela galdu dena? Lehenago Jainkoak laguntzen ninduen, baina gaurdanik, bistan da, utzi nau. Haren orain arteko dohainei honezkero mingots deritzet. Behialako egun zoriontsu haiek ahantziak ditut jada. Orain edozergatik larritzen naiz eta inork ezin kontsola nazake. Egunak ugari limurtzen dira, baina ezerk ere ezingo dit poztasunik berriz eman.

Alabak erantzun zion:

—Entzun, otoi, o errege, ene hitz apalok. Zergatik marmarka ari zara zoriaren eta Jainkoaren aurka? Zer dela eta deritzozu mingots hain gozoki zaintzen eta gordetzen gaituenari? Gaizkia zertarako sortuko luke ongia-
ren egileak? Kontseilu hau ematen dizut: zu erregeen arteko erregea zara, zure lurraldeak oso urruneraino

hedatzen dira eta edonon betetzen dira zure aginduak. Igor itzazu, bada, zeure mandatariak toki guztietara gertakari horren berri izateko. Horrela laster jakinen duzu zaldun hori haragizkoa den ala ez.

Ongi iritzi zion erregeak alabaren proposamenari eta mezulariak bidali zituen munduko lau aldeetara agindu honekin:

–Zabiltzate eta ez gorde zeuen kezka, zoazte eta bila ezazue zaldun hori eta ez arduratu beste ezertaz ere. Eta izkiria itzazue gutunak zuek ezin hel zaitezketen tokietaraino.

Mandatariak, bada, handik joan eta bakarrik ibili ziren urtebetean, toki guztietan zaldun ezezagunaren bila, guztiei beti galdezka, baina ez zuten inor aurkitu hura ikusi zuenik. Azkenean, atzera itzuli behar izan zuten Rostevanengana, etsipenez bihozgabeturik. Mezulariek honela erantzun zioten:

–O errege, zuk agindu bezala, mundua zeharkatu dugu, baina zaldun hori ez dugu inon aurkitu; ez dugu poz hori izan. Ez dugu gizon bat ere topatu haren berri duenik. Zoritxarrez ezin izan zaitugu zerbitzatu, jauna; beste bideren bat aurkitu beharko duzu.

Erregeak esan zuen:

–Zuzen zegoen, bai, ene alaba. Nik deabruzko zerbait ikusi nuen, infernuko engainuren bat. Airetik edo jaitsiriko etsaia, nonbait. Honezkero neure nahigabea bazterrean utzi eta ez dut gehiago hartaz oroitu nahi.

Horrela mintzatu ondoan, poza eta jolasak berriro piztu ziren. Leku guztietatik koblakariak eta jokalariak ekarrarazi eta opariak egin zituen; eta bere jauregian berriz ere jendea errezibitzen hasi zen. Jainkoak sorturikoetarik, zein beste gizon izan zitekeen, eskuzabaltasunean, haren parekoa?

Tinatinek Avtandil zaldun ezezagunaren bila bidaltzen du

Bere gelan eseririk, Avtandilek, kantari, harpa jotzen zuen. Bat-batean, Tinatinen neskame beltza hara sartu eta honela esan zion:

—Altzifrearen itxura duenak, Ilargia bezain distiratsuak deitzen zaitu, jauna.

Avtandil, hain berri pozgarria entzutean, berehala jaiki eta bere soinekorik dotoreena jantzi zuen, arrosa ikusteko irrikaz, ez baitziren ordurarte behin ere elkarrekin egon bakarrik.

Pozik joan zen, bada, bere maitearen edertasuna ikustera, haren ondoan egotera, harro. Han ikusi zuen neska paregabea, hainbeste aldiz negarrarazi ziona. Jarririk zegoen, tximista bezain ederra, Ilargiaren iluntzailea, umore ilunaz baina. Erbinude zurizko larruak inguratzen zituen haren bular biluzi ederrak, eta purpurazko belo preziatuak, arduragabeki jarriak, haren betile beltzak, bihotz zulatzaile, uzten zuen ikusten, eta adats joriak lepo zuria apaintzen zuen.

Zaldunari esertzeko esan zion, eta neskameak berehala ekarri zion jarlekua. Mutila adi zegoen, hari so, isilik. Neskatxa, azkenean, honela mintzatu zitzaion:

—Beldur naiz eta nahiago nuke hitzik ez egitea, baina ez dut horretarako indarririk, ez eta pazientziarik ere. Esanen dizut, bada, zertarako deitu zaitudan, zaldun enea, zerk tristatzen didan aurpegia eta zergatik dagoen ene izpiritua goibel.

Zaldunak berehala erantzun zion:

—Mintzatzen entzuten zaitudanean, dena desegoki iruditzen zait. Ilargia, Eguzkiaren aitzinean, suntsitzen

baita, ezerezturik, eta nik ere ezin pentsa dezaket deus. Esadazu, bada, zer egin behar dudan zure pena sendatzeke.

Neskatxak hitz egokiz erantzun zion, kortesiaz:

—Badakit gaur arte enegandik urrun egon zarela eta orain ere harriturik zaudela, ezinezkoa iruditzen zitzaizunaren aurrean. Esanen dizut, bada, zerk kezkatzen nauen. Gogoan al duzu Rostevanekin ehizan ibili zine-nean ikusi zenuen zaldun arrotz hura, negarrez ari zena? Ordudanik maiz pentsatu dut hartaz, eta nor den jakin nahi nuke. Arren eskatzen dizut haren bila joan zaitezela mundu guztian zehar, bera aurkitu arte.

—Bestalde, zu isilik egon arren, aspaldian dakit maite nauzula. Bai, konturaturik nago zure negar izoztuez. Badakusat ene amodioak preso zarabiltzala eta ene gatibu zarela. Horregatik, bi arrazoiengatik zerbitzatu behar nauzu, nik diotsudana betez. Lehenik ene zaldunik hoberena zarelako, hezur eta mamizko izakien artean paregabea. Bigarrenez, *midjnur*² maitatzaile gisa, egiazki horrelakoa baitzara. Zoaz, bada, zaldun horren bila.

—Horrela zeure maitasuna frogatuko didazu. Urrun ezazu enegandik tristura, katea ezazu deabru zital hori, erein iezadazu arrosaz bihotza eta izpiritua bioletaz. Ondoren, zatoz, o lehoi, eta biok, Eguzki bilakaturik, elkartuko gara.

—Bila ezazu hiru urtez zaldun hori. Aurkitzen baduzu, garaile itzul zakizkit, berri ona ematera. Aurkitu ezean, hura begitazio hutsa izan zela pentsatuko dut eta hemen aurkituko nauzu, arrosa ninika, zimeldu gaberik. Zin egiten dizut, eta artean beste batekin ezkon banendi, Ekiak berak, giza itxuraturik, paradisu honetatik atera eta infernura egotz nazala. Eta zeu ere, amore maite, hala balitz, zatoz ni hiltzera, zeure ezpataz ene bihotza erditzera.

Zaldunak erantzun zion:

—O ene Eguzki, azabatxezko betileduna, zer esanen dizut nik, bada? Nola duda egin dezakezu nitaz? Herioaren zain nengoen eta horra!, zuk bizia eman didazu bat-batean. Segur egon: obedituko dizut eta zure esklabo zintzoenaren gisa zerbitzatuko zaitut. O Ekia, Jainkoak berak halaxe Eguzki egin baitzaitu, zeruko argizagiak meneratzeko. Zugandik datorkidan grazia ustegabea dut eta ene arrosa, zure argiaren distirapean, hemendik aurrera ez da berriz zimelduko.

Berriz ere promesak egin zizkieten elkarri, eta hizketan batak besteari adore eta poztasuna ematen zioten, mila gauzen ganean mintzatuz. Azabatxeak distira egiten zuen haien begietan eta errubiak masailak bainatzen zizkien. Zaldunak esan zuen:

—Zu ikusten zaituena zorutzen da, baina darizun garrak ene bihotzeko zauria sendatzen du.

Urrundu beharrak penatzen bazuen ere, zaldunak alde egin behar izan zuen eta bere buruari honela ziotson:

—O Eguzki, zugandik urrun ene arrosak zenbat sufritu behar duen! Ai ene, anbarra baino horiago nago orain, behiala kristal eta errubi distiratsua nintzena. Nola biziko naiz hain luzaro, bera ikusi gabe? Baina legeak dio maiteak bere maitegatik pairatu behar duela.

Bihotza urraturik, Avtandil irteteko prestatu zen. Bera hara joateko lotsaz, morroi bat bidali zuen errege-agana, bere partez hitz hauek esan ziezazkion:

—O errege, guztiak zure ezpataren meneko izanik, mundu zabaletik irtenen naiz, zure ahalmenaren berri orok jakin dezaten. Inguruko auzo herri guztietatik ibiliko naiz borrokan, Tinatinen handitasunaren etsaien bihotzak zulatzeko. Menekoak errespetatuko ditut, baina bihurriei negar eraginen diet. Hainbat opari eta agurrak igorriko dizkizut edonondik.

Erregeak, hunkiturik, honela erantzun zion:

—O lehoi, hik ez duk borrokan inoiz atzera egiten. Esan dizkidaan hitzak hire adorearen parekoak dituk. Hoa, bada! Baina zer egingen dut nik hire etorrera luzatzen bada?

Zalduna erregeari agur egitera joan zen:

—Jauna —esan zion—, lotsatu egin naute zure laudorioek. Jainkoak nahi izan beza egun ilun hauen gainean bere argitasuna hedatzea, eta eskain diezadala noizbait zure aurpegi poztua berriz ikusteko atsegina.

Erregeak besoak haren lepora eraman eta seme bat bezala besarkatu zuen. Harrigarri zeuden han biak, maisua eta ikaslea. Azkenean zalduna altxatu zen, irte-teko prest. Rostevanek, jakintsu eta bihozbera, nekez ezkututzen zituen malkoak.

Eta Avtandilek, zaldun boteretsuak, erbesterako bidea hartu zuen. Hogei egunez ibili zen zaldiz, pausarik gabe, egunak eta gauak elkartuz. Munduaren esperantza zen bera, munduaren poza eta altxorra, eta haren baitan Tinatinen oroitzapenak bere garretan kiskaltzen zuen etenik gabe.

Avtandilek bere menekoei eginiko gutuna

Avtandilek, joan aurretik, honela idatzi zuen:

Ene meneko leialok, beti izan zaituztet ikasle zintzo, borrokalari kementsu eta bikainak, eta ene aginduei segitu egin diezue, itzala atzetik darraidan bezalaxe. Entzun

nazazue orain arretaz, neure eskuz, eginiko gutun honen bidez. Denboraldi baterako aldendu beharra daukat, hemengo bizimodu atsegina utzirik.

Arazo batek Herritik urrunarazten eta txiro eta bakarrik bizitzera behartzen nau, egun luzeetan zehar, hara eta hona. Horrexegatik eskatzen dizuet, ni kanpoan nagoen bitartean, erresuma gorde eta etsaiengandik babes dezazuela. Neure lekuan agintzeko, Xermadin izendatzen dizuet, ordezeko. Ekia bezalakoa da eta arrosak hotzetik zainduko ditu, baina argizaria bezala urtuko ditu, aldiz, gaizkileak. Dakizuenez, anaia bat bezalakoa dut bera, eta semetzat hezia. Haren esanak bete, Avtandilenak berarenak balira bezala. Garaiz itzul ez banendi, negar egizue nigatik.

Bere zaldi gainean igo eta bere inguruko zerbitzari jopuei bakarrik uzteko agindu zien, eta Tinatin ederra gogoan, erbestera abiatu zen.

Tximista gisa zihoan. Zein gizakik ikus zezaketen bera? Zein hari jarraiki? Zein ezpatak harenaren aurka borroka egin? Barnean zeraman maitasunak froga gogor hartarako ematen zion indarra.

Haren soldaduek, penaz, beren nagusia hala joatea deitoratzen zuten:

—O lehoi, Jainkoak berak jar al lezake beste inor zure lekuan?

Eta, etsipenez, negar tristeak isurtzen hasi ziren. Xermadinek armada bildu zuen eta Avtandilen gutuna irakurri zien. Adi-adi entzuten zuten guztiek, bihozgabaturik, beren buruak kolpatuz:

–Gure izatea, hura gabe, zama astuna izanen da, baina nori, zuri ez bada, utziko lioke berak lekua? Obedituko dizugu eta zure esanetara egonen, Xermadin.

Eta guztiek agurtu zuten jaun bihurturiko menpekoa.

Avtandil tigrelarrudun zaldunaren bila doa

Dionos⁴ eta Ezros⁵ jakintsu biak ditut lekuko: Zein urrikalgarria den arrosa, izotzak jotzen duenean! Halaber, urriki izatekoa da gizona, berez errubi, kanabera lirainaren taiukoa izanik, nora ezean alderrai, bere etxea utzi duenean.

Mendi-zelaiak zeharkatuz, laster utzi zuen atzean Avtandilek arabiarren herria eta muga berrietan abiatu zen. Bere Eguzkitik urrun egon beharrak, ordea, bizitza erdia ebasten zion, baina bere buruari pazientzia izateko ziotson. Bila zebilela, herri ezezagunak bisitatu zituen eta ibiltariei galdetzen zien zaldun arrotz haren berri. Baina inork ezer jakin ez.

Hara eta hona ari zen bila eta bila, haren maite-minezko negar malkoek ozeanoaren uhinak handitzen zituzten bitartean. Ohetzat lurra zeukan, buruari besoe-kin eutsiz. Bere baitan honela zioen:

–O ene maite ederra, urrun banaiz ere, ene bihotza zuregandik hurbil da. Zuregatik hil ahal banintz, bedeinkazioa nuke heriotza.

Mundu osoa zeharkatua zuen jada, zoko-moko guztiak arakatuz. Ez zegoen zerupean bera ibili gabeko tokirik, baina inon inork ez zuen deus aditu bilatzen

zuenari buruz. Hiru hilabete besterik ez zitzaizkion falta, aginduzko hiru urteak konpli zitezen.

Halako batean, herri arrotz batera ailegatu zen, itxuraz beldurgarria. Han hilabete osoan egon arren, ez zuen gizakirik bat ere aurkitu. Vis-ek eta Ramin-ek⁶ berek ez zuten halako pairurik inoiz sufritu. Bitartean, egunez eta gauzez bere maitea besterik ez zerabilen buruan.

Mendi handi baten tontorrera igo eta handik haran bat ikusi zuen, eta ibai bat ere bai, erraz iragan zitekeena. Gailur hartan pentsakor gelditu zen: «Ai, ene misterioa argituko balitz, ene oraingo txarra on bilaka lekidake! Izan ere, nola itzuliko naiz esku hutsik? Zer esanen diot orduan neure argizagiari? Eta ez dut inon aztarrenik aurkitzen lan honetan niri laguntzeko. Segur asko, arrazoia zuten hura sorgin edo deabru bat zela ziotenek. Baina hobe dut pazientzia izatea. Jainkoak laguntzen ez banau, alferrik izanen dut negarra. Inork ezin dezake patua alda, eta izan behar dena izanen da.»

Menditik jaitsi, ibaia zeharkatu eta herrialde ezezagun hartatik segitu zuen. Beste hilabete batean ez zuen bidean inor aurkitu. Basapiztiek orro egiten zuten, baina hark beldurrik ez. Avtandil, erdi basati bilakaturik, gose zen eta bere arku-geziekin ehizia eraitsi ondoren, bera erretzeko, sua piztu zuen. Zaldia ingurutik solte zebilkion.

Ustekabean sei zaldizko ikusi zituen beragana hurbiltzen eta, bidelapurrak edo zirelakoan, Avtandilek arku-geziak hartu zituen eta haiengana abiatu zen. Bi gizon bizardunek nerabe bat zekarten, bizargabe eta ahula, buruan zauri odoltsua zuela, konortea galdurik. Beste biak aieneka zihoazen, gaztea hil hurran zegoen eta.

—Nortzuk zarete, anaiok —hots egin zien— ohointzat hartu zaituztet eta.

Eta besteek erantzun zioten:

–Zaude lasai. Bakean gatoz eta eskertuko genizuke lagundu ahal bazenigu.

Gizonekin mintzatzeko, haienganatu eta kolpatua osatzen jardun zuen. Haiek beren historia kontatu zioten:

–Zauritua geure anaia dugu; horrexegatik ari gara negarrez. Katai⁷ urrunean gotorlekua dugu eta handik hona etorriak gara, hemengo toki hauek ehizarako onak direlakoan. Anitz soldadurekin iritsi ginen eta toki hau gogokoa genuenez, berton gelditu ginen hilabete osoan, basapiztiak eta ehiziak haran, muino eta mendietan etengabe hilez.

–Azkenean, soldaduak etxera bidali genituen, hildako oreinen larruekin zamaturik, eta hirurok gelditu ginen, ezkutari laguntzaile banarekin. Elkarren lehian jardun genuen, baso eta malkarretan patariak eta hegaztiak ehizatzen, neka ezinik.

–Bat-batean, zaldun bat agertu zitzaigun, zaldi beltz baten gainean eseria, gorputza eta burua tigrelarraz inguratua, gizakiek behin ere ikusi gabeko edertasunaren jabe. Gure begiek ere ezin jasan zezaketen haren tximista distiraren argitasuna. «Eguzkia bera da, –geniotson elkarri– zerua utzi eta orain lur gainetik dabilena.» Eta bera harrapatu nahi izan genuen; nahi bai, baina ezin, eta horrexegatik ari gaituzu orain malkotan.

–Ni nagusia naizenez gero, niri zegokidan bera atxilotzea, baina anaiarik gazteenak haren zaldi beltza miresten zuenez, esan zigun berak bakarrik garaitu nahi zuela, eta halaxe egiten utzi genion guk. Haren kristal errubiek aurpegiko arrosa delikatua apaintzen zioten eta haren gozotasuna harrotasun bihurtu zen gure begietarako.

—Zaldunagana hurbildu zenean, hark, ezpata atera ere egin gabe, zigor kolpe bakarraz buruan larriki jo eta hilotzik bezala lurreratu zuen. Gero, zalduna aldentzen ikusi genuen, aske, zorrotz eta harroki. Ez zen atzera itzuli, eta ikus ezazu orain bera, han, bere zaldiaren gainean, Ilargiaren pareko, Eguzkia bezalakoa.

Eta atsekabez negar egiten zuten, urruntasunean zalduna seinalatuz, baina zaldia besterik ez zen ageri, gainean Eki distiratsua zeramala.

Avtandilek bere masailetatik malkoen elurra xukatu zuen. Ez ziren alferrik iraganak atzerriko egun luze haiek. Gizakiak bere antsien xedea azkenean lortzean, ez du gehiago gogoratu behar joandako ordu saminen zorigaitza.

—Anaiok —esan zien—, zoritxarrekoa nauzue, etxe eta aterperik gabea, sorterrria aspaldian utzia baitut zaldun horren bila. Zuei esker, bila nenbilena aurkitu dut. Jainkoak ailetsa zuek behin ere maluros ez izatea! Orain ene bihotzak nahi zuenaren bila noa, eta Jainkoari nahi dakiola zuen anaia lehenbailehen sendatzea.

Eta aterpe bat eskainiz, agur egin zien, esanez:

—Zaudete bakean. Jar ezazue bera itzalpean eta zuek, artean, sosega zaitetze.

Eta bere zaldia ezproiekin akuilatuz, hegaz abiatu zen handik, lokarriak estekatzen ez duen aztorea bezala. Esan zitekeen Ilargia Eguzkiaren bila zihoala, zeruko argizagi argitsuen gisan. Hurbildu ahala, pentsatzen ari zen, elkarrikustea nola antola.

—Zuhurtziarik gabeko hitzak entzunez, eroa are eroago bihurtzen da. Zuhurrak, aldiz, argitasuna ekarri behar du arazo zailetan. Ez du behin ere zalantzan ibili behar, gogoia beti erne izanik. Bat-batean harengana joan banendi, etsai gisan borrokan jardun beharko genuke, eta hil beharko nuke, hark hilko ez banindu.

Ez, bestela jokatu beharko da. Bizidun orok pausatzeko habia behar du, bertan egoteko. Doala nora nahi duen, harresi artean bada ere, eta ni jarraikiko natzaio, azkenean aurkitu arte.

Eta bata bestearen atzetik egunez eta gauez ibili ziren galapan. Amaigabeko lasterraldi horretan ez zuten jateko astirik ere hartzen, ez ziren behin ere gelditzen, eta zerizkien negarrek landak eta zelaiak urezta zitzaketen.

Goizaldetik zihoazen arinka eta arratsean harkaitz handi batzuk ikusi zituzten. Erdian haitzulo bat ageri zen, ondoan ibaia zuela. Bazterrean konta ezineko kanaberak hazten ziren eta zuhaitz garai ugari ere bai, noraino heltzen ziren ezin ikusiz. Harkaitzak eta ibaia zeharkatuz, zalduna haitzulora hurreratu zen. Avtandil, oinak lurrera eraitsiz, zuhaitz handien artean ezkutatu, haietako batean zaldia lotu eta beste zuhaitz batera igoz, handixek begira gelditu zen, zelatan.


Zaldun tigrelarrudunak baso iluna gurutzatu ondoan, andre bat agertu zen haitzuloaren sarreran, beltzez jantzia. Hura ere zinkurinez ari zen, eta haren malakoak itsasoko uhinei eransten zitzaizkien. Zaldunak zalditik jaitsi, haren lepoa besoarekin inguratu eta esan zion:

—Asmat, arreba neurea, gure itxaropenak itsasoan galduak dira; ez dugu garaiz aurkitzerik izan bere suarekin erretzen gaituena.

Eta bere bularra jo zuen, negarrez, ahuldurik, eta neska gazteak besarkatu zuen, batak besteari odolezko malakoak xukatuz.

Etsi gaiztoan beren buruetatik kentzen zituzten ileekin oihana are ilunago egiten zen. Emakumeak gizona besarkatzen zuen, zaldunak emakumea. Biek oihu, biek intziri, aieneka, eta harkaitzek haien oihartzuna islatzen zuten. Avtandil adi zegoen, haien portaera arraroz harriturik erabat.

164965034
210-21110193



Emakumeak, azkenean lasaiturik, zaldiari bere zela eta hornidura preziatua eraitsiz, haiek haitzulora sartu zituen. Zaldunari ere bere armadura eta sare mailazko kota erantzi zizkion. Biak harpera sartu eta egun horretan ez ziren handik gehiago irten.

Avtandil zurturik zegoen. Nola istorio hura konpreni? Biharamunean, emakumea berriz agertu zen, bezperako soineko beltzaz jantzirik, eta zaldi beltza bridatu eta zaldunari armadura janzten lagundu zion. Elkar besarkatu ondoren, negarrez eta bular kolpeka, zalduna zaldi gainera igo eta handik urrundu zen.

Avtandilek zaldun ederrarengan jarri zuen begia. Bibote fina zuen eta bizarrik oraindik ez.

–Ez ote da zeruko Eguzkia bera? –pentsatzen zuen, haizeak zekarkion aloe lurrina usnatuz–. Horrek lehoi bat hilko luke, lehoiak ahuntza urratzen duen bezain erraz.

Urrundu zen zalduna lehengo eguneko bidetik, eta kanaberadi handiak zeharkatuz, zelaiez bestaldera joan zen. Avtandilek harriturik begiratzen zion, hosto artean ezkutaturik, eta bere buruari esan zion:

–Jainkoak, egiazki, ongi jakin du arazo hau konpontzen. Zer egin zezakeen hoberik? Orain emakumea ene esku utzi du eta zaldun horren istorioa kontatzera behartuko dut. Nik ere neurea kontatuko diot, jakin gainean egon dadin. Ene ezpatak ez du zalduna hilko, eta harenak ere ez nau ni zeharkatuko.



Avtandil Asmatekin mintze da haitzulcan

Zuhaitzetik jaitsi, zaldiaren lotura askatu eta, zelaren gainera jauzi eginez, haitzolorantz abiatu zen Avtandil zalduna. Emakumea beragana abiatu zen poza-
rren, aurpegia malkoz beterik oraindik, aurpegi arrosa-
dun eta kristal distiratsuko beste zalduna zelako uste
okerrean. Konturatu zenean baina, harkaitzetarantz alde
egin zuen oihuka, haitzuloan ezkutatzeko asmoz.
Avtandilek, berriz, berehala harrapatu zuen, lakioan
eperra bezala, eta oihartzunak emakumearen deiadarrak
aniztu zituen.

Halere, ez zen meneratzeko erraza, eta arranoak
harrapaturiko eperra bezala inarrosten zen, Taniel delako
bati dei eginez, haren alde etor zedin. Avtandilek, belau-
niko, eskuak altxatuz erregu egiten zion:

–Zer egin dizut nik bada? Zaude isilik, otoi.
Zalduna ikusi dut: haren arrosak, haren bioletak zurbil
daude; mintza zakizkit beraz, taiu distiratsuko altzifre
horretaz; ez egin horrelako oihurik, ez baitizut deus txar-
rik eginen.

Negarrez, emakume gazteak honela esan zion:

–Eroturik bazaude, lasai zaitez edo, bestela, urrun
zaitez enegandik. Oso gauza zailak kontatzeko eskatu
didazu arinkeriaz. Alferrik ari zara, ordea, ez baituzu
enegandik bat ere adituko. Ez dakizu, o zalduna, zer
eskatzen didazun. Lumak ez lekike horren antzekorik
izkiriatzen. Ehun aldiz «konta ezazu» esanen badidazu
ere, neronek ehun aldiz «ez» erantzunen dizut.

–Andre gaztea, zuk ez dakizu nondik natorren
eta nolako gaitzak sufritu ditudan luzaro, zaldun horretaz
deus entzun gaberik. Eta orain, haren berri dakien bat

aurkitu dudanean, ene hitzek haserrarazten bazaituzte ere, ezin dizut joaten utzi; konta ezazu, otoi.

Andreak, ordea, behin eta berriro ezetz erantzun zion, munduko ezergatik ere ez zuela deus esanen eta nahi zuena egin zezala. Zaldunak zeruaren izenean erregutu zion eta haren aitzinean belaunikatu ere egin zen, baina ezertxo ere ez zuela lortzen ikustean, erregutzeari utzi eta, haserrez beteta, begiak odoleztaturik, adatsetik oratu eta sastakaia saman ezarri zion.

Honela mintzatu zitzaion:

–Nola nahi duzu honenbeste nahigabe barka diezazudan? Nolatan ausartzen zara ni haserraraztera, nire lantua alferrik isurtzen utziz? Hobe duzu dena kontatzea eta ez dizut minik bat ere eginen. Ezpabere, Jainkoak jo beza ene etsaia nik hilko zaitudan bezala.

Emakumeak ihardetsi zion:

–Bide okerra hartu duzu; bururik gabe eta hilik ezingo natzaizu mintzatu. Ez pentsa, bestalde, herioa oinaze eta pairu handia nukeenik. Ene negarren aintzira agorturik, malkoen pena kenduko zenidake. Bost axola dit mundu osoak, ez zaitut ezagutzen eta ezin dizut esan hitz egiazkorik.

Zaldunak orduan pentsatu zuen: «Honela ez dut mintzaraziko. Beste zerbait asmatu beharko dut, bide egokiagoren bat hautatuz.»

Emakumea bakean utzi eta urrunago joan zen eta han eseririk negarrez hasi zen. Eta esan zion:

–Nahigabetu zaitut eta ez dakit zer egin hori erremediatzeko. Garbi dakusat ezin berreskura dezakedala orain zure konfiantza, zuretzat arrotza, umezurtza besterik ez naiz eta. Halere, erreguka eskatzen dizut nitaz fida zaitezela, esana baita bekatua zazpi aldiz barkatu behar dela⁸.

–Ez dut jakin zu pozten, ene zerbitzuekin zu kontentatzen. Baina maitatzaileaz urrikaldu beharra dago; hori behintzat, ulertu beharko zenuke. Ez dut inon laguntzarik aurkitzen, inork ezin sorots nazake. Neure arima eskaintzen dizut zure bihotzaren orde. Zer gehiagorik eman nezake?

Maitasunezko hitzok aditzean emakumeari aurpegikera aldatu zitzaiola eta zizpuruka hasi zela konturatzean, zaldunak honela esan zion:

–Maitatzailea naiz, *midjnur* eroa, ezin bizi naitekeena. Neure Eguzkiak bidali ninduen zaldun horren bila eta hargatik iritsi naiz hodeiak ere helduko ez liratekeen tokietara. Hark eroturik nauka. Bi gauzotatik, egizu bat: gatiba edo libra nazazu, indazu bizia edo, ni hilez, zoritxarrari erants zoritxarra.

Andre gazteak lehen baino eztiago hitz egin zion:

–Bide hobea aurkitu duzu oraingoan. Bihotzean hunkitu nauzu, baina ez naiz horregatik mintzatuko. Halere, esanen dizudana egiten baduzu, seguraski bilatzen duzuna aurkituko duzu. Bestela ere, negarrek ez dizute lagunduko, eta lotsaz hilko zara.

Zaldunak erantzun zion:

–Kontu horrek honako hau dirudi. Bazihoazen bidean bi gizon, eta atzean zihoanak aurrekoa leize batera erortzen ikusi zuen. Hara hurbildu eta «zorigaitz guri» esanik, hara hurbildu eta honela mintzatu zitzaion: «Adiskide, hago hor, laster etorriko nauk; soka luzea ekarri eta hortik aterako haut eta.» Behean zegoena barrezka hasi zen eta honetara erantzun zion: «Zer besterik egin dezaket bertan egotea ez bada? Nola salbatuko naiz bada?»

–Zeure eskuetan duzu, arreba, ene lepoa inguratzeko duen soka. Nahiago duzuna egin dezakezu. Zu gabe ni ez naiz deus eta ezin dezaket ezer besterik egin.

Orduan emakumeak esan zion:

–Zalduna, zure gogoeta hori gustatu zait. Zaldun ona dirudizu, jakintsuen laudorioak merezi dituena. Hainbeste sufritu duzunez gero, entzun diotsudana: bila zenbiltzana aurkitua duzu jada.

–Gure izenak esanen dizkizut. Zaldunari Tariel deritzo. Ni, aldiz, Asmat deitzen naiz. Zaude hemen, toki hauetatik urrundu gabe. Bera datorrenean, otoi eginen diot eta, agian, erdietsiko dut zuek biok elkarri aurkeztea, adiskide izan zaitezten. Orduan berberak kontatuko dizu guztia, eta zuk zeure maitea poztuko duzu. Baina, o zalduna, Jainkoak ongi hornitu zaituen arren, artean, ezkuta zaitez haitzulo honetan, ez baita haragizko gizonik zaldun horri aurre egin diezaiokeenik. Agian nik dena konponduko dut eta gorrotorik gabe begiratuko dizu.

Halaxe egin zuen Avtandilek eta kobazulo hartan egon zen ezkutaturik harik eta beste zalduna etorri zen arte. Iritsi zenean, Asmatek bera besarkatu eta biak negarrez aritu ziren zati batez. Avtandilek bere presondegian libre, zelatan ikusten zituen. Andreak Tarielentzat tigrelarruzko tapiz batzuk hedatu zituen lurrean, haien gainean eser zedin. Sukarri batekin sua piztu eta hango haragi errean janen zuela pentsatzen zuen, baina hark jateko gogorik ez.

Ondoren zalduna zoko batean etzan zen eta pixka batez lo egin zuen. Baina, bat-batean, ikaraz betarik itzartu eta burua makila batekin eta bularra harri batekin jotzen hasi zen. Hori ikustean, emakumeak galdetu zion:

–Zer gertatzen zaizu?

Hark erantzun zion:

–Burura etorri zait behin errege bat aurkitu nuela, landa batean ehizan zebilena, aldamenen soldadu asko zituela. Gizon haiek ikusteak tristatu ninduen. Ez nuen

haiengana hurbildu nahi izan eta basoan ezkutatu nintzen. Eraso ez balidate, biharamun goizean handik bakean joan nintekeen, baina ez; haiekin borrokatu beharra izan nuen.

–Mundu guztia zeharkatu duzu eta oraindik ez duzu zeure gustuko gizakirik bat ere aurkitu. Horrelako bat beharko baitzenuke, laguntzeko eta erotasunetik gorde zaitzan.


Zaldunak erantzun zion:

–O arreba, urriki handia erakusten didazu, baina ene zauria sendatzeko ez dago erremediorik mundu osoan. Nork aurki lezake oraindik jaio ez dena? Ene poz bakarra heriotza dateke, arima gorputzetik banatzen denean.

Orduan emakumea honela mintzatzera ausartu zitzaion:

–Orain arte kontseiluak eman dizkizut, baina gizon bat ekarriko banizu bere gogoz zurekin joateko prest, beti zure ondoan legokeena eta bere hitzekin zu kontsolatzeko, zin egidazu ez zenukeela bera hilko, ez eta kalterik bat ere egingen.

–Horrelako bat bazenekarkit –esan zion–, pozik errezibituko nuke. Zin egiten dut zelaietan ero narabilen amoreagatik; ez nioke inolako kalterik egingen, ez eta oinazerik ere emanen. Bere gogara arituko nintzateke eta bihotzez maitatuko nuke bera.



Tarielen eta Avtandilen elkarrikustea

Orduan, emakumea altxatu eta kanpora irten zen, zaldun hori ekartzeko.

—Ez dago inola ere haserre —esan zion, adorea emateko. Eta eskutik eraman zuen, Ilargi betea bezain distiratsu. Tarielen ikusi zuenean, Ekiaren aitzinean zela uste izan zuen.

Tariel harengana joan zen. Biek Eguzkia ziruditen, zeru garbiko Ilargiaren antzeko, beronek gauetz landak zilarreztatzen dituenen. Haien ondoan zurzuriak uste luke bere liraintasuna galdua izatea. Haien zazpi planetekin konpara nitzake, goretsiz. Batak bestea besarkatu zuen, pixka bat deseroso, elkarrekiko oraino arrotz zirelako.

Beren ezpainetako arrosak irekitzean, beren hortz zuriak erakutsi zituzten. Lepoa lepoaren ondoan, elkarrekin nahasten zituzten beren negarrak, eta haien hiazintzoak, egiazko errubiak izanik, anbarren kolorera lerratzen ziren. Zaldunak Avtandilen eskua hartu zuen, hura bere eskuen artean hertsatzeko, eta zirrarez intzirika egon ziren luzaro. Asmatek hitz miresgarriekin kontsolatu nahi zituen:


—Ez ilundu Eguzkia, otoi, zuen tristuraren itzalaz!

Tarielen arrosaren gainera jela etorri zen, hura izoztu gabe ordea. Zaldunari honela esan zion:

—Presaz nago. Erakutsiezadazu zeure sekretua. Nor zara? Nondik zatoz? Non duzu etxea? Nitaz Herioa bera ahantzi da, abandonatu bainau.

Avtandilek zaldunari hitz atseginekin erantzun zion:

Digitized by Google



—O lehoi eta heroi paregabe, Taniel zaldun hori, hain prestu zarena! Ni arabiarra nauzu, gortelaria, eta Arabian ditut neure jauregiak. Maitasunak erretzen nau, eta beti dizekan suak kiskaldurik nago. Ene nagusiaren alaba maite dut, orain erregetza daukana. Zuk ez nauzu ezagutzen, egia, baina aspaldian ikusi ninduzun. Ez al zara gogoratzen behin borroka batean gure hamabi jopu hil zenituela?

—Dei egin genizun arren, zuk, ordea, guregana etorri nahi ez. Gure erregea hagitz sumindurik zegoen eta zure atzetik abiatu zen eta, orduan, zu *kadji*⁹ baten antzera aienatu zinen. Zure bila joateko ere agindu zuen, baina inork ez zintuen aurkitu. Ondoren, Eguzkia bainoagoak zure bila neu bidali ninduen, eta zer ez nuke nik hartatik eginen? Hiru urteotan negarrez aritu naiz. Ez al zaitu harritzen, haren irribarrerik gabe, ni oraindik bizirik egoteak?

Oraintsu arte ez dut inor atzeman zure berri jakin duenik, harik eta hiru anaiokin topo egin arte, haietako bat zeure zigorraren pean erdi hilik zegoela. Horiei esker izan dut, azkenean, zeure berri.

Taniel, orduan, gertakari hartaz oroitu zen.

—Egia diozu. Gogoan dut aspaldiko kontu hori. Ikusi zintudan, bai, zeure jaunaren ondoan ehizan; ni aldiz, negarrez ari nintzen hiltzen nauenarengatik. Zer nahi zenuten enegandik? Zuek pozik eta jostari ari zinteten, ni penetan itorik nengoen artean. Jopuei ni atxilotzeko agindu zenieten, baina gero haien gorpuak altxatu behar izan zenituzten.

—Ondoren zure nagusia ikusi nuen, ene bila zetorrela eta, erregea izanik, ez nion kalterik egin nahi izan. Horregatik, hitzik esateke, zuen begiradetatik ezkutatu nintzen neure zaldi hegalaria honen gainean. Begi hertsirekian alde egin nuen handik eta harrezkero ez da inor ausartu ni erasotzera, turkoak izan ezik.

–Gaur zu zatoz, borondate onean, eta pozten nau, zu, altzifrea bezain liraina, Eguzkiak argituriko aurpegi-duna, ikusteak. Heroiaren adorea daukazu, baina bistan da asko sufritu duzula.

Avtandilek esan zion:

–Nola laudatzen nauzu, nork eta zuk, jakintsuen laudorioak merezi dituzun horrek? Zer merezimendu dut nik, bada? Zeru goietan distira egiten duen Eguzki bakarra dirudizu, eta negar mingotsen uholdeak ere ez zintuzke aldatuko. Gaur bihotza iluntzen didanaren zerbitzutik zure zerbitzura iragaten naiz. Esmaltea baino goa baita errubia, hura ederrik asko izan arren. Eta gaurtik hil arteraino zurekin egon besterik ez dut nahi.

Tarielek erantzun zion:

–Ez dakusat nola merezi dezakedan nik horrelako atxikimendurik, baina egia da maitatzailea beti urrikaldu ohi dela beste maitatzaileez. Nola eskertuko dizut, bada, nigatik zeure maitea bera uztea? Zure erregina zerbitzatzeko, ene bila ahalegindu zara eta Jainkoak ni aurkitzea nahi izan du, zaldun zintzoa zarelako. Nola kontatuko dizkizut, ordea, erretzen nauten arrazoiak? Horiek esanez gero, su biziak ketu egingen nau eta.

–Zoritxarreko egun hartatik, ene ondoan ibili zara, Asmat. Ez al dakizu ene zauriak etengabe hildurazten nauela, sendaezinik? Ai, zertara etorri zait orain zaldun hau bere malkoekin ni erretzera? Halere, bere ondoan anaia edo arreba hartzen duen gizonak ez du herioaren edo zorigaitzaren beldur izan behar, haiengandik badator ere. Ongi da, adi ezazu bada, neure historia kontatuko dizut eta.

Eta aurrera segitu baino lehen, andreari agindu zion:

–Asmat, ekarzu ura eta busti ene bular-bizkarrak, horrela ene erretasuna ezititzeko.

Eta gorputz erdiz biluztu zen, freskatzeko. Bitartean ahopetik honela zioen:

—O ene maitea, nik betiko galdua! O zu, ene bizia, ene esperantza, ene bihotza eta ametsa! Ez dakit zeinek ebaki zaituen, Edenean landaturiko zuhaitz ederrori! O, ero bihotz hau, ehun aldiz kiskalia, nolatan ez zara honezkero erraustua?

Tarielek Avtandili bere istorioa kontatzen dio

—**E**ntzun, bada, adi-adi, kontatuko dizudana. Jarraiki ene mihiak aipatzeko dituen hitz eta ekintzei, baina ez egon inolako zorionaren esperoan.

—Gauza jakina denez, Indietan zazpi erresuma dira. Parsadan sei erresumaren erregea zen, eskuzabala, aberats eta gerlaria, lehoi gorputzekoa, Eguzki aurpegi-koa, garaitzaile eta borrokari trebea, eta gainerako erregeen gainean gobernatzen zuen. Ene aita, Seridan izenekoa, zazpigarren erresumaren jabea zen, etsai guztien meneratzailea, eta inor ez zitzaion ausartzen erasotzera. Bizimodu atsegina zeraman eta, jolasteko, ehizan jarduten zuen.

—Egun batez, ene aitak Parsadanengana joatea erabaki zuen, bere erresuma haren babespean ezartzeko. Parsadanek pozarren hartu zuen eta honela erantzun zion: «Zatoz bada enegana eta aitak semearen etorrera ospatzen duenez eginen dizut nik ohore.» Eta erresuma eder bat eskaini zion oparizat, ene aita *amirbar*¹⁰ izendatuz, Indian zuen artean emir nagusiaren mailakoa dena.

–Errege hark ene aita berdinkidetzat jotzen zuen, eta elkarrekin ziharduten bai gerran eta bai ehizaldietan ere. Erreginak, Eguzkiaren irudikoak, ez zuen haurrik, eta asko sufritzen zuten hargatik, haien erresumako orok bezala. Orduan ni semetzat hartu eta hezi ninduten, eta herrialde eta armada guztiaren nagusi izendatu ere bai. Jakintsu handiek ene errege zereginak irakasten zizkidaten eta haziz joan nintzen, Ekiaren irudiko, lehoia bezain sendo. Bost urte nituenean, ordea, erreginak ume bat izan zuen. Mundura alaba bat ekarri zuen.

Eta hitzok esatean, ia konortea galdu zuen, eta Asmatek bularrera ura jaurti behar izan zion.

–Erretzen nauena orduan ere argizagi bat bezalakoxea zen. Ene mihiak ezin asma dezake hark merezi duen gorespena. Parsadanek gertakari pozgarri hori alaitasunez ospatu zuen. Toki guztietako erregeak hara bildu ziren, balio handiko opari ugariarekin.

–Errege-erreginek ongi hezten eta laztantzen gintuzten biok. Entzun bada, oraintxe esanen baitizut bihotza eta arima ostu dizkidanaren izena.

Eta hau esanda, zaldunak berriz ere galdu zuen konortea. Avtandilek ere, hark bezala, negar egin zuen, eta haren bihotza errautsez estali zen. Asmatek Tariel bizkorrazazi zuen, ura bularreratuz. Eta zaldunak esan zuen:

–Adi ezazu ongi, gaur ene heriotzako eguna baita, egiazki.

–Nestan-Daredjan deitzen da, eta zazpi urte zituenean ere jadanik neskaxa gozo eta zuhurra zen erabat. Ilargiaren irudikoa eta Eguzkia baino ederragoa. Bihotzak, diamantea baino gogorragoa izanik ere, nola paira dezake hura gabe izatea?

–Neskatila hazi zenerako, nik gerran jarduten nuen. Orduan erregeak neure aitarengana bidali ninduen.

1870-1871
1870-1871



Han pilotan aritzen nintzen eta lehoiak katuak balira bezala hil ohi nituen.

–Bitartean, erregeak bere alabarentzat dorre bat eraikiarazi zuen harri bitxi preziatuenekin. Haren palankina jaspe eta errubizkoa zen, eta inguruan lorategi lurrintsua zeukan. Berarekin Davar bizi zen, erregearen arreba, alarguna, Kadjetian¹¹ ezkondua, monarkaren aginduz alaba zuhurtzian hezten zuena. Honekin batera Asmat zegoen eta beste neska zerbitzari bi. Urrezko errezelak zeuzkan dorre hartan beste inork ezin zezaketen printzesa ikus, arrosa eta kristal garbizkoa.

–Hamabost urte nituelarik, ene aita hil zen, patuak hala nahi izan zuen eta. Orduantxe amaitu zen Parsadanen poza ere. Adiskideak oro tristatu eta etsaiak, aldiz, alegeratu ziren. Ni neure gelan sartu nintzen, bakarrik, urte osoan doluan, eta ezerk ezin lasai nintzakeen. Gortelariak baina, enegana ailegatu ziren, erregearen manua ekartzera, honela zioena: «Tariel, ene semea, hator, ez ezak jantz luzaroago soineko beltzik. Gu hi baino tristeagorik gaudek geure parekoaren galeragatik.» Eta erregeak ehun altxor eman zizkidan, eta neure aitaren agintea bera ere bai. «Hik ene amirbar izan behar duk eta, beraz, heure betebeharren ardura ukan.»

–Gortelariak inguratu eta tronora eraman ninduten. Nik, aitaren oroitzapenaren tristuraz, ez nien obeditu nahi, zeregin hura astunegia iruditzen zitzaidalako, baina hartara beharturik nengoen.



Tarielek bere maitasuna nola sortu zen kontatzen du

Zaldunak, negar egin ondoren, bere istorioarekin segitu zuen:

–Egun batez, erregearekin ehizatik nentorrela, eskua hartu eta honela esan zidan: «Goazen ene alaba zertan dabilen ikustera.» Eta bere alabarentzat galeper batzuk eramateko agindu zidan. Hara aurkeztu ginen, bada, eta hantxe jaio zen ene su izekia. Egun horretatik patuaren zerga ordaindu behar izan dut, eta diamantezko lantzak ez bestek zula diezadake bihotza.

–Lorategi hura nik ordura arte ikusiriko atsedenlekuak baino ederragoa zen. Txoriek sirenen kantuekin dardarazten zuten airea. Bainatzeko urtegi ugari ziren han, arrosa uraz beteak, eta belusezko errezel preziatu batek, urrez brodatuak, estaltzen zuen atea. Erregeak Ekiaren parekoa ez ziola inori erakutsi nahi jakinda, hark errezela zeharkatu zuenean, ni atzean gelditu nintzen. Horrela ez nekusan deus, hizketaren murmurioa besterik. Asmat bidali zuen niregana, galeperren bila.

–Asmatek gortina erdi ireki zuenean, ni ate aurrean nengoen, eta orduantxe ikusi nuen neskaxa, eta bat-batean, lantza batek zulatu zidan bihotza. Harrezkero su latzek kiskaltzen naute. Ai ene zoritxarra! Halako argitasunik ez da inon kausitzen, Eguzkia gaudituz ez bada.

Eta berriz ere konortea galdu zuen, harik eta Asmatek, ura ekarriz, freskatu zuen arte. Luzaro mintzatu ezinik egon zen, bere gogoetan erabat murgildurik. Ondoren esan zuen:

–Galeperrak hartu zizkidanean, konorterik gabe gelditu nintzen, larriturik. Handik ohe handitsu batera eramán ninduten, eta errege-erreginak ene osasunaz

kezkatu ibili ziren, negarrez. Erregeak hitzen bat esateko erregutzen zidan, baina nik horretarako ere ez nuen adorerik. Erresumako jakintsu, mediku, apaiz eta aditu guztiek inguratu ninduten, eskuartean Korana, liburua santua zerabiltela.

–«Zein da horren gaitza? –zioten. Gaixotasun horrek ez du erremediorik, malenkoniak jorik dagoelako.» Ohean hiru egunez etzan nintzen, ez bizirik ez hilik nengoela. Geroago, Jainkoak lagundu eta suspertzen hasi nintzen eta Sortzaileari eskerrak eman nizkion. Altxatu nintzenean, berri pozgarri hori eraman zioten berehala erregeari. Eta zaldiz ibiltzeko gogoia nuela jakinda, erregea bera etorri zen niri laguntzera, enekin landak, zelaiak eta ibai bazterrak ikusteko.

–Etxera itzulirik, negarrak azafrak bilakatu zuen ene aurpegiaren lehenagoko kristal garbia, eta hamar mila ganibetek ebakitzen zidaten, zeinek baino zeinek gogorrago, bihotza. Bat-batean, atezainak Asmaten zerbitzaria etorria zela jakinarazi zidan. Sar zedila agindu nion eta maitasunezko txartela eskuratu zidan. Hark ni maitatzeak harriturik utzi ninduan, bai eta horrela adierazteak ere. Haren konfiantza ez galtzeagatik, kortesiazko hitzekin erantzun nion.

–Baina egunak aurrera joan ahala ene barruko sua ez zen iraungitzen. Medikuek ezin zezaketen ezer egin eta bihotza iluntasunez bete zitzaidan. Erregeak odola atera ziezadatela agindu zuen, ea horrela sendatzen ote nintzen, eta ene egiazko arrazoiak ezkutatzearren, medikuei hala egiten utzi nien.

–Besoa bendaturik oraindik, erregeak ni osasunez hobeki nengoela ospatzeko, oturuntza bat antolatu zuen, harpa jotzaile eta bestelako soinulariekin. Gonbidatuen artean harribitxi baliotsu eta miresgarriak banatu zituen, oparizat. Orduan morroi batek niregana iritsi eta emakume bat iritsi zela esan zidan. «Jakintsuen goraiipamenak

merezi ditu, eta aurpegia zapi batez estalia dakar.» Eta sar zedila manatu nuen.

—Asmatekin bakarrik gelditu nintzenean honela esan zidan: «Zuk uste duzu nire zureganako maitasunaz mintzatzeko etorri naizela, baina oker zaude. Bidaltzen nauena herabetia da eta gutun hau eman dit zuretzat.»

Nestan-Daredjanek bere maiteari eginiko lehen gutuna

—**I**kusi nuen, beraz, bihotza erretzen didanaren eskutitza, eta Eguzki izpi horrek honela zioetan:

O lehoi, gorde ezazu zeure zauria. Zeurea nauzu; hortaz, ez zaitetz hil tristuraz. Asmatek esanen dizu nik manatu diodan guttia. Maitasuna hiltzea dela iruditzen al zaizu? Ez ote zenuke hobe izanen zeure maiteari balentria handiak erakustea? Kataiko⁵ herria aldamenean dugu, eta ez genuke luzaroago pairatu behar haren harrokeria gaiztoa.

Aurrekoan burua galdurik ikusi zintudan neure palankinetik eta berehala konturatu nintzen zer gertatzen zitzaizun. Egia esanen dizut: egiezu gerra kataitarrei. Hori negar egitea baino hobea izanen duzu, beti arrosa bustitzen jardun gabe. Zer egin dezake Eguzkiak besterik, gaua egunsenti bihurtzea ez bada?

—Asmat askatasunez mintzo zitzaidan, beldurrik gabe eta bihotza taupadaka zebilkidan. Ene aurpegia berriz ere kristal bilakatu zen eta masailak errubiekin ziren jantzi.

Tarielek bere maiteari eginiko lehen gutuna

—**N**eure aldetik honela izkiriatu nion:

O Ilargia, ezein Eguzkik ezin gaindi zaitzake. Jainkoak ez diezadala utz egiten zure mailako ez den gauzarik. Ametsetan bezala nago eta ez dut uste bizi naizenik ere.

—Eta Asmati: Esaion ezin dudala harentzat bat ere ihardespenik aurkitu. Esaion: «Enetzat jaikitzen zara, Ekia, argitasunez betea. Berriz ere bizia eman didazu, eta honezkero ez naiz berriro larrituko. Zeure esanetara naukazu.»

—Asmatek esan zidan: «Hark honela agindu du: jendeak ez duela jakin behar kontu honen berri, eta zuk, Tariel, dorrera ni ikustera bazentoz bezala hurbildu behar duzula. Eta dena sekretupean gorde nezala.» Haren zuhurtziak harriturik utzi ninduen.

—Asmati urrezko kopa bat eman nahi izan nion, harribitxiz betea. Baina hark, oroigarritzat, eraztun xume bat besterik ez zidan onartu nahi izan. Neska joan zenean, oturuntzara itzuli nintzen, adiskideengana, alaitasunez asea, eta haien artean anitz opari banatu nituen, pozarren.

Tarielek kataitarrei mezulari batekin gutun bat igortzen die

Aldean gutuna zeramala, postari bat irten zen Katakairantz. Ene izkribuan honela nioen:

Indiako erregea boteretsua da, Jainkoari esker. Haren menekoak ohorez tratatuak eta aseak izanen dira, baina obeditzen ez diona damutuko da. Anaia, jaun gurea, ez guri mingostasunik eman. Manu hau hel daki-zunean, zatoz hona lehenbailehen. Ez bazatoz, geu joanen gatzaizkizu, ezkutatu gabe, eta beraz, hobe dukezu gu ikustera etortzea odola alferrik isuraraztea baino.

–Mezularia bidali ondoren, alaitasuna berriz jabetu zen nitaz. Etxean jaiak antolatu nituen eta suak ez ninduen jadanik erretzen. Munduak, bertoko bizi iragan-korrak, ene nahia entzuten zuen, baina orain eroturik nago eta basapitzia nagusiak ere uxatzen ditut.

Nestaneke Tarieli beregana etortzeko deia egiten dio

–**E**gun batez, jauregitik itzultzean, neure logelera sartu nintzen, baina loak ez zuen ene begietara etorri nahi. Urduri nengoen, haren gutunak esperantza pizten zidan arren. Halako batean, morroi bat iritsi zitzaidan, Asmaten esklaboa etorria zela esateko. Lehenbailehen hura nigana ekartzeko esan zion eta berak bihotza zulatzen didanak ikusi nahi ninduela argitu zidan.

–Behingoan hara joan nintzen eta, lorategira sartu nintzenean, ez nuen inor aurkitu. Handik laster Asmat azaldu zen, irribarretsu, eta esan zidan: «Zure bihotzeko arantza atera dut. Zatoz eta sar zaitetz zeure arrosa, ezin zimel daitekeena, mirestera.» Eta neskatak errezel lodia alderatu zidan. Han, Badakhxan-go errubi ederrenez¹³

apainduriko tronoan eseririk, Eguzki distiratsu hura agertu zen.

–Niri so zegoen, bere begi zoragarriekin, tintazko aintzira sakon gisa. Ni zutik nengoen, eta goxoki, adis-kide hurbilari bezala, begiratzen zidan arren, halere ez zidan hitz bat bera ere esan. Asmati dei egin zion, eta beronek, ondoren, honela agindu zidan: «Zoaz orain; ezin dizu hitzik egin.» Eta errezelpetik iraganez, atzera egin nuen Asmatekin, suak errerik.

–Ene histasuna ikusita, Asmatek honela esan zidan: «Ez duzu honegatik etsi behar. Itxi iezaiozu penari leihoa eta zabal iezaiozu atea pozari. Zurekin mintzatzeko lotsa da, bere harrotasunak mutu utzi du eta.» Eta nik erantzun: «Espero dut, ene arreba, zugandik bihotzerako gantzua lortzea. Ez erauzi nire arima gehiago eta itzal ezazu zeure albisteeekin su bero hau. Zin egidazu haren gutunak ekarri eta beraren berri pozgarriak laster kontatuko dizkidazula.»

–Zaldiz urrundu nintzen, malko uholdeak begietan. Neure gelara sartu eta, erorik, lorik ezin egin. Anila baino urdinago nengoen, lehen kristal eta errubi nintzena. Eguna baino gaua nuen maiteago eta ez nuen goiztiria ikusi ere egin nahi.

Kataiko erregeak Tarieli eginiko erantzuna

–**K**ataira igorri nuen mezularia itzuli zen. Hantusteko hitz harroez ihardesten zidan hango erregeak:

Ez gaituk koldarrak, jarkitzeko prest gaudek. Nor da, bada, zuen erregea? Uste al

du berak gure nagusia dela ala? Nik, Ramazek, izkiriaturen diat, Tariel ausart horri, gutun hau. Nor haiz hi niri, hainbeste jenderen gainean agintea dudan honi, zuengana joan nadin esateko? Ez diat hiregandik beste izkriburik nahi.

–Neure soldadu osteak bildu eta armada osoa prestatu nuen. Zeruko izarrak bezain ugariak ziren ene deira iritsi ziren indiarak. Toki guztietatik zetozen, gertutik eta urrundik, beren zereginak utzirik. Haien adorea miretsi nuen. Azkarrak, ausartak eta kementsuak ziren, zaldi lasterrez eta Korezmiako arma bikainez hornituak¹².

–Gure erregearen bandera gorri beltza altxatu ondoren, kanpainara ateratzeko agindu nien. Halere, zoritxarrezko sentitzen nintzen: nola ni borrokara jalgiko, aurretik neure Eguzkia berrikusi gabe?

Tariel berriz ere Nestanengana doa

–*H*alako batean, zerbitzari bat niganatu zen Asmaten mezuarekin: «Zatoz, zure Eguzkiak deitzen zaitu.» Luza gabe joan nintzen. Arratsean iritsi nintzen haren lorategira. Hantxe zen Asmat eta lehengo tokira eraman ninduen. Nestanek honela agurtu ninduen, irribarez: «Zatoz, o lehoi! Ilargia zain duzu eta.»

–Eta etxe zoragarri hartatik jarraiki nintzaion. Han gaueko erregina ikusi nuen, bere errainuekin inguruak oro argituz. Bururdien artean eseririk, soineko berdea zeraman, eta Ekiaren izpiak baino ederrago iruditzen zitzaidan. Pozak lehenagoko iluntasunak aienatzen

zituen. Ordea, ez zeukan aurpegia niri begira, eta soaldi bat besterik ez zidan egin.

–Agindu zuen: «Asmat, esaiozu amirbarrari eser dadila.» Eta bururdi bat eskaini zidan. «Nirekin hitz egin gabe joan nahi ote zenuen? Nire errainurik gabe hilko zinateke, Eguzkirik ez duen lorea bezala. Badakit zure lore artetik negarrak limurtzen direla, baina gizon baten aitzinean, apal eta isil agertu beharra daukat. Asmaten bidez, baina, egia adierazi nahi izan dizut. Honezkero, elkar ezagutzen dugunez, jakizu zeurea nauzula. Zinez diotsut eta neure hitza jan baneza, hauts bihur nazala Jainkoak eta uka diezazkidala bere bederatzi zeruak. Egiezu, bai, gerra kataitarrei; zoaz, bada, haien mugetara eta ailetsa Jainkoak handik garaile itzul zaitezten, bihotz alaiarekin. Baina bitartean, zer egingen dut nik zu gabe? Emadazu, hortaz, zeure bihotz osoa, ordainez, enea harturik. Zure izpiek bihotza asebate didate, eta ene bekoki iluna argitu. Zurea izanen naiz lurra aurpegia estal diezadan arte.»

–Eta, Korana ekarrita, neskak haren gainean ego-tzi zuen bere zina, niganako maitasuna aitortuz. Nik orduan: «Zutaz landa, beste inork bihotza poztuko balit, hil nazala Jainkoak.»

–Hantxe egon ginen apur batez, elkarrekin mintzatuz, batak besteari hitz gozoak esanez, fruitu atseginak jaten genituen bitartean. Baina joan beharra nuen eta, hitsik, negarra zeridala, jaiki eta handik alde egin nuen. Halere, haren errainuen edertasunak bere argia nigana-tzen zuen oraindik. Zeinen latza zen, egiaz, kristal eta errubi hartatik urrundu beharra! Baina mundua eraberri-tua zen jada, eta bihotza alaitasunean ari zitzaidan igerika. Orain, ordea, harengandik urrun, harriturik dakusat neure bihotz gogortua, harkaitza bezala.

Tariel Kataira abiatzen da gerra egitera

—**B**iharamun goizean, zaldi zelara jauzi egin eta adarra jo zezatela agindu nuen, eta guztiok adore handiz Katairantz partitu ginen. Gure oinek ordura arte inork zapaldu gabeko bideak ohondikatzen zituzten.

—Luzaro ibili ondoren, Ramaz-en, kataitarren erregearen mezulariak heldu zitzaizkigun, hitz leunekin gu baketzera: «Zuen Indiako ahuntzek gure otsoak jan ditzakete.» Eta opari eder asko ekarri zizkigun, Ramazen bitxi miregarriak. Eta esan ziguten: «Ramaz erregeak badaki ez dela zure mailakoa eta eskatzen dizu, otoi, ez gaitzazula suntsi. Zin-zinez zure aurrean makurtzen gara eta, borrokarik gabe, geure ondasunak, emazteak eta haurrak zure esku uzten ditugu. Barka iezaguzu geure bekatua, geuk jadanik damu dugu eta. Jainkoarren, armada guregana sartzen ez baduzu, gure herria birrindu gabe utziz, gure hiriak eta gotorlekuak errendatu eta zuen zaldun talde txiki bati emanen dizkiegu.»

Neure visir guztiak bildu eta eztabaida egin genuen elkarrekin. Haien ustez, urte askotako eskarmentuaz, kataitarrez ez fidatzeko kontseilatu zidaten, traido-reak baitziren, eta hil nintzaketela, kalte handia eginez. Heroi gutxi batzuekin bidean aurrera joateko aholkua eman zidaten, ondotik baina, gainerako gerlariak eramanez ezkutuan, haiekin mezularien bidez harremana izanik. «Horrela, etsaiek beren hitza betetzen badute, Jainkoa lekuko, ez dute zeren beldur izan behar. Baina bihurritu eta asaldatuz gero, amilaraz ezazu haien gainean zeure haserre osoa.»

—Visirren kontseiluarekin pozturik, mezu hau bidali nion: «O errege Ramaz, bat nator zure asmoarekin, bizitzeari hiltzeari baino hobeki deritzot eta. Armada

hemen utziko dut eta neure hirurehun zaldun adoretsue-
nekin zuregana joanen naiz.» Eta soldaduei esan nien
nire atzetik isilik etortzeko, eta haien beharra izanez
gero deituko nituela.

–Hiru egunez hala egin nuen, harik eta khanaren
beste mezulari bat etortzen ikusi arte. Oraingoan opari-
ztat soineko zoragarriak zekarzkiguten eta khanak honela
ziostan: «Nahi dut, bai, niregana etor zaitezten, eta biok
elkar ikustean are dohain preziatuagoak ikusiko dituzu.
Diotsudana egia hutsa da, zu ikusteko irrikaz nago eta.»

–Erantzun nion: «Nahi duzuna eginen dut, ala
Jainko! Adiskide gisa elkartuko gara, aita eta semea be-
zala.» Eta hango oihan baten ondoan kanpatu ginen.
Hara beste mezulari batzuk etorri zitzaizkigun, present
gisa, zaldi ezin ederrago batzuk ekarriz. Mezulariei osta-
tu eman nien, haientzat denda batzuk jartzeko aginduz.

–Bistan da ongi eginak beti saria dakarrela alde-
an. Mezulari haietako bat, ezkutuki, enegana etorri eta
honela esan zidan: «Jauna, zuregana obligaturik nago.
Zure aitak ere, haurtzaroan, nolabait hezi ninduen eta
oraingoan zu ezin utz zaitzaket abandonuan, ez bainuke
nahi zure gorputz liraina eta zure aurpegiko arrosa hori
hilik gelditzea. Entzun bada kontatuko dizudana: Jende
hauek saldu nahi zaituzte. Hemendik hogeita hamar
militara ehun mila gizon ezkutatu dituzte zuri erasotzeko
prest. Har itzazu, hortaz, neurriak, guztiok gal ez zaitez-
ten. Erregea zurekin hitz egitera etorriko da, baina bitar-
tean haren tropek inguratuko zaituztete, eta bakarraren
kontra mila gizon direnean, argi da hortik garaile zein
aterako den.»

–Mezulariari eskerrak eman nizkion, behar beza-
la: «Hiltzen ez banaiz, jakinen diat, bai, hik merezi duan
bezala saritzen. Orain, besteek susmo txarrik izan ez
dezaten, hoa heure lagunengana. Ahanzten bahaut,
patuak jo nazala errotik!» Eta ez nion beste inori sekretu

hau kontatu, izan behar duena izanen baita, emaniko aholkua gorabehera. Halere mezulari bat igorri nien neure tropei, esanez: «Zatozte azkar, mendi eta zelaietan zehar.»

–Hurrengo egunean mezulariei esan nien: «Zoazte eta esaiozue Ramazi banoala, eta laster berarekin izanen naizela.» Eta egun erdiz bidaiatu ondoren, tontor baten gainetik zelaietan hauts handiak ikusi nituen. Ramaz erregea hortxe ari zen, bere sarea hedatzen. Eta berehala neure soldaduei buruan nerabilen asmoa azaldu nien:

–«Anaiok eta gerlariok, beheko gizon horiek saldu nahi gaituzte, baina gure besoak ez dira horregatik ahulduko. Bere erregearen alde borrokan hiltzen denak segur dauzka zeruetako ateak. Eraso degiegun bada kataitarrei. Eta armadurak eta kotak jantzita, borrokarako lerrokaturik aitzineratu ginen, gure etsaiak ezpata kolpez zatikatzeko asmoz.»

–Haiengana hurbildu eta gure armadurak ikustean, kataitarrak beldurtu ziren eta haien erregeak mezularia bidali zigun, hau esateko: «Ez dugu gogoko zuen portaera hori, guregana armaturik zatozte eta.» Nik orduan ihardetsi nion: «Esaiozu zeure jaunari badakigula zer prestatzen diharduen, baina bere azpikeriarekin ez duela deus onik lortuko. Mana dezala beraz, usadioaren arabera, bere tropak guregana etortzeko; eta eskuan ezpata dudala, gertu nago, bera hiltzeko.»

–Mezularia joan eta ez zen gehiago itzuli. Orduan suak piztu zituzten, seinaleak egiteko eta zelatan ezkutaturik zeudenak gure aurka etorri ziren lerro ugaritan. Neure ezkutariari lantza eskatu eta, kaskoa jantzi ondoren, borrokara abiatu nintzen neure gerlari guztiekin. Haiengana hurbiltzen nintzela ikustean «eroturik dago» esan zuten. Talderik ugarienera joanik, kolpeka zaldun bat eraitsi nuen, eta haren arimak ez zuen Eguzkiaren argia berriz ikusi. Lantza hautsi zitzaidan, baina eskerrak ezpata banuela oraino.

—Aztorea eperraren gainera bezala amildu nintzen haiengana, eta gizon bat hurrengoaren gainera jaurtitzen nuen, haien gorpuekin mendi bat eginez. Nik joak harri koskorak bezala ari ziren biraka. Lehenbiziko bi osteak erabat suntsitu nituen. Inguratu ninduten eta orduan borroka latza izan zen. Jotzen nituenak beren zaldietatik zintzilik gelditzen ziren.

—Baina zer gertatzen zen jakinda, ene osteak, niganantz egunez eta gauzez hurbilduta, ez mendian ez lautadan kanpatu gabe, arratsaldean borroka zelaian agertu ziren, tronpetak eta danborrak jotzen. Gure etsaiek, haiek ikustean, ikaraz bete eta ihesari eman zioten. Gu haien atzetik joan eta haietako asko erho genituen. Ramaz txunditurik gelditu zen. Gure soldaduek iheslari guztiak preso hartu zituzten.

—Zalditik jaitsi nintzen. Eskuan zauriturik nengoen. Tropak enegana zetozen, nola nengoen ikusteko, zorionak emanaz. Nik ere eskerrak eman nizkien lorik gabeko gau luzeengatik. Soldaduak leku guztietara bidali nituen, harrapakinak bil zituzten. Oso zamaturik bihurtu ziren guztiak, beren arrakastaz harroturik. Gorriturik utzi nituen zelaiak ene odola nahi zutenen odolaz eta borrokarik gabe hirietako ateak irekiarazi. Presoak oro, zaurigabeak ere, aieneka ari ziren.

—Orduan Ramaz erregeari honela esan nion: «Horra zertan den zure saldukeria. Orain gatibu etorriko zara, barka eske. Zeure gotorlekuak gure eskuetan utziko dituzu, bestela ezingo naiz zurekin bihozbera izan.» Hark erantzun zidan: «Hemendik aurrera alde batera uzten dut neure botere guztia. Utz iezadazu neure jaunetako bat, zerbitzari, eta horren bidez gotorlekuetako buruzagiei abisu emanen diet toki guztiok zure esku jar ditzaten.»

—Eskatzen zidana onetsi eta neure zaldunei haren atzetik joateko agindu nien. Gotorleku guztietako giltzak

ekarri zizkidatenean, Katai bisitatzeko gogoia piztu zitzaidan, bertako aberastasun ugariak ikusteko. Hango bizilagunak lasaitu nituen, esanez: «Ez beldurrik izan, Eguzkia nauzue, eta zuen ondotik iraganen naiz, zuek, baina, erre gabe.» Altxor guztiak ikertu nituen, hasieran multzoka, xeheki gero eta luze joko lidake bertako bitxi guztiak orain aipatu behar banitu.

—Ehunak eta soinekoak zoragarriak ziren, baina bazen bat, erabat berezia, inork nola egina zen ez zekiena. Guztiak hari «Jainkoaren seinalea» deitzen zioten. Hura ni argitzen nauenarentzat gorde nuen, oparizat. Aurkitu nituen gauzarik hoberenak erregearentzat bereizi nituen: mila mando eta mila gamelu, mukurruraino beterik, igorri nizekion, gure jaunak gure hain berri ona jakin zezan.

Tarielek Indietako erregeari eginiko gutuna eta bere garaipenezko itzulera

—**E**rregeari honela izkiriatu nion:

O errege, zorionekoa zu. Kataitarrek saldu nahi izan naute, baina gaizki irten zaie jukutria. Orain, harrapakinak harturik, zuregana nator, haien erregea gatibu harturik. Katai osoan ibili eta haien ondasunez jabetu naiz. Gamelu nahikorik ezaz idiak ere kargatu behar izan ditut. Loria eta ohorea lortu dut, nahi nuen bezala.

—Ene aitatzakoa bila etorri zitzaidan eta ez neki-ke esaten noraino goraiatu ninduen. Ene beso zaurituari benda zaharra kendu eta zapi brodatu ederraz inguratu

zidan. Landetan denda asko jarriak ziren eta han erregeak, ene omenez, jaialdi handia antolatu zuen. Nolako maitasunez begiratzen zidan!

–Biharamunean, hirira sarturik erregeak honela agindu zigun: «Bil daitezela gerlariak, eta erakutsiezazkidazu orain Kataiko gatibuak.» Gure erregearen aitzinera Ramaz erregea eraman nuen. Erregeak gozotasunez begiratu zion, haur bati bezala, eta ongi tratatu zuen. Harekin luzaro jardun zuen hizketan, behar bezala. Egunsentian galde egin zidan: «Etsaia barkatuko ote zenuke?»

–Hau esatera ausartu nintzaion: «Jainkoak berak bekatoriak barkatzen dituenetz gero, zu ere urrikaltsu izan zaitezke babesik gabeko gizagaixo horrekin.» Orduan Ramazi esan zion: «Ene barkamena duzu, baina aurre-rantzean ez etorri berriz enegana lotsaizunez beterik.» Zerga ezarri zion, ehun mila drakan¹⁴ eta zetazko mila soineko, brokatuak eta satinak kontatu gabe.

–Soineko ederrez jantzi zuen, eta haren gortelariak ere bai, eta bihotzez barkaturik, guztiak atzera bidali zituen beren herrira, mendekurik gabe. Ramazek, esker onez, apalik agurtu zuen: «Jainkoak damuaraz diezadala oraingo saldukeria hau, eta berriz tradituko bazintut, zatozke berehala ni hiltzera!» Eta joan egin zen, aldean bere jende eta soldaduak eramanez.

–Hurrengo egunean, erregeak, zerbitzari baten bitartez berarekin ehizatzeraz gonbidatu ninduen, azken hiru hilabeteetan nirekin egon gabea zen eta. Jauregira joan eta berehala erbi txakurrek inguratu ninduten. Patioa belatzez beterik zegoen eta erregea irteteko prest.

–Erregeak, sekretuki, bere emazteari honela esana zion: «Gure alabak, erregina gisa, gobernatu beharko duenez gero, garaia da bera jendaurrean erakuts dezagun. Ehizalditik itzultzean jarraraz ezazu mahaian, zeure ondoan.» Biok goiz osoan jo eta ke aritu ginen ehizan

mendi handi baten oinean. Hirira itzuli ginenean, Kataiko hirian harturiko durbantea nekarren buruan eta ikusten ninduten guztiak mira eginik gelditzen ziren, aho zabalik. Erregea zalditik jaitsi zen eta bazkal aretora eramán ninduen.

—Han, Nestanen aurpegi ederraren aitzinean, dardarka ari nintzen. Eguzki eder hori laranja koloreko soineko bikainaz zegoen jantzirik eta haren arrosa erdi irekien artean perla bikiek ematen zuten argi. Erreginak, enegana ailegatu eta seme baten antzera besarkatu ninduen, esanez: «Orain gerra eta haren miseria guztiak ahantzi behar dituzu.»

—Beren aurrean eserarazi ninduten, eta horrek biziki poztu ninduen, aitzinean bainuen bihotza hiltzen zidan Ekia. Ezkutuki elkarri begiratzen genion, baina hitzik esan gabe. Maiz, begiak desbideratu behar nituen eta orduan bizitza gorrotagarria iruditzen zitzaidan. Edonola ere, jaia ederki zihoan, alaitasunez betea, turkesaz eta errubiz xartaturiko katilu eta ontzietan jan eta edanez.

—Ni pozarren nengoen eta gure begiek elkar aurkitzen zutenean, gar bizitan erretzen nintzen, baina aha-lerinak egiten nituen besteei neure sekretua ezkututzen. Soinulariak isildu ziren, erregeak hala agindurik, eta esan zidan: «Tariel, ene semea, nola adieraziko dizugu geure poztasuna? Arrazoia dute ikusten zaituztenek, zutaz harro sentitzeko. Ohituren arabera, garaitletzat jantzi beharko zintuzket, baina duzun soineko hori txit ongi daukazu. Beraz, har itzazu gugandik mila altxor, zerorrek nahiago dituzunak.»

—Eta altxor guztietako giltzak ekarri zizkidán, haietatik gogokenak hauta nitzan. Nik eskerrak eman eta bedeinkatu nituen. Haiiek, altxaturik, besarkatu ninduten, distiratsu, bi Eguzki bezala. Eta nola konta nezake armadari eman zizkioten opariak?

—Alaitasuna eta kantuak gora zihoazen, eta erregea umore ezin hobez zegoen, harpa eta liren soinupean. Ilusentian baina, erreginak alde egin zuen, eta dostatzen egon ginen loaren hegala erortzen den ordu horretaraino. Orduan guztiok altxatu eta ni neure logelara joan nintzen, ia zorabiaturik, neure maitasun sutsuagatik. Nestanek gatibu ninduen, bera ikusia nuen, eta zorionsua sentitzen nintzen haren begiradez oroitzean.

Nestan-Daredjanek bere maiteari eginiko gutuna

—**Z**erbitzari bat etorri zen berri onak ekartzera. Emakume bat, zapiaz estalirik, iritsia zen, nirekin mintzatzeko. Berehala Asmat ezagutu nuen, bihotza dardarka nuela. Pozik errezibitu nuen, nire hiltzaileak bidalia baitzen, seguraski. Eskutik hartu eta besarkatu nuen, jarlekura gidatuz. Eta hartaz mintza zekidala erre-gutu nion.

—Hark honela ihardetsi zidan: «Gaur aurrez aurre egon zarete, elkarri gustatuz. Berak, berriro ere, bere berri ekartzeko agindu dit.»

—Eta lurra tximistargitzen duenaren txartela eskuratu zidan. Honela izkiriataua:

*Zoragarri ikusi zaitut zeure zaldiaren
gainean. Zaldun garailea ematen zenuen,
borrokatik etorri berria. Dakusadanez, iturri
ona dute ene malkoek.*

*Ene mihia dohaina da, Jainkoak zu
laudatzeko emana, baina zu gabe hilik nago.
O ene lehoia! Arrosa eta azabatxezko lorategia*

daukat zuretzat gorderik. Zeurea bakarrik nauzu; zin degizut zeure Eguzkiagatik. Odolezko uholdeak isurtzen dituzu, baina ez alferrik. Halere, ez gehiago negar egin. Elkarrekin ikusten gaituztenek ez dakite ederrena zein den.

Emadazu, oparitzat, durbante hori eta zoriontsua izanen zara, ni horrekin apaindurik ikustean. Indazu hori, maitea, eta nik, ordainez, besoko bitxi hau emanen dizut. Ez dezazula zeure bizitzan honen antzeko gaurik berriz izan!

Tarielek, negarrez, kordea galtzen du

Basapiztia batek bezala, Tarielek oihu egiten zuen, bere oinazea handituz.

—Hona hemen besoko bitxi hura —esan zuen Tarielek—, ene Eguzkiak eskumuturrean zeramana.

Eta hura esku artean hartu, ahoa estutu eta, ahuldurik, zerraldo erori zen. Gorpua hilobiaren atarian baino hilotzagorik zetzan. Asmaten aurpegi atzaparkatuari odolezko uholdeak zerizkion, heroia ureztatzen zuen bitartean.

Konortea galduriko lagunaren aurrean, Avtandil zizpuru larriz ari zen, Asmaten negarrek harriak zulatzen zituzten artean. Handik pixka batera, bere senera etorri zen Tariel:

—Bizirik al nago? Nola liteke baina? Zoriak jada ene odola edana du eta.

Zurbil zegoen, ero begiradaz. Aurpegiko arrosa, kolorez aldaturik, azafraturik zeukan. Luzaro egon zen ezin mintzatuz, erabat harriturik bizirik ziraelako.

—Adi nazazu, Avtandil, zoraturik nagoela irudi arren, gutaz hitz eginen dizut, gertatu zitzaigunaz. Kontent nago, zugan inoiz aurkitu gabeko adiskide bat dakusadalako. Atsegin dut Asmat ikustea ere, arreba bezain zintzoa baitut.

Gutuna irakurri nuenean, besokoa eskaini zidan. Hura besoan ezarri eta durbantea burutik kendu nuen, durbante bitxi eta miresgarri hura, ehun beltz arraroz ehoa.

Tarielek bere maiteari erantzun

—*H*onela izkiriatu nion:

O Ekia, zeure errainuak ene bihotzaren hondoraino sartu dituzu. Zuregatik betiko galduak ditut neure ausartzia eta arintasuna. Zutaz eroturik, ene begiok zure politasun dotoreaz txunditurik daude. Heldu zait zure besokoa eta jada eskumuturrean dut jarria; nola adieraziko nizuke sentitzen dudana bozkarioa?

Durbantea eskatu didazu. Nik zure nahia igarria nuen baina. Hementxe bidaltzen dizut, janzki honekin batera. Ez duzu honelakorik beste inon ikusiko. Baina ez nazazu bizitzarik gabe utz; indazu laguntza; hel niri! Ezin baitezaket mundu honetan beste inor ohora, zutaz landa.

—Neskatxa jaiki eta joan egin zen, eta ni lo gozotan gelditu nintzen. Baina supituki, itzartu egin nintzen. Maitea ametsetan ikusia nuen, eta orain, itzarrik, ezin nezakeen gehiago bera ikus. Gaua hitsik eman nuen, haren boza ezin adituz.

Nestan-Daredjanen ezkontzari buruzko aholkua

—**B**iharamun goizean dei egin zidaten, jauregira joan nendin. Hara ailegatu nintzenez, errege-erreginak bertan ikusi nituen, visirrek inguraturik, eta beren aurrean esertzeko eskatu zidaten. «Jainkoak zahartzen gaitu eta gure indarrak badoaz pixkanaka. Geure alaba dugu ondorengoa, eta bada garaia senarra aurki diezaiogun, hura geure tronora ekarri eta erresuma goberna dezan, etsaiek gure aurka beren ezpatak zorrotz ez ditzaten.»

—Horri buruz mintzatu ginen, eta bihotza dardarka ari zitzaidan, nik ez bainuen hartan sartzeko inolako eskubiderik, eta, beraz, ezin nezakeen deus egin. Erregeak esan zuen: «Korezmiako Xah-ak¹², bertako erregeak, bere semea eskaintzen badigu, paregabeko aukera ukanen dugu.» Argi eta garbi zegoen dena alde zuretik erabakia zutela, eta beraz, ez nuela nik asmo haren aurka ezer esaterik. Bihotza taupadaka zebilkidan gogorki, eta ni neu lur gaineko errautsak bezala nengoen.

—Erreginak honela esan zigun: «Korezmiako Xah-a hagitz errege boteretsua da. Non aurki genezake horren semea baino suhi hoberik?» Nola esan niezaiokeen erreginari orduan sentitzen nuena? Ontzat eman nuen eta nire azken eguna sinatu zen.

–Xahari gizon bat igorri zitzaion, semea eskatzeko, hitz hauekin: «Erresuma honek ez du printzerik; guk, ordea, alaba dugu, eta bera ezkondu nahi genuke; zeure semea eman nahi bazenigu, pozarren geundeke.»

–Mezularia opariz beterik itzuli zen, soineko eta oihal preziatu askorekin. Xah bera ere pozik omen zegoen, neurri gabeko alaitasunaz asean. Esan zuen: «Jainkoak nahi genuena eskaini digu, nola gaitzetsenezake halako neskatxa bikaina?» Eta gure erregeak jaun handiak bidali zituen, senargaiaren bila lehenbailehen abia zitezen.

*Tariel eta Nestan-Daredjan
elkarrekin mintzo,
erabakia hartzeko*

–**T**erabat mindurik, ganibet bila nindoan, bihotza kolpatzeko. Orduan Asmaten zerbitzaria iritsi zen enegana, bere nagusiaren mezu honekin: «Zatoz berehala, o zu, altzifre bezalakoa.» Zaldi gainera igo eta laster haren lorategian nintzen, bihotza poz. Han Asmat antzeman nuen, tristerik, masailak malkotan. Ez nion deus galdetu. Ez zidan, ohi bezala, irribarrerik egiten eta haren negarra euri bilakatzen zen.

–Dorrera eraman ninduen, errezel lodia alboratu eta hantxe ikusi nuen. Haren izaera distiratsua klar-tasunak oihalak argitzen zituen. Nik emaniko urrezko ehuna zeraman jantzirik, bere soineko berdearekin zegoen, eta malko uhinek itotzen zioten aurpegiaren tximista argitsua. Harkaitz baten gainean kokaturiko tigre baten antzera, ekaitz itxura zeukan, eta Eguzkia,

Ilargia eta Edeneko zuhaitza iluntzen zituen. Asmatek eserarazi ninduen eta orduan lantza beltz batek zulatu zidan bihotza.

–Nestane, amorruez eta gorrotoz, honela esan zidan: «Harriturik nago zu ikusteaz, zeure hitza jan eta gero. Nor eta zu, eginiko zina hautsi duzuna, gaizto zital, traidore, gaitzesgarria! Jainkoak, zerua gobernatzen duenak, ordaina ematen jakinen dizu.» Orduan, esan nion: «Ezin mintza naiteke ez dakidanaz. Zein da, bada, ene bekatua?»

–Erantzun zidan: «Ez al dakizu Korezmiako Xaharen semea dakarkidatela senargaitzat? Zu han zinen, visirren artean, eta hori onetsi zenuen. Zeure zin sakratua hautsi duzu, biok lotzen gintuen lotura sendoa. Non dira behialako negar malko haiek, zelaiak bustitzen zituztenak? Non zu sendatu ezinik zebiltzan medikuak? Horra hor gizonen faltsukeria! Nik ere uko eginen dizut, ea biotarik zeinek gehiago sufritzen duen!»

–Esan nion: «O ene Eguzki, ez nauzu zin hausle. Jainkoak suntsi nazala, bestela, bere tximistekin! Ni heldu nintzenerako, errege-erreginek erabakia harturik zeukaten, eta ezetz esan banu ere, ezingo nukeen deus aldatu. Nola eztabaida nezakeen nik hura? Parsadane ez zuen ulertzen India ez zela geldituko erregerik gabe. Neu naiz legezko ondorengoa, ez da besterik. Eta hori jakinazteko beste zerbait pentsatu beharko nuen. Nola utz zaitzaket zu, neure bihotza saldu dizudan maite hori?»

–Eurria, ordura arte izotz, epel erortzen zen orain arrosaren gainean. Haren ahoko perlak ikusi nituen, koral artean xartatuak. Eta esan zidan: «Ez dakit nola pentsatu dudan hain gaizki zutaz. Ez dut berriz sinetsiko traidore ez zitala zarenik, ez eta Jainkoari uko egin ahal diozunik ere. Eska iezaiozu Parsadani ene eskua, Indiako erregetza. Biok elkarrekin eseriko gara tronoan; horixe da trataturik hoberena.»

—Eta aurreko haserrea ahantzirik, laztan eta ferekaz ase ninduen. Zer zen hura, lur gaineko Eguzkia ala Ilargi betea? Gozoki mintzo zitzaidan, ene zauriko sua itzaliz. Ondoren, esan zidan: «Zuhurtziaz jokatu beharra dago. Senargaiari herri honetara sartzen uzten ez badiozu, erregea zure bila joanen da eta, ondorioz, gerrak India osoa birrinduko du. Baina iristen uzten badiozu, ene senar bilaka daiteke. Horrela gu banatuko gintuzkete. Ez diegu persiarrei utzi behar gure gortiaz jabe daitezzen.»

—Ez dakiola nahi Jainkoari gizon hori zure senarra izatea —esan nion orduan—. Indiarra sar daitezenean gerraren artea erakutsiko diet, eta bera eta bere osteak ezereztuko ditut.

—Baina hark: «Andrazkook arrazoiketa bigunagoak izaten ditugu. Ez dut odol gehiegirik nahi, hortik gatazka handiak sor litezke eta. Etor daitezenean, jo ezazu printzea, baina ez hil haren tropak. Justiziazko egintza bat burutzen denean, zuhaitz ihartua bera ere loratzen da. Egizu horrela, o lehoi noblea, zaldun guztietarik hoberena. Kolpa ezazu ezkutuki maitatzailea, zeure gerlariez baliatu gabe. Ez ezazu haren armada suntsi. Gizonak ez lezake paira odol errugabearen pisua. Hori egin eta gero, zoaz ene aitagana eta esaiozu: “Ezin jasan dezaket India persiarren esku gelditzea. Nire oinordetza da, ene ondasuna, eta ez dut hortik drakma bat ere barkatuko. Atzera egiten ez baduzu, zure hiria ezereztuko dut.” Ez esan, ordea, maite eta nahi nauzula. Horrela zure egintzak legezkoago dirudike. Erregeak, orduan, desesperaturik, zuri erreguka nire eskua emanen dizu, Indian guk biok elkarrekin agintzea komeni da eta.»

—Haren aholkuak erabat asebate ninduen eta berehala altxatu nintzen, bere nahia konplitzeko. Egarriz nengoen arren, ez nintzen gelditu, ez eta bera besarkatzeko ere. Ero gisa nenbilen bera uztean. Asmat

ene aurrean zihoan, negarretan. Ene pena mila aldiz handitzen zen, gogoz kontra bainindoan, urrats labur eta geldoekin.

*Korezmiako Xaharen semea
Indietara heldu eta Tاريةk nola
hil zuen*

—**E**gun batez gizon bat agertu zen eta guztioi iragarri zigun: «Horra, badator senargaia!» Ai ene! Gazte horrek ez zekien zoriak zer zekarkion. Erregeak, kontentuz beterik, gauza atseginak esaten zituen eta bere ondoan eserarazi ninduen: «Gaurkoa, enetzat, alaitasunezko egun pozgarria da. Ospa ditzagun ezteiak handioski, behar bezala. Bidal ezazu gizon bat gure altxorak ekar ditzan. Bana ditzagun horiek eskuzabalik, zikoizkeria ez baita egokia.»

—Nik gizon batzuk igorri nituen, erregearen aberastasunak gureganatzeko. Ezkongai iritsia zen. Gutarrak etxeetatik zetozen eta korezmiarrak ere haiekin ziren. Landek ezin eduki zezaketen hainbeste jenderik. Erregeak hala agindurik, zelaietan dendak prestatu nituen, satin gorri ederrekoak. Gortelariak eta soldaduak lerroz lerro ziren han. Ni, neure eginbeharra betez, erdi lo bezala nenbilen eta orduan zerbitzariak txartel bat ekarri zidan, Asmatena: «Zatoz! Aloe dirudienak agintzen dizu.»

—Harenganatu nintzen, beraz. Bere gelan zegoen bururdi baten gainean eseririk. Oi, Eguzkiak berak ezingo zituzkeen inguruak hobeki argitu! Honela esan zidan: «Zertan zabiltza zu geldi gerra denboran? Berriz ere saldu nahi nauzu, ni berriro engainatuz?» Penaturik utzi

ninduen eta, ezertxo ere esan gabe, atera abiatu nintzen. Gero, burua itzuliz, hots egin nion: «Orain ikusiko duzu gezurra esan dudana ala ez. Ez nau emakume batek borrokara bultzatu behar!»

–Etxera bihurtuta, zerbitzariei dei egin nien: «Presta zaitezte borrokarako!» Eta nabarmendu gabe zelaira abiatu ginen. Korezmiako printzearen dendara sartu nintzen. Mihiak nekez azal dezake nolako hilketa ikaragarria egin nuen, odolik isuri gabe. Ate zabala ireki nuen eta senargaia oinetatik harturik haren burua dendako tantaiaren kontra jo nuen bortizki. Atarian lo zeutzanek malko izugarriak isuri zituzten. Zaldi gainera igota, kota jantzirik, handik alde egin nuen.

–Zaratotsa gero eta handiagoa zen. Ene atzetik zetozen, alarma joz, baina nik, zaldiz nindoala, eraso-tzaile batzuk hil nituen. Banuen gotorleku bat, etsaiek ezin hartuzkoa, eta haraino abiatu nintzen. Bertara hel-tzean, neure gerlari guztiei mezulari bat igorri nien: «Ene alde zaudetenok zatozte lehenbailehen niregana.»

–Hurrengo egunean, egunak gaua saihesten due-nean, hiru jaun ikusi nituen aurreratzen, erregeak igorriak. Haren hitzak zekarzkidaten: «Jainkoak badaki semetzat hazi zintudala. Hortaz, zergatik bihurtu duzu ene lehengo poza orain pena latz? Zer dela eta lohitu behar izan duzu ene etxea Korezmiako xaharen odol garbiarekin? Ene alaba nahi bazenuen, aski zenuen bera eskatzea. Zeure aitatzakoari orain izate gorrotagarria eman diozu. Ez duzu ene ondoan hil arte egon nahi izan.»

–Mezularien bidez honela ihardetsi nion: «Errege, kobrea baino gogorragoa nauzu. Honek ez bestek gorde nau su izekiak erretzetik. Errege batek, ongi dakizunez, bere epaietan zuzena behar du izan. Zure Eguzkiagatik zin degizut ez dudala nik zure alaba nahi. Badakizu, halaber, zenbat jauregik eta tronok apaintzen duten India. Horien ondorengo bakarra neu nauzu, lege onean.

—Jainkoak ez dizu semerik eman, ezpada alaba bakarra, eta ondasun horietarik enetzat ez da deus geldituko, zuk Korezmiako Xaharen semea errege izendatuz gero. Baina, nitaz landa, ez da Indian beste erregerik izanen, nik eskuan ezpata dudan bitartean. Horretarako ez dut zure alabaren beharrik. India neure ondasuna dut eta ene eskubideak zalantzan jar ditzatenak erruki gabe sarraskituko ditut. Heriotza mereziko nuke, horretarako laguntza eskatu behar izanez gero.»

Tarielek Nestan-Daredjan desagertu dela jakiten du

—**T**regeari mezu horiek bidali ondoan, gotorlekuaren atarian gelditu nintzen zain. Ez nekien haren berririk bat ere eta horrek sutan jartzen ninduen. Bat-batean, oinezko bi etortzen ikusi nituen. Emakume bat eta zerbitzaria ziren, eta berehala ezagutu nituen. Asmat zen, adatsa deseginik, kopeta odoleztatuarekin. Nigana zetorren, deitu eta irribarrez agurtu gabe.

—Ondoan ginelarik, zer gertatu zen galdetu nion eta honela erantzun zidan: «Jainkoak, haserreturik, zeruko ganga itxi digu!» Gehiago azaltzeko eskatu nion, baina negar malkotan aritzen zen, hitzik ezin esanez. Azkenean, erantzun zidan:

«Dena kontatuko dizut, ezer ezkutatu gabe. Berri hauen ordaintzat, otoi, urrikal zaitez nitaz eta aparta nazazu bizitza honetatik.

»Senargaia hil zenuelako berria hedatu zenean, erregea atsekabez bete zen. Oihuka deitzen zintuen eta zu beragana eramateko agintzen zuen. Zure bila alferrik

aritu ondoren, joana zinela esan zioten, eta erregea, kexuka, honela mintzatu zen: “Orain dena ongi ulertzen dut. Ene alaba maite zuen, hargatik isurtzen zituen negar uholdeak. Biek elkar ikusten zuten, batak bestea miretsiz. Zin egiten dut neure arreba deitzen den hori hilaraziko dudala. Hark ene alaba Jainkoaren bidetik gidatu behar zuen, eta ez deabruarenetik. Hura bizirik uztea Jainkoari uko egitea litzateke, herioa izanen du zigor.”

»Bitxia zen erregeak bere buruagatik zin egitea, baina hala egiten zuenean, eginiko zina beti betetzen zuen, hutsik egiteke. Davarrek, erregearen arabak, las-ter izan zuen haserre horren berri. Hura sorginkerietan arras trebea baitzen, zeruko misterioak ere jakinki.

»Jainkoaren etsai batek hau Davarri jakinarazi zion: “Zure nebak zin-zinez esan du ez zaituela bizirik utziko.” Hark esan zuen: “Jainko onak badaki ni erruga-bea naizela. Zergatik hil behar nau, bada? Hori ez da beteko.”

»Nestanengana joan zen, zure ehunaz zoragarri-ro apaindurik zegoenagana, eta irainez esan zion: “Put a hori! Nondik nora kenduko didate bizitza hiregatik? Segur diosnat ez dunala inon poztasunik kausituko. Emagaldu hori! Zergatik hilarazi dun heure senargaia? Zer dela eta ordaindu behar dut nik orain haren odol isuria? Ene nebak ez din ni hiltzeko arrazoirik bat ere, ez baitut deus txarrik egin. Jainkoak ailetsa hik Korezmiako Xaharen erailea behin ere ez ikustea!” Davarrek hura hartu eta, ile luzeetatik tiratuz, gogorki jotzen zuen. Nestanek ezin zezakeen erantzun eta ziz-puruka ari zen.

»Davarrek jotzeari utzi zionean, bi esklabo beltz, kadji⁹ itxurakoak, hara hurbildu ziren. Kutxa handi bat zekarten eta hitz latzekin bertara sartu zuten, gatibu, Eguzkia. Gero leihotik atera eta itsasorantz eramán

zuten. Davarrek esan zuen. “Honegatik, zalantzarik gabe, harrika hilko naute. Erregeak ni hil baino lehen, hobe dut neure burua hiltzea.” Eta bere ganibetaz kolpaturik, odol uholde artean hil zen.

»Ez al zaitu harritzen, hori ikusi ondoren ni bizirik ikusteak? Trata nazazu ekarri dizkizudan berriok merezi duten bezala. Guztiz Gorenaren izenean eskatzen dizut, otoi! Aska nazazu bizitza honetatik!«

–Eta negar malkotan urtzen zen, etenik gabe. Nik esan nion: «Zer erru duzu zuk, ene arreba, hil zaitzadan? Ene eginbeharra hura bilatzea da, bihotza harria bezain gogorturik badut ere.»

–Dolorez eroturik eta sukarrak hartuta, neurera sartu eta armatu nintzen. Behingoan zela gainean nengoan. Nire menekoetarik ehun eta hirurogei zaldun bikainek laguntzen ninduten. Enekin borroka lerroan ateak zeharkatu zituzten eta itsasbazterrera abiatu ginen. Han itsasontzi bat ikusi genuen, amarraturik. Hara sartu eta itsasoko uhin artetik ibili ginen luzaro. Ez genion ezein ontziri iragaten uzten goitik behera arakatu gabe. Itxaroten genuen, baina ez genuen deus aurkitzen, eta eromenak jotzen ninduen. Jainkoak benetan gorroto izan behar zidan, halako zoritxarrean uzteko.

–Horrela urtebetean aritu ginen, eta hamabi hilabeteok hogeituzi iruditu zitzaizkidan. Ametsetan ere ez nekusan inor haren berri zekienik. Ene laguntzaileak oro hilez joan ziren, guztiak ene aldamenean. Nola ibil ninteke Jainkoarekin erronkan? Haren nahia besterik ezin dut egin. Itsasoz ibiltzeaz asper-asper eginda, lehorrera itzuli nintzen. Basapiztien antzera nenbilen. Nire penakideak jadanik urrunduak ziren, baina Jainkoak ez du sekula bakarrik uzten gaztigatu duen gizakia. Ene aldamenean Asmat eta bi zerbitzari besterik ez ziren gelditzen. Haiak kontsolatzen ninduten, eta beren kontseiluekin bihotza sendatzen.



Nuradin-Pridonen istorioa

—**G**au batez, kostaldetik genbiltzanean, hiri bat ikusi uste nuen, harkaitzen tontorren gainean. Ez nuen gogoko gizonak ikustea. Maitasunaren suak bihotza erretzen zidan. Ene zerbitzariak afaltzen zuten artean, ni zuhaizti eder batean lo nentzan. Halako batean oihu batek iratzartu ninduen. Buru itzulita, zaldizko bat ikusi nuen itsasbazterretik galapan itzegotzen, itxuraz gaizki kolpaturik. Ezpata hautsia zeraman, bere zauriei zerien odolean bustia. Bere etsaiak mehatxatzen zituen, haien aurkako irainak esanez.

—Bere zaldi beltzaren gainean zihoan, orain beti enekin daramadan honetan. Haizea bezain laster zebilen, amorruz hordi, txit haserre. Neure zerbitzaria igorri nion, berarekin egon nahi nuela esan ziezaion, baina ez zion kasurik egin. Orduan, neure zaldi gainera igo eta harengana abiatu nintzen: «Egon —eskatu nion—, entzun nazazu, zerk kezkatzen zaituen jakin nahi dut eta.» Hark begiratu egin zidan eta, gogoko iritziz, gelditu egin zen.

—Niri so eginez, Jainkoari zuzendu zitzaion: «Hau da enborra, egin duzuna!» Gero niregana bihurtu zen: «Nahi duzuna esanen dizut. Ene etsaiak, nik aharizat neuzkanak, lehoi bihurtu dira eta traizioz eraso didate. Armak hartzeko astirik ere ez dut izan.» Orduan esan nion: «Egon, zaude lasai, goazen zuhaizpera esertzera. Zaldun onak ez du behin ere atzera egiten ezpata zorrotzen aurrean.» Adiskide gisa jarraiki zitzaidan, semea bere aitarekin bezain amoltsu. Zaldun haren edertasunak harritzen ninduen.

—Ene zerbitzari bat medikua zen eta haren zauriak sendatu zituen, haragitik gezi puntak kenduz, eta horrela mina asko ematu zitzaion. Orduan galdetu nion. «Nor

zara, ba? Nork zauritu zaitu horrela? Eta bere istorioa kontatu zidan, kexa mingotsen artean:

«Hemendik gertu Mulgazanzar-ko hiria¹⁵ dago. Nire izena Nuradin-Pridon da eta bertako erregea naiz. Zuek nire jabetzaren mugetan kanpatu duzue. Ene herrialdea ez da handia, baina edertasunez paregabea da. Aitonak ene aitari eta osabari bere ondasunak eman zizkienean, itsasoen erdiko uharte bat egokitu zitzaidan, eta horixe da ene zatia. Baina ene osabak horretaz ere jabetu nahi du eta haren semeek, hura kentzeko, zauritu naute. Ehizarako tokitzat nahi zuten baina nik ez nien eman nahi.

»Egun, ehizarako irtetean, itsasbazterretik ibili naiz, uhartera joateko asmoz. Aldean basozain batzuk neramatzan. Soldaduei han gelditzeko agindu diet eta aztoredun morroi gutxi batzuekin txalupara sartu naiz, badia zeharkatzeko. Bidean ene lehengusuek beste ontzi batetik eraso didate, ezpata eskuan, ene gizonen gainera eroriz.

»Borrokan aritu naiz haien kontra, baina ezpata hautsi zait eta geziak amaituak nituela ikusi dut. Besterik ezinean, zaldiarekin itsasora jauzi egin eta igerian bazterrreraino heldu naiz. Haiek, artean, ene soldadu guztiak hil dituzte. Egin dadila guztia Jainkoak nahi bezala! Berriz senda nadinean, isuririko odolaz mendekatuko naiz. Beren patuaz damutzeko parada ukanen dute, goiz eta arrats. Bele beltzak gonbidatuko ditut, haiez oturuntza egin dezaten.»

–Zaldun hori erabat begiko eta maitagarria iruditzen zitzaidan, eta bihotza adiskidetasunez bete zuen. Esan nion: «Orain ez duzu kezkatu behar. Lagunduko zaitut eta guztiak txikituko ditugu. Biok gerlariak gara eta ez gaitu ezerk ikaratuko.» Eta gaineratu nion: «Zuk ez dakizu ene gertakarien berri, baina guztiak banan-banan kontatuko dizkizut, astia izanen dugunean.»

–Erantzun zidan: «Zein izan daiteke hau baino poz handiagoa? Neure heriotzako egunera arte, neure bizitza osoa eskainiko dizut.»

–Haren hirira iritsi ginen. Txikia zen, baina oso polita. Soldaduek agurtzen zuten, doluz burua errautsez estaliz. Beren aurpegiko azala urratzen zuten eta bera besarkatzen ezpatak beheraturik. Ni ere gustukoa ninduten eta honela ziostaten: «O Eguzki, eguraldi argia dakarkiguzu.» Eta hiri aberats eta eder hartako bizilagun guztiek, urrezko brokatuekin jantzirik, miresten gintuzten.

Tarielek Pridon laguntzen du

–**H**andik laster, Pridon bere ezpata berriz hartzeko eran egon zen. Ardura handiz txalupak, armak eta soldaduak prestatu zituen, borrokarako gertu. Besteek ere beren kasketak jantzi eta batel batzuk zuzendu zituzten gureganantz. Zortzi zirelakoan nago.

–Nik haietako bat oinpean hondoratu nuen eta, orduan, gerlariak negarrez hasi ziren, emakumeak bezala. Beste txalupa batera hurbilduz eskuarekin brankatik oratu eta itsaspera bidali nuen. Horrela ez zuten borroka gehiago behar izan. Gainerakoak, nigandik iheska, portura abiatu ziren. Lehorreratu ginenean, zaldiz eraso zigiten. Harriturik uzten ninduten Pridonen ausartziak eta arintasunak. Lehoia zen, Eguzki itxurakoa, altzifre gorputzekoa.

–Ezpataz lehengusu biak lurreratu eta, zigortzeko, eskuak moztu zizkien. Besoak loturik, horrela preso eraman zituen. Haien zaldunak negarrez ari ziren eta harenak pozarren. Besteen tropek gure aurretik ihesari ema-

ten zioten, ikaraz. Harrika hankak hausten genizkien eta, handik laster, haien hiria hartu genuen. Bertako harrapakinekin karabana batzuk ongi karga zitezkeen.

—Pridonek trofeo guztiak bere zigiluaz markatu zituen, eta lehengusu biak gatibu harturik, hirira itzuli ginen, garaile. Nitaz honela zioen: «Lauda dezagun Jainkoa, altzifre hau hazi duelako!» Koblakariiek jendeen bihotza xarmatzen zuten eta gure garaipena gorai patzen zuten: «Zuen eskuen indarrari esker isuri da haien odola.» Osteetako gerlari zintzoek, Pridon, beren erregea, agurtzen zuten, eta niri ere abegi ezin hobea egiten zidaten. Halere, ni triste nengoen. Haiek ez zekiten ene istorioa eta nik mintzatzeko gogorik ez.

Pridonek Nestan-Daredjanen berri ematen du

—**E**gun batez, Pridon erregea eta biok ehi-
zan ari ginen, itsas ondoko mutur batean. Orduan Pridonek honela esan zidan: «Kontatu nahi dizut behin, zaldiz genbiltzala, hemendik zer-nolako ikusgarri bitxia antzeman genuen.» Pridoni mintza zedila erregutu nion eta ondoko hau kontatu zidan:

«Ehizan jarduteko asmoz, zaldi adoretu honen gainean nenbilen. Itsasoan ahate baten antzekoa da, eta lehorrean, aldiz, aztore noblea. Hemendik neure begiek saien hegalaldiak ikus zitzaketen, zeruan. Mendira igo eta gero, aldizka itsasorantz so egiten nuen eta halako batean, uhinen artean puntu txiki bat antzeman nuen. Paregabeko abiaduraz mugitzen zen. Ez nuen hura ongi nabaritzen, baina haren itxurak harritzen ninduen.

»Hasieran ez nekien hegazia ala piztia ote zen. Baina ez, txalupa txiki bat zen, eta bi arraunlarik eragiten zioten. Begiak zolitzuz, han Ilargi zoragarri bat ikusi nuen distiratsen. Ontzitik bi zerbitzari irten ziren, kedarra bezain beltzak. Haiek bazterrera zekarten neskak ile luze txirikordatuak zituen. Ez dago kolorerik haren errainuekin konpara daitekeenik. Unibertsoa argitzen zuen eta Eguzkia ilundurik gelditu zen.

»Arrosa eder hori hobeki ikusi nahian, haien atzetik abiatu nintzen, baina ene zaldia txit azkarra izan arren, aurre handia hartua zidaten eta ez nuen haiek harrapatzerik izan. Berriz txalupara sartu eta, itsasoan urrunduz, berriro galdu ziren.»

–Pridonek hitz egin zidanean, bihotza su bizitan nuela, honetara esan nion: «Hil nazazu, aloe hori beste gizon batek ikusi du eta!» Pridon, ene portaeraz harriturik, ni kontsolatzen ahalegindu zen. «Ai ene zoritxarrekoa, mintzatzeagatik!», zioen. Nik esan nion: «Ez duzu nahigabetu behar kontatu didazunagatik. Urrezko argizagi hori neurea dut, eta beragatik erretzen nau suak. Orain guztia esanen dizut, ene adiskide izan nahi duzunez gero.»

–Eta orduan Pridoni gertatu zitzaidan guztia kontatu nion. Berak erantzun zidan: «Berba larregi egin dut, neure okerrak lotsaz betetzen nau. Nork eta zuk, Indiako errege horrek, aurkitu nauzu, honaino etorririk. Zuri enperadoregoa, zuri tronoa, zuri jauregirik ederrena dagozkizu.»

–Eta ondoren esan zuen. «Jainkoak altzifre itxurako gorputz hori eman badizu, berak ere kenduko du zuregandik bihotza zulatzen dizun lantza hori. Jainkoak bere mesedeak ematen dizkigu, zerutik igortziri gisa eroriz, eta gure penak poz bihurtzen daki.»

–Jauregira itzuli ginen, negarrez, eta Pridoni esan nion: «Zutaz kanpo ez dut laguntzarik bat ere izan.

Jainkoak ez dit zure antzeko beste gizonik inoiz bidali. Lagun zintzoak izanen gara. Esadazu zer egin dezakedan.»

–Hark erantzun zidan: «Indiaren jabea izanik, niregana etorri zara, ongile gisa. Hemendik aurrera zerbitzari nauzu, zu beti laguntzeko prest. Hara, hiri hone-tatik itsasontzi asko iragaten dira, eta atzerriko berri ugari jasotzen ditugu. Agian hortik jakinen dugu zure gar bizia goza dezakeen ukendua. Hara eta hona marinel trebeak bidaliko ditugu, sufriarazten digun Ilargi horren bila.» Eta bere jendea bildurik, itsasora igorri zuen, ontzitan, maite galduaren berrien bila.

–Artean, Pridonek trono bat eginarazi zuen enetzat bere errege jarlekuaren ondoan: «Oker nengoen, –ziostan–. Ba ote da mundu honetan gizon bat zure esklabo izan nahi ez duena?»

–Baina neure kontakizuna laburtu behar dut. Denbora aurrera zihoan eta mezulariak toki guztietatik heltzen ziren, baina inolako berririk gabe. Ene begioi malko kontaezinak zerizkien. Beraz, egun batez, Pridoni honela esan nion: «Hau bai egun ikaragarria enetzat! Jainkoa lekuko, zein gogorra egiten zaidan honetaz mintzatzea! Egunez eta gauez beti ilunabarrean bezala sentitzen naiz. Haren berriak izateko esperantzarik gabe, ezin egon naiteke hemen luzaroago. Beraz, uztazu, adiskide, joaten.»

–Pridonek erantzun zidan: «Gaurtik aurrera ez dut alaitasunik berriz ukanen.» Eta ahalegin handiak egin arren, ez zuten lortu ni gelditzea. Haren gerlariak ere inguratzen ninduten, ez nendila joan eskatzeko. Baina nik esan nien: «Enetzat ere ezin latzagoa da zuengandik urrundu beharra, baina bestela, hura gabe, ez nengoke pozik. Ezin utz dezaket bera gatibu, zuek ere haren zoria deitoratzen duzue eta. Otoi, ez erregutu gehiago, ez baitut iritzia aldatuko.»

—Orduan, Pridonek bere zaldi ederra ekarri zidan, oparitzat: «Zuri, Eguzki, zuri, altzifre, ematen dizut zaldi hau. Badakit ez duzula ezer falta, baina hau ez da gaitzestekoa. Bizi-bizia da eta ongi hezia, eta laguntzaile ona ukanen duzu.» Eta Pridonek berak lagundu ninduen bidean, biok negar jarioaz. Baina, azkenean, besarkatu ondoren, agur egin genion elkarri.

—Pridonengandik aldendu eta gero, berriz ere itzuli nintzen lehenagoko bizimodu alderrai honetara, beti ene maitearen bila. Ene zerbitzariei joan zitezela agindu nien, baina haiek, haserrez, ezetz ihardesten zidaten: «Zer diozu baina? Ez utzi gure belarriei horrelako hitzik entzuten! Ez dugu guk beste jaunik nahi, zutaz besterik. Jainkoak ibilaraz gaitzala beti zure zaldiaren oinatzen atzetik!»

—Ezin bidal nitzakeen, beraz, baina ni basapiztien bizilekuetatik nenbilen, noraezean. Behin, haitzulo batean devi beltz beldurgarrien aurka borrokatu behar izan nuen. Ni garaile atera arren, deviek ene beste zerbitzariak hil zituzten, armadura gaizki loturik zeramatelako. Horrek ere biziki tristatu ninduen. Harrezkero, anaia, hementxe nauzu, hiltzeko gertu. Asmat da gelditu zaidan lagun bakarra, hargatik ere sutan errea. Egiazki, heriotza ez bada, ez dut beste irtenbiderik.

—Behin tigre eder bat hil nuen, eta maite dudaren antzekoa iruditu zitzaidan. Haren larruaz Asmatek jantzi hau egin zidan, bera josten zuen artean negar eta negar arituz. Jakintsuen mihiak ez lekike adierazten goraipamen egokirik neska honentzat. Bestetik, ni hemen nago, neure bizitza triste hau pairatzen, ene gogoia Eguzki distiratsuarengan izanik.

Eta hau kontatzen zuen bitartean etsi gaiztoan amiltzen zen, bere masailetakoa arrosak erauziz, errubia anbar bilakatuz, kristal ederra puskatuz. Avtandil ere pena sakonarekin zegoen, eta malkoak erortzen zitzaizkion

betileetatik. Neskatxa Tariel lasaitzen saiatzen zen, haren aurrean erreguka, belauniko.

Trankildu zenean, Tarierek Avtandili honela esan zion:

–Neure historia guztia kontatu dizut, horrekin pozik bat ere eman ez badizut ere. Orain zoaz, bada, zeure Eguzkiagana, berriro elkarganatzeko garaia duzue eta.

Avtandilek erantzun zion:

–Zuregandik urruntzeak nahigabe izugarria ematen dit. Baina egia da, su gartsu hau eragiten didanagana itzuli beharra daukat. Bera ikusiko dut, enegana gorde duen maitasuna sendotuz. Azaldu egingen diot, gainera, zutaz jakin dudan guztia. Baina, Jainkoa jartzen dut lekuko, hemen itxaroten badidazu, zin-zinez diotsut berriro etorriko natzaizula eta ez zaitut berriro utziko. Hil arte zeure zerbitzuan ukanen nauzu. Jainkoak ailetsa azkenean nik zure negarrak xukatzea, hilarazten zaituenagatik isuriak.

Tariel harriturik zegoen:

–Nola liteke zuk, arrotza izanik, ni horrenbeste maitatzea eta ni uzteagatik horrela sufritzea, urretxindorrrak arrosa bezala? Nola ahantziko zaitut, edo nola nagoke zutaz pentsatu gabe? Jainkoak dagiela nik zu berriz ikustea, aloe gazte loratu hori!

Bihotz garbiko gizon biek elkarri beren leialtasunezko zin zintzoak egin zizkioten eta, tristuraz beterik, Avtandilek alde egin zuen kanaberadien artetik, bidea malkotan blaiturik. Asmatek erregu egiten zion, otoi, berriz itzultzeko eta bere hitza bete zezala. Hark erantzun zion:

–Zugan pentsatuko dut, ene arreba; zaude lasai! Bi hilabetetan ez banetor, paregabeko lotsa litzateke, eta hala balitz, hila naizelako seinalea zenukete.

Avtandil Arabiara itzultzen da

Handik partitzean, Avtandil tristerik zihoan. Aurpegia atzamarkatzen zuen, eta animaliek haren zauriei zerien odola miazkatzen zuten. Haren zaldiaren lasterrak bidea laburtzen zuen.

Egun askoren buruan bere armada zegoen lekura heldu zen. Ikusi bezain laster ezagutu zuten eta Xermadinengana abiatu ziren, berri ona ematera:

–Berriro hemen dugu gure poza pena bihurtu zuena. Xermadin haren bila joan eta estuki besarkatu zuen, aurpegia aurpegiaren kontra jarriz.

–Jainkoari esker, ezein gaitzek ez zaitu makaldu. Eta jaunek eta noble guztiek ere ongi etorririk beroena eskaini zioten.

Haren etxera iritsi zirenean, hiri osoa bertan zen, bera ikusteko gogoarekin. Ezin ahantzizko eguna izan zen ordukoa. Xermadini gertatu zitzaion guztia kontatu zion, hots, Eguzkia bezalako zaldun hura aurkitu zuela, eta honela aitortu zion:

–Tariel gabe, dena berdin zait, txabola zein jau-regirik ederrena.

Ondoren, Xermadin gortera joan zen, erregeari zaldunaren itzulera jakinarazteko. Hiru egunez egin zuen hamar egunetako bidea:

–O errege adoretzu eta handia. Beldur eta errespetuz mintzo natzaizu. Zaldun ezezagunaren berri ez nekienean, ezerezaren pare nintzen, baina orain, izan dut haren berri, eta osorik eta salburik itzuli naiz.

Eta erregeak Jainkoa laudatu zuen, hain albiste bikainak eskertuz.

Xermadinek, halaber, Tinatini abisatu zion, ezerk iluntzen ez duen argizagi distiratsuari:

–Avtandil zugana dator eta berri onak dakarzkizu.

Hitz hauek entzutean Eguzkiak baino errainu gehiago hedatu zituen. Opari ederrak egin zizkion eta zerbitzariak jantzi zituen.

Erregea bera, zaldiz, zaldunarengana abiatu zen lasterka eta Avtandilek ohore hori bihotzez eskertu zion. Biak pozarren elkartu eta han ziren anitz jaun noblek hordi ziruditen alaitasunez. Zaldunak erregeari bere omenaldia eskaini ondoren, beronek Avtandil besarkatu eta jauregira joan ziren.

Lehoien arteko lehoiak Eguzkirik gorenari ohore egin zion. Kristala, arrosa eta azabatxea haren biguntasunaz edertzen ziren. Neskatzaren aurpegiak Eguzkiaren distira lainotzen zuen, eta harentzako etxe egoki bakarra zeruko jauregi ederra litzateke.

Han jan-edan handitan ospatu zuen zorioneko egun hura. Erregeak Avtandili begiraten zion, aitak semeari bezala. Biak begirako ederrak ziren, arrosa apaintzen duen elurra edo ihintza bezala. Eta eskuzabalik drakmak bezalako perla handiak eskaintzen zituzten.

Oturuntza amaitu eta gonbidatu guztiak joan zirenean, errege-erreginek Avtandil beren ondoan geldiarazi zuten. Erregeak zaldunari galde eta galde egiten zion, bere abenturak konta ziezazkion, atzerriko zaldun noble hartaz jakin zuen guztia azaltzeko:

–A, ez zaitezte harri, otoi, ene zizpuruez, haren parekorik ez baita, Eguzkiaz besterik. Baina zeinen triste dagoen! Patu jasanezinak gizona sufriarazten duenean, kanabera sasi bilakatzen da, eta kristala azafrai.

Eta hartaz oroitzean, Avtandilen begitartea ihintzaz estali zen.

–Deviak garaitu ondoren, haien haitzuloan ezkutatatu zen, berekin neska zerbitzari bat, bere maitearen laguna, gordez. Janzteko, tigrelarrua dauka, eta ez du zeta edo brokaturik nahi. Ez dakusa unibertsoan besterik ezer, beti ere suzko garretan izekirik.

Orok txalotu zuten haren balentria nagusia, Eguzki argitsu hori azkenean aurkitu ahal izatea. Eta gorai patu zuten arrosa hori hartzen jakin zuen eskua. Bera entzutean, Tinatin pozarren zegoen eta ez zen mahaian aspertzen. Bere gelara itzultzean, Avtandilek esklabo batengandik jakin zuen hark deitzen zuela, eta alaitasunak hartu zuen.

Zalduna lasterka bertaratu zen, poz eta alegera, xamur eta maitekor. Lehoi gisa ibilia zen, alderrai, zelaie-tan zehar, basa lehoien artean bizi izanik. Unibertso-ko jauna zen bera, errubi eta perla akats gabea. Bere bihotzeko maitasunagatik aldatu zuen, ordainez, bihotza bihotz truke.

Tinatin bere tronoan zen, harro eta bizipozaz beterik, Eufratesko uretan ureztatua, paradisuko aloe zoragarri. Azabatxez txirikordaturik, bekain sarriek apaintzen zuten kristala, errubia. Zer gehiago esan neza-ke? Atenasko jakitunei dei egin beharko nieke, bera gorai patu lezaten!

Bere aurrean eserarazi zuen eta luzaro egon ziren biak solasean, bokantza handiz, hitz arruntik erabili gabe. Hark esan zion:

–Beraz, aurkitua duzu hainbeste sufriarazten zintuena.

Mutilak erantzun zion:

–Unibertsoak gizakiari beronek nahi duena ematen dionean, penak oro iragaten dira, eguna bezala, eta ez da hartaz gehiago oroitu behar.



Eta berriro kontatu behar izan zizkion, xehe-xeheki, hura kausitu arte pairaturiko gorabehera guztiak.

Tinatinek, azkenean, bere nahia beterik zekusan, eta haren aurpegia pizturik ageri zen, Ilargiaren izpiak bezala:

—Esadazu —galdetu zion—, zer egin genezake zaldun hori laguntzeko?

Avtandilek honela ihardetsi zion:

—O Tinatin maitea, zure Eguzki eta izenagatik zin egin nion, bere albora itzuliko nintzela. Adiskide batek ez du ezein arrisku saihestu behar bere adiskidearen fabore, eta midjnrur maitale batek beste midjnrur baten pena berea bezala hartu behar du.

Eguzkiak erantzun zion:

—Ene bihotzeko nahiak oro beteak dira. Osorik eta salburik etorri zatzaizkit, zaldun galdua aurkiturik, eta zure bihotzean erein nuen maitasuna handiturik dakusat orain. Bihotza erretzen zidan sua itzaltzeko ukendua aurkitua dut jadanik. Ongi egiten duzu adiskidea ez traditzeaz, zeure zina bete nahiaz. Halere, zer egingen dut nik, zu, ene Eguzki hori, berriro gal zaitzadanean?

Zaldunak erantzunez:

—Zure ondoan nagoelarik, oinaze hau beste zazpi oinazeri eransten diet. Alferrik dugu urari putz egitea, bero dadin, ezkutatzeaz ari den Eguzkia ezin erdiets daitekeen bezala. Zurekin naizenean pena bat daukat, mila, ordea, zugandik urruntzean. O ene Eguzki, distira egizu enegatik, Eki zoragarri gisa, eta emadazu seinale bat, mailegutan, nire bidaia luzerako.

Eta hark, haren gogoia betez, perla eder batzuk eskaini zizkion.

Zizpuruka elkar utzi behar izan zuten. Neskak negar egiten zuen odolez, ugariago itsasoko urak baino. Zalduna ere tristeki zihoan, aldean bere maiteak emaniko perlak zeuzkala, haren hortz zurien irudiko. Haiei muin egiten zien, maitekiro, bere ezpain epelen kontra hertsatuz, malkoek masaila bustitzen ziotelarik.

Biharamunean mezulari batek jauregiko abisua ekarri zion. Erregeak ehizaldirako gonbitea egiten zion. Zalduna haraxe joan zen. Nola azaldu hango burrunba? Txakurrak hara eta hona zebiltzan, danbor hotsen artean, eta belatzek eguna ezkutarazten zuten. Zinez, egun hartan piztien odolak gorritu zituen landak eta inguruak.

Behin ehiza amaitu eta gero, biak alai itzuli ziren. Armada osoa zuten inguruan, printze eta jaun handiz osatua. Erregea pozik eseri zen areto zabal haietako batean, lirek eta biolek jotzen eta koruek kantatzen zuten artean. Erregea Avtandilen ondoan jarririk zegoen, eta galde eta galde egiten zion etengabeki. Mutilak garbi zekusan hark ez zuela bere ondotik galdu nahi.

Avtandilek erregeari joaten utz diezaiola erregutzen dio

Arazoari zuzenik nola heldu ez zekiela, Avtandilek erregearen visirrarekin hitz egitea erabaki zuen. Harengana joan zenean, beronek honela agurtu zuen:

—Goizeon Eguzkia ene etxearen aitzinean jalgi da, berri pozgarria iragartzeko, alafedea!

Eta zaldunagana hurbilduta, ongi etorria egin zion, oso abegikor. Haren oinen azpian Kataitik ekarririko

ehun finak hedarazi zituen. Mutilak etxea argitzen zuen Eguzkiak unibertsoa bezala.

–Haizeak arrosen lurrina dakarkigu gaur.

Visirrak bere etxekoei gelatik irten zitezela agindu zien, biak bakarrik gelditzeko. Orduan, zaldu-nak honela esan zion visirrari:

–Jauna, badakit erregearen gortean ez dela zuretzat sekreturik eta Erresumako zereginetan erregeak zuk nahi duzuna egin ohi duela. Entzun, hortaz, ene kezka eta lagun nazazu bera sendatzen.

Eta orduan Avtandilek Tarieli eginiko zin sakratua aitortu zion visirrari.

–Nire zain dago bera, eta nik ezin dut neure zina hautsi. Zoriontsu izan al daiteke gizona, behin bere hitza jan eta gero? Hortaz, zoaz, otoi, gure erregeari hau guztiau azaltzera, harengana joaten utz diezadan. Esaiozu ene partez: «Aho guztiek izan dezatela zu laudatzeko atsegina, o errege. Jainkoak, zu argitasunez beterik, erakuts diezazula nolako lotsa eta beldurra dizudan, baina aloe gorputzeko heroi horrek bere suarekin kiskaltzen nau eta haren alde joaten banaiz, ene loria zure gainera isuriko da.»

Eta gero, visirrari zuzendurik, gehitu zuen:

–Erregu egiozu ene alde, mesedez, eta urrezko ehun mila dukat emanen dizkizut, esker onez.

Visirrak, irribarrez, erantzun zion:

–Ez zaitetz saia ni erosten, aski ordaina baitut zu zerbitzatu ahal izatea. Gainera, esan dizkidazunak erregeari azaldu ondoren, segur naiz berberak emanen didala berea. Sari hori, ordea, ene heriotza izanen da. Zinez diotsut. Beraz, gorde ezazu zeure urrea, hilobia ukanen baitut nik ordain. Bide horrek ez garamatza inora. Zertarako egin nahi duzu sakrifizio hori? «Nola ausartzen

zara –esanen dit erregeak– hitz horiek esatera? Zergatik ez diozu asmo hori burutik kendu, ala eroturik zaude? Nola utziko du armada zure buruzagitarik gabe? Etsaiak, hori jakin bezain laster, gure aurka etorriko dira.»

Avtandilek, ordea, negar malkotan erregutu zion, eta visirrak, bihotzean hunkiturik, azkenean amore eman zuen:

–Zure suak ni ere erretzen nau, eta ezin dezaket gehiago zure negarra jasan. Prest nauzu, beraz, zugatik hiltzeko. Argi zaitzala, hortaz, ene Eguzkiak.

Visirra, luzamendutan ibili gabe, jauregira joan zen berehala. Erregearen aurrera iritsi zenean, ordea, mutu gelditu zen, berri txarrak ematera ezin ausartuz. Erregeak, ordea, visirra hala ikusirik, galde egin zion:

–Zer gertatzen zaizu? Nondik heldu zaizu pena hori?

Hark erantzun zion:

–Bai, penaturik nago, jauna. Berri txarrak dakartzkizut eta horiengatik eskubidea daukazu ni hiltzeko. Enbaxadoreak kezkarik izan behar ez duen arren, ni, ordea, zure beldur naiz, o errege. Avtandilek askatasuna eskatzen dizu. Bizitza eta unibertsoa harentzat ez dira deus, zaldun tigrelarrudunaz kanpo. Jauna, barka nazazu honela mintzatzeagatik, baina haren negarren aurrean, ezin nezakeen besterik egin eta zuregana etorri naiz. Jaurti ezazu orain, otoi, ene kontra zure bidezko amorru guztia, jauna.

Visirraren hitzak aditurik, erregea zurbil gelditu zen, eta haren aurpegikerak inguruko guztiak ikaratu zituen. Oihu egin zuen:

–Zer diostak, ero horrek? Nola ausartu haiz niri horrela hitz egitera? Horrelako berriagatik hil beharko

hinduket, traidoretzat. Hire moduko burugabe batek ez dik merezi visir izatea! Ez al duk oraindik ikasi, saihestu behar dela norbere jaunak gogoko ez duen guztia? Miraz nagok nola ez ditudan belarriak galdu, halako gauzak aditzean. Avtandilen hitz ekarlea ez bahintz, oraintxe bertan lepoa motzaraziko niake, zin egiten diat neure Eguzkiagatik! Alde egik hemendik, zital ganorabako horrek!

Eta erregeak, aulki bat harturik, haren kontra jaurti zuen, baina ez zuen visirra jo, pareta baino.

–Nola ausartu haiz aloe horren alde egiteaz mintzatzera?

Eta visirraren aupegia malkoz busti zen erabat.

Visir zoritxarrekoa handik atera zen, hitzik esan gabe. Ausart eta harro etorria, nahasi eta txunditurik zihoan oraingoan. Maiz arerioak kalte txikiagoa egiten dio gizonari gizonak berak bere buruari egin ohi diona baino. Lur jota, zaldunagana itzuli zen, ezinago tristerik.

–Jauna, nola eskertuko didazu bete dudan lana? Hori egiteagatik neure burua galdu dut eta neure erruagatik zoritxarrean aurkitzen naiz.

Eta lehenago eskainiriko saria, txantxetan, eskatu zion, malkoak begietan. Eta zaldunak, serioski, erantzun zion:

–Prometatua ematen ez duenak gaizki tratatzen du bere babespekoa. Esana baita: diruak beti berea eragiten duela, bai eta infernuan ere.

Visirrak erregearen erantzura txarrak eta ateraldi zakarrak azaldu zizkion penaz, erabat etsirik. Zaldunak erantzun zion:

–Ez partitzea ezinezkoa zait, urretxindorra bera ere hiltzen baita, bere arrosa zimeldurik dakusanean. Hura gabe, etzateko edo esertzeko ere indarrik ez nik.

Nola borrokatuko dut, hortaz, egoera honetan neure etsaien aurka? Ez ote da hobe bakarrik egon, aldean adiskidea pozik ez izatea baino?

Alde egin baino lehen, visirrak bazkaltzera gonbidatu zuen zalduna, hari ohore handia eginez. Avtandil etxeratu zenean, Eguzkia ezkutatzen hasia zen.

Altzifre zirudien zaldunak urrezko ehun mila txanpon bildu zituen eta hirurehun xingola brokatu doratu –eskuzabala baitzen oso!–, hirurogei errubi preziatu, distira berezikoak, eta guztiokin gizon bat igorri zuen visirrarengana. Gizon honek honela esan zion, haren partez, visirrari: «Zer eskainiko dizut, zure mailakoa denik? Nola ordainduko dut nigatik jasan duzun zoritxarra? Bizi banaiz, zuregatik hilko naiz, zeure esklaboa izanen nauzu. Nire maitasuna, zure maitasuna bera da, pisu bera ukanen du.»

Avtandil Xermadinekin mintzo da

Ondoren, Eguzki itxurakoak Xermadinen-gana jo zuen:

–Rostevanek ez du ene alde egiteaz deus ere jakin nahi izan. Hark ez daki Tarielekin noraino nagoen loturik. Badira hiru bide adiskidetasuna erakusteko: adiskideagandik urruntzeko pena, hots, haren ondoan egoteko gogoa; ordainik espero gabe eskaintzen zaizkion opariak, eta, azkenik, ematen zaion laguntza, haren zoritxarra arintzeko.

–Honezkero, sobera mintzatu naiz eta labur izan nahi nuke. Ene bihotzerako erremedio bakarra ezkutuki


ihes egitea dateke. Orain elkarrekin gaudenez gero, entzun, otoi, ene erregu bizia eta bete itzazu zehatz-mehatz agintzen dizkizudan arau hauek.

–Dakizunez, duzun lehen betebeharra zeure errege-erreginak zerbitzatzea da. Haiei zeure adorea, osotasuna eta ontasuna erakutsi behar dizkiezu. Edukazu ene etxearen ardura ere, eta izan zaitez gure gerlarien buru. Kementsu izan eta gorde itzazu beti gure mugak. Porta zaitez zintzoekin ongi, baina traidoreak hil bitez! Natorenean, zerbitzuok sarituko dizkizut; segur egon. Jaunek ez baitute behin ere ahanzten harturiko mesede zintzoa.

Xermadinek aditu zionean, begiak malkotan blai jarri zitzaizkion. Berekin eramateko erregutu zion, laguntzaile.

–Ez –ihardetsi zion zaldunak–, zure negarrak gorabehera, ezin zaitzaket eraman. Bestela, nor utz neza-ke neure etxea zaintzen, zutaz besterik? Ni maitatzaile itsu banaiz, niri dagokit zelaietan alderrai eta bakarrik ibiltzea. Ez al ditu maitale batek landak odolezko lantuz busti behar? Urrun nagoen artean, gogora zaitez nitaz zintzoki.

–Hona hemen Rostevan erregearentzat uzten dudան testamentua. Haren gomendioan uzten zaitut, ene semea bazina bezala jagon zaitzala erregutuz. Hil banendi, zuk ez zenuke zeure burua hil behar; ez Satanen lanik egin. Negar egizu eta utzi zeure begiei malko uholdeak isurtzen.



Autandilek Rostevan erregeari eginiko testamentua

Honela izkiriatu zion:

O errege, aurkitu behar dudanaren bila noa, ezkutuan. Bere garretan suntsitzen nau eta ezin naiteke hura gabe bizi. Barka nazazu eta izan zaitez enekin, Jainkoa bezala, bihozbera. Segur naiz ez duzula ene azken erabaki hau gaitzetsiko. Gizon zintzoak ezin abandona dezake maite duen laguna. Utz iezadazu gogoratzen Platonek irakatsia: «Gezurrak eta zurikeriak hasieran gorputza hondatzen dute, eta gero arima ere bai.»

Gezurra gure gaitzen iturria dela ikusirik, ezin utz dezaket ene anaia baino maiteago dudana. Eta geure eginbeharra egiten ez badugu, zertarako balioko digu, azken buruan, filosofiak? Ikasi beharra daukagu, goitik datorkigun manua betetzeko. Ez al dakizu apostoluek zer izkiriatu zuten? «Maitasunak oso gora igoarazten gaitu¹⁶.»

Enekin haserre zauden arren, barka nazazu, obeditu ez badizut. Gatibu nengoela, ezin nezakeen zure agindurik bete. Alde egitea da erremedio bakarra, erretzen nauen sua iraungi dadin.

Ba al da ezer lotsagarriagorik borrokatik ihesi doan gizona baino? Zertan du koldarrak gehiago balio bere etxean artilea iruten duen emakumeak baino? Bide estuak edo malkarrak ezin dezakete herioa geldiaraz. Haren aurrean guztiok berdinak gara,

sendoak zein ahulak izan. Lurrak, azkenean, bere baitan oro bilduko gaitu, bai gazteak eta bai bizar urdinak ere. Bizitza zitala baino, hobe dugu heriotza loriatsua.

Agian kanpoan hilko naiz, alderrai, eta inor ez da nitaz negar egitera etorriko. Adiskideek ez didate aurpegia krobixetaz estaliko, baina segur naiz zure bihotz biguna ene zoritxarraz urrikalduko dela. Ondasun asko ditut, kontaezinak. Hil banendi, bana itzazu altxor guztiok behartsuen artean. Aske utz itzazu ene esklaboak oro, eta aberats bedi umezurtz deseredatua ene fortunaz, horrela guztiek bedeinka nazaten, ene ongi eginak eskertuz. Ondasun horiekin, mana ezazu egin daitezela zubiak eta umezurztegiak. Zure esku uzten dut, beraz, ene fortuna osoa.

Erreguz eskatzen dizut, o errege, Xermadinekin bihozbera izan zaitezela. Horren pena egunez egun haziz doa. Kontsola ezazu zeure ontasunaz eta ez ezazu permiti bere begietatik negarra gehiago isur dadin, odolez nahasia.

Hemen amaitzen da ene testamentua, neure eskuz izkiriatura. O nagusi neurea, utzi zaitut, bihotza ero, joana naiz. Ez nigatik sufri. Zaude zorionean, zure etsaiak ikaratzten.

Eta testamentua bukaturik, Xermadinen eskue-tan utzi zuen, esanez:

—Zoaz berau erregeari diskretuki eramatera. Inor ez baita zu baino egokiago zeregin honetarako.

Eta besarkatu ondoren, zaldunak, bihotzean hunkiturik alde egin zuen.

Rostevan erregeak Avtandilen ihesaren berri jakiten du

Egun horretan Rostevan erregeak ez zuen entzunaldirik eskaini bere jauregian. Goiz-goizean jai-
kia zen eta umore txarrarekin zegoen, hits eta penaturik,
ingurura su garrak jaurtika. Bat-batean, visirra etor zedi-
la agindu zuen. Berau beldurrez beterik agertu zitzaion.
Sartzen ikusi zuenean, Rostevanek honela esan zion:

—Ahantzia dut atzo kontatu zenidan guztia. Atsekabetu ninduzun, barnetik sumindu eta luzaro egon
naiz lasaitu ezinik. Horregatik tratatu zaitut hain gaizki,
ene visirra, hain zintzoa zaren arren. Ez dakit ongi
gazte horrek zer nahi duen, ez eta zerk inarrotsi ninduen
ere. Jakintsuek arrazoia dute: penak beti zoritxarra
sorrarazten du. Ez da inoiz egoera horretan ezer egin
behar. Eta, orain, esadazu berriro atzo kontatu zenidana.

Visirrak bezperan esaniko guztia errepikatu zio-
nean, erregeak laburki erantzun zion:

—Zu burugabea ez bazara, ni Levi judua¹⁷ nauzu.
Ez niri berriro horretaz mintzo, uko egin beharko nizuke
eta. Orain, zoaz eta ekarzu Avtandil hona.

Visirra Avtandilen bila joan zen, baina ez zuen
haren zerbitzariak besterik aurkitu, negarrez. Haren ihe-
saren berri jakinda, bere buruari honela esan zion:

—Gogoan dut oraindik atzokoa eta ezin naiteke
berriz jauregira itzul.

Ez zettorrela ikustean, erregeak haren bila igorri
zuen jendea, baina visirra ez zen gehiago agertzera
ausartu, Avtandil joana zelako. Orduan, Rostevanek
susmo txarra hartu zuen eta haren nahigabea handitu
egin zen:

–Orain badakit joana dela, bera, ehun gizon garaituko lituzkeena.

Burua makurturik, mingostasunak erabat betetzen zion bihotza. Hasperen egin ondoren, burua altxatu eta zerbitzari bati agindu zion visirra ekar ziezaiotela. Visirra ahalkez beterik iritsi zen. Erregeak galdetu zion:

–Ilundua al da Eguzkia, Ilargia bezala?

Eta visirrak nola alde egin zuen azaldu zion.

–Eguzkiak ez gaitu gehiago argitzen eta eguraldia, honezkero, ez da garbia.

Albiste txarra aditu zuenean, erregeak oihu ika-ragarria egin zuen, negar artean:

–Ai ene semea, ene begiok ez haute berriz ikusiko. Zergatik alde egin diguk, heure argia eramanez? Nola azal lezake ene mihiak hi ez ikustean sentitzen dudan bihozmin larria? Noiz ikusiko haut berriro etortzen, alai, ehizalditik bezala? Ez al dut hain ahots zoragarria berriz entzunen? Hi gabe, zer egingen dut neure trono eta jauregiarekin? Bazekiat, edonora joanik ere, ongi aterako haizela arazo guztietatik. Heure arku eta geziek, behintzat, janaria lortuko diate. Kontsolatuko al nau inoiz Jainkoak, bere ontasunean? Nork negar egingen du nigatik, hil nadinean, hi aurretik hila baldin bahaiz?

Berri ertuna laster hedatu zen eta hara jendetza ugari bildu zen. Gortelariak bizarra beren eskuekin tirarka erauzten zuten doluz, ziotela:

–Gaua datorkigu, Eguzkiak alde egin digu eta!

Erregeak agindu zuen:

–Jakizue bakarrik ala zaldunekin joana den.

Hartan zirela, Xermadin heldu zen, lotsaz eta ikaraz beterik. Eta erregeari testamentua eskaini zion, negarrez, bizitza galduko ote zuen beldur.

–Haren etxean aurkitua dut, jauna, haren eskuz egina. Ezkutuan joana da, lagunik gabe. Bizitza astuna zait. Bidezkoa litzateke, o errege, hilaraziko baninduzu!

Testamentua irakurri ondoren, guztiak lantuan egon ziren luzaro. Erregeak agindu zuen:

–Ene soldaduek beren soineko argiak erantzi behar dituzte. Otoitz dagitela Avtandilen alde alargunek, umezurtzek eta txiroek. Eska diezaiogun Jainkoari bidaia baketsua eman diezaiola.

Avtandil berriz ere Tarielengana doa

Orain zaldun honen historia kontatzera noa. Lantuz doa, bihotza pil-pilean, malkoak bere begietatik uhaitz lasterra bezala abiatuz. Kexaka, kandela bezala urtzen da eta beranduegi heltzeko kezka bere bidean erretzen du. Gaua etorri eta izarrak agertu direnean, haiei mintzo zaie, bere maitearekin konparatuz.

–Jainkoaren izenean, hiri diosnat, O Ilargi, maitale gaixo guztiei maitemina isurtzen dienen horri! Gaitz horiek pairatu ahal izateko erremediorik baldin badun, egin nik haren aurpegia, hirearen antzekoa, berriz ere ikus dezadan. Eta gauez pozik, egunez triste, beti egoten zen iluntsiaren esperoan.

Bere zaldi gainerik beti negarrez zihoan gure zalduna, oinazez asea, arrosa utzia zuelako. Egun askoren buruan, azkenean, haitzuloa atzementean, behingoz poztu zen, haren atera hurbilduz.

Asmatek agertzen ikusi zuenean, harengana abiatu zen pozarren eta ez zekien zer egin. Lurrera jauzi

eginez, neskatxa besarkatu zuen eta berehala honela galdetu zion:

–Non duzu zeure jauna?

Hark malkotan erantzun zion:

–Zu joatean, haitzulo honetaz asperturik, alde egin zuen eta harrezkero ez dut haren berririk izan.

Zaldunaren bihotza mindurik gelditu zen, lantza batek zulatu balu bezala, eta neskaxari honela mintzatu zitzaion:

–O ene arreba, ez luke horrela ibili behar. Bere zina hautsi nahi ote du, nik neureari eutsi diodanean? Egun tristeak bizi izan ditut harengandik urrun. Zergatik ahantzi da bera nitaz hain arin?

Neskatilak erantzun zion:

–Zure kexak bidezkoak dira, baina egia esatea nahi baduzu, ez pentsa lausengatu nahi zaitudala. Zinei eusteko ez al da, bada, bihotza eduki behar? Bihotzik gabe dabilenak, ordea, bere egunen amaiera besterik ez du nahi. Alde egin zuenean galde egin nion: «Eta Avtandil itzultzean, zer egingen dut?»

–Eta berak erantzun: «Bila nazala, hemen alferrik egonen naiz eta. Ez dut neure zina hautsiko eta inguru hauetatik ibiliko naiz. Hilik aurkitzen banau, ehorts nazala, harrigarri bailitzateke, oraingo bizimoduarekin nik luzaro irautea.» Ordutik ene Eguzkia mendien atzean gorde zen, eta handik hona haran berdeok ureztatzen ditut negarrekin. Herioa bera nitaz ahantzi da, halakoxe zoria nik.

–Kataiko herrian bada esaera bat, lauza batean izkiriatura: «Adiskidearen bila ez doana, haren etsai ageria da.» Tariel aurkitu nahi baduzu, zoaz eta bila ezazu bera, eta egizu egin behar duzuna.

Avtandilek Asmati honela esan zion:

—Arreba neurea, arrazoia duzu. Ez dut astirik hemen luzaroago egoteko. Haren bila noa, bai, eta aurkitzen ez badut, hil eginen naiz. Zoriak honela markatu banau, nola gaitzets nezake Jainkoaren nahia?

Eta hau esanik, lagunaren bila abiatu zen. Laster utzi zituen atzean harkaitzak, kanaberadia eta ibaia, eta lautada zabal batera heldu zen. Haizea zelaietan zehar ziztuka zebilen, errubi koloreko arrosa izoztuz.

Gelditu gabe, gogoeta sakonetan ibili zen hiru egunez, adiskide galduaz kezkatu. Ez zuen lorik eginen, bila beti, hari deika, oihu eginen. Kanaberadi ugarriak, baso eta zelaiak zeharkatu ondoren, azkenean atzera egin zuen, hitsik, hura aurkitu ezinean.

—Ene Jainkoa! —zioen—. Horrenbeste atsekabetu al zaituzte ene bekatuek, honelako zigorra eman diezadazu? O epaile goren horrek, entzun ene eskaria eta poz bihur ezazu ene oraingo pena hau!

Avtandilek Tariel konorte gabe aurkitzen du

Zalduna negarrez zihoan, bere buruarekin hizketan. Muino baten gainetik haran bat nabaritu zuen argi-ilunean. Han zaldi beltz bat antzeman zuen, bridarik gabe, kanaberen artean zutik, eta esan zuen: «Bera da, segur naiz, inolako zalantzarik ez.» Orduan Avtandil bat-batean poztu zen, lehengo pena atzean utzirik.

Tariel aurkitzean, ordea, egoera tamalgarrian zegoela ikusi zuen. Aurpegia galdua bezala zeukan, eta bazirudien hil hurren zegoela. Lepoa urraturik zeukan eta ileak mortxaka kenduak. Korderik gabe zetzan.

Aldamenean ezpata zuen, odoleztaturik. Ondoan lehoi bat zetzan, hilik. Beste aldean tigre eme bat zegoen, berberak akabatua. Zaldunak begiak itxirik zeuzkan, erabat joana bezala.

Adiskideak, zalditik jaitsi, haren eskua hartu eta bere izenaz deitu zuen. Haren ondoan eseri zen, iratzartu nahian:

–Ez al nauzu ezagutzen, zugatik alderrai ibili naizen hau?


Hark begiak ireki zituen, baina deus ikusi eta ulertu gabe. Avtandilek lagundu zion, begiak xukatu eta konortera itzularaziz. Eta, azkenean, adiskidea ezagutu egin zuen.

Tarielek esan zion:

–Ez zaitut engainatu, ez eta neure zina hautsi ere, adiskide. Bizirik aurkitu nauzunez gero, horrek garbi erakusten du neure hitzari eutsi diodala. Bego beraz. Hil arteraino, neure bihotza joko dut. Orain, otoi, ehortz nazazu, ni hemen patarien artean utzi gabe.

Besteak erantzun zion:

–Zer duzu, baina? Zergatik zeure buruari kalte egin nahi diozu horrela? Zein gizonek ez du inoiz maitasuna ezagutu eta ez da haren sutan erre? Zergatik harrapatu zaitu horrela Satanek? Zer dela eta ez diezu jaramonik egiten zuhurren esanei? Gizonak adoretzu izan behar du, eta ahalik eta gutxien negar egin. Zu, ordea, zelaietan zehar negarrez zabilta, basapiztien artean bizi zara, mundutik iheska, eta horrela ezin aurki dezakezu hilarazten zaituena. Zergatik bendatu behar duzu oso duzun burua eta zauri zaharra berriz ireki? Zer gertatu zaizu? Zergatik doakizu horrela arima bera? Ez al dakizu ezin dezakeela inork har arantza gabeko arrosarik?



—Anaia —erantzun zion Tarielek—, mihia ere ia ezin erabil dezaket. Indarrrik gabe nago, erorik, eta ez ditut zure hitzak ere aditzen. Orain heriotza hurbil dut eta zorionaren ordua iritsi zait. Adiskideak gara eta, mundu honetatik urrundu ondoren, bestean aurkituko dugu elkar. Zatoz, adiskide, ehorts nazazu, estal ezazu lurrez ene hilobia eta utz nazazu bakarrik. Alde egizu hemendik!

Avtandilek berriro hitz egin zion, hitz egokiak hautatuz:

—Hiltzen bazara, zertarako arituko gara alferreko hitzekin mintzatzen? Ez ezazu joka horrela, arren, ez zaitetz zeure buruaren etsaia izan! Nik ere zugatik utzia dut neure arrosa, azabatxezko betilez apainduriko kristala, eta iheska etorri naiz honaino zugana. Erregeak berak ere ezin geldiarazi izan nau bere aita hitz bigunekin. Eta zuk, ordea, orain ez nauzu entzun ere egin nahi. Nola nahi duzu, bada, pozik egon nadin? Ez nazazu horrela trista. Altxa eta igo zaitetz zaldi gainera. Zela gainean ikusten zaitudanean, kontsolatuko naiz, agian. Bestela, egin bedi zure borondatea, eta bakarrik utziko zaitut.

Bere zaldi gainera igotzeko eskatzen zion, ongi baitzekien, behin itzegotzen hasiz gero, haren pena ezeztuko zela, eta Tarielek bere azabatxea berreskuratuko zuela, bere begien sakontasuna.

Hark orduan erantzun zion:

—Ongi da, hurbil iezadazu, bada, zaldia.

Avtandilek igotzen lagundu zion, eta biak geldiro zamalkatzen hasi ziren. Landetan zehar gidatu zuen, hitz ederrekin mintzatzen zitzaion artean. Tarielek ere erantzuten zion, bere koralezko ezpain gorriak irekiz. Hura entzutean, zaharrak ere gazteturik senti zitezkeen. Haren pena, pixkanaka, txikituz joan zen.

Hizketaldi hartan Avtandilek honela esan zion:

–Galdetu nahi nizuke noraino estimatzen duzun maite duzunak eman zizun besokoa.

Tarielek erantzun zion:

–Nola esanen nizuke? Besoko hau ene bizitza osoa da, ene hasperenen iturria. Mundu guztia, zuhaitzak eta lur osoa baino maiteagoa dut.

Orduan Avtandilek erantzun zion:

–Horixe da nahi nuen erantzuna. Halere, hobe zenuke besoko hori galtzea Asmat galtzea baino. Urrezko besoko hori, zilargile batek zizelatua, adimenik gabea da, mutua, eta ez du bizirik. Halere, ez duzu Asmat behar bezala estimatzen, haren ondoan bizi izan zaren arren. Berak hazi eta zaindu zuen zure maitea, eta zuon bion arteko lotura duzu. Eta halere, ez duzu bera ikusi nahi. Portaera hori ez da zuzena.

Tarielek erantzun zion:

–Diostazuna egia hutsa da. Asmat urrikalgarria da. Uste nuen ez nintzela gehiago biziko, baina zuk ene suak itzaltzen jakin duzu. Eta bizirik nagoenez, goazen bera ikustera.

Eta zaldun biak, beren hortzetako perla zuriak ezpainetako arrosa irekien artean erakutsiz, harantz abiatu ziren. Izan ere, hizketa gozoak sugea bera xarma dezake, bere zulo barruan ere.

Avtandilek esan zion:

–Zugatik bihotza, arima eta izpiritua bera emanen nituzke. Baina otoi, ez zaitez berriz horrelakoa izan eta ez ireki berriro zauri zaharra. Zer balio digu ikasteak, gero jakintsuei jaramonik egiten ez badiegu?¹⁸ Zertarako nahi dugu altxor estalia, gero hartaz baliatzen ez bagara? Alferrik duzu nahigabea murgiltzea, ez baitizu penaturik egoteak bat ere onik egingen. Ez al dakizu

hemen ez dela inor hiltzen erabakiriko ordua baino lehen? Arrosak ere, Eguzkiaren zain, hiru egunez dirau zimeltzeke. Eta zeuk ere, Jainkoak hala nahi badu, garaipena, arrakasta eta zoriona izanen dituzu saritzat.

Lagunak erantzun zion:

–Aholku horiek enetzat mundu osoak baino gehiago balio dute. Gizon zentzudunak bere maisua maite du, zentzugabeak, aldiz, maisuaren kontseiluei kasurik ez.

Tarielek leñoia eta tigrea nola hil zituen kontatzen du

Bidean zihoazela, Tarielek honela esan zion:

–Xeheki kontatuko dizut gertatu zitzaidana. Itxaroten nengoen, baina haitzuloaren bakartasunean gogaiturik, hura utzi eta zaldiarekin zelaietan zehar itzegotzera abiatu nintzen. Muino honen gainera igo nintzen, kanaberadi garaiak zeharkatuz. Hemendik tigreme bat ikusi nuen, lehoi baten aurretik zebilela. Maitaleak zirela pentsatu nuen eta atsegin nuen biei begiratzea, baina biziki harritu ninduen elkarrekin zera-bilten portaerak.

–Hasieran jolasean aritu ziren, baina gero elkarri gogor eraso zioten. Atzaparka jardun zuten eta, bat-batean, tigremea beldurtzen hasi zen, atzeraka eginez. Lehoia, baina, atzetik zerraion, amorru bizitan. Nik portaera hori gaitzetsi eta esan nion: «Burua galdu duk ala? Nola ausartzen haiz bera horrela iraintzera, hain adoretsua izanik?» Eta neure lantzarekin zeharkatu nuen. Gero, ez-pataz buruan jo eta hil nuen, bere oinazeetatik libratuz.

—Ezpata alde batera bota eta tigremeagana joan nintzen. Besarkatu nahi nuen, erretzen nauenaren maitasunaz. Hark orro egin zuen eta bere erpeekin zauri odoltsu hauek egin zizkidan. Eta ene bihotzari ezin eutsiz, hil egin behar izan nuen. Hura lasaitu nahi nuen, baina piztia ez zen trunkiltzen eta, neure amorrazioan bera hartu eta lurreratu nuen, akabatu arte. Gero, neure maitearekin izaniko eztabaidaz oroitzuz, negarretan lehertu nintzen. Hauxe da gertatu zaidana, anaia. Eta harritu al zaitu ene egoerak, hilik egon beharko nuenean?

Avtandilek kotsolatu zuen:

—Pazientzia eduki behar duzu, eta zaude bizirik. Jainkoak zure maitea zainduko du, orain arte gaitza besterik etorri ez zaizun arren. Goikoak ez zaituzte zuek banatu nahi, lehen elkartu zintuzten eta. Zoritxarrak maitatzailea jotzen du eta haren izatea tristatzen, baina irauten dakienak poztasuna ezagutuko du. Maitasuna mingostasunez betea da, heriotzaren antzera. Amodioak gizon ikasiak zoratzen ditu, ezjakinak, ordea, jakintsu egiten.

Tariel eta Avtandil haitzulora itzultzten dira, Asmatengana

Beren bideari jarraikiz, haitzuloraino heldu ziren. Zer nolako poza, Asmatena, etortzen ikusi zituenen! Elkar besarkatu zuten, alegeraki. O Jainkoa, giza mihiak ezin lezake haien alaitasuna adieraz!

Gauera arte solasean aritu ziren lehoi biak Asmaten konpainian. Hurrengo egunean ere hantxe egon ziren luzaro, mintzatzen eta gogoeta egiten, maite galduaren

bila eta haren zerbitzuan nola jokatu beharko zuten asmatu ezinik. Azkenean, Avtandilek hau proposatu zuen:

—Hara, zu, zaude non nahi duzun! Nik gauza bakarra eskatzen dizut, hemendik urtebetegarrenera, nire bila haitzulo honetara etor zaitezela. Nik, ordurako, toki guztietako berriak jasoko ditut. Arrosak berriz lora daitezenean helduko naiz. Horixe izanen duzu ene itzuleraren seinale. Ordurako ez banentor, jakizu hila naizela. Nigatik nahi adina negar egin dezakezu. Ezin dizut esan zaldi gainean ala itsasontzian hilko ote naizen. Zer dakit nik Jainkoak enetzat zer prestatu duen edo zeruak zer eskainiko didan?

Tarielek erantzun zion:

—Alferrik nekaraziko zaitut neure hitzekin, ez bainauzu entzun ere nahi izanen; bistan da. Adiskideak jarraiki nahi ez badizu, jarraiki zuk berari. Azken buruan, misterioak oro egun argitan azaltzen dira. Hortaz, diostazuna eginen dut. Ez nuke nahi, ordea, bitartean ni zu gabe hiltzea.

Promes hori eginik, zaldi gainean ehizan irten ziren, azken aldiz. Itzuli zirenean, Asmatek harrapatu zutena prestatu zien, jateko. Biharamunean zelairatu ziren, neskatxaren baimena hartu ondoren. Asmat, Avtandil eta Tariel, hirurak negarrez aritu ziren, eta mal-koek begitarteak estaltzen zizkieten, bandera gorrien antzera. Lehoi biek, beren pena sakonetan, basapiztiak ziruditen.

Asmat agurtu ondoren, egun horretan bi zaldu-nak elkarrekin ibili ziren. Itsasoraino heldu eta han zati baterako pausatu ziren. Tristerik zeuden, urrundu behar-rragatik. Avtandilek Tarieli esan zion:

—Negarren uhinak agortu beharra dago. Nola utzi zenuen Pridon, zaldi beltz hori eman zizuna? Agian

hark honezkero zure Eguzkiaren berri izan dezake. Berarengana joanen naiz, bada; erakustazu bidea!

Tarielek nondik joan azaldu zion:

–Zoaz ekialderantz, itsasertzetik, eta ikusten bazu, mintza zakizkio nitaz, ene berri jakin nahiko du eta.

Basahuntz bat hil eta su handia egin zuten, bera erretzeko. Edan eta jan zuten, nahigabeak uzten zien neurrian, eta zuhaitz baten pean eman zuten gaua. Hurrengo egunean, elkar besarkatu zuten. Edozeinek entzun zitzakeen haien bihotzak urtzen! Eta penaturik zein bere bidetik urrundu ziren.

Autandil Pridonengana abiatzen da

Luzaz ibili zen zalduna. Bidean haren samintasunezko aieneak zeruraino heltzen ziren, eta patariak edaten zituzten hark isuririko malkoak. Tinatin zuen gogoan, eta haren gabeziak sufriarazten zuen. Eguzkiari begira honela ziotson:

–O Ekia, Tinatin iruditzen hatzait. Biok antzekoak zarete, mendi eta haranen argitzaile. Neguan aski dun hilabetean Eguzkirik ez izatea, izotzak jo gaitzan. Ai ene! Bi Eguzki galdu ondoren, nola ez naiz ilunik egonen?

Eta zeruko argizagiei hots egiten zien:

–O Zual¹⁹, erants iezaioak ene lantuari hirea eta esaioak ene maiteari nitaz ez ahanzteko. O Muxtar²⁰, epaile zuzenori, juzga nazak eta ez zigorrik eman arrazoirik gabe! Hator, o Marikh²¹, eta zula nazak lantzarekin. Azal iezaioak maiteari hargatik zenbat penatzen dudan!

–Hatorkit, Aspiroz²², laguntzera. Hark bere garretan erre bainau, koralezko ezpainetan perlazko hortzak dituenak. Hik neskak dohainez hornitzen ditun eta heure edertasuna eskaintzen, baina ene antzeko zoritxarrekoak alde batera uzten eta zoratu egiten ditun.

–Hel hakim, Otarid²³, hire zoria eta nirea antzekoak dituk eta. Eguzkiak bere inguruan narabilek, sutara jaurtiz. Ene oinazeak azaltzeko, har ezak negarrezko aintzira hau tintatzat eta lumatzat, neure gorputza eskaintzen diat, kanabera bezain lerdena. Negar egin nigatik, o Ilargi, hi bezala, ni ere argaltzen eta loditzen bainaiz, Eguzkiaren arabera. Esaion hargatik kordea galtzen dudala, eta ez ezan bera zokoan utz!

Zalduna entzutean, basapiztiak hari so gelditzen ziren, eta harriak, bera aditzeko, kostaldeko urpetik irtezen ziren. Oro hari adi-adi zeuden, haren lantuarekin negarrez. Ahapaldi tristeak kantatzen zituen eta malkoak uholdeka isurtzen.

Hirurogeita hamar egunez itsasbazterretik zamalkatu ondoren, urrunean marinel batzuk nabaritu zituen uhinen gainean, lehorrerantz zetozela. Haienganaturik, honela galdetu zien:

–Nortzuk zareten jakin nahi nuke eta erresuma hau norena den.

Eta erantzun zioten:

–O gizon miresgarria, atseginez erantzunen dizugu. Hau turkoen muga da eta horrantzago Pridonen erreinua hasten da. Nuradin-Pridon gu bizi garen herriko erregea da. Zaldun eskuzabala da, boteretsua, Eguzkia bezain distiratsua eta inork ezin dezake bera gaindi.

Zaldunak esan zien:

–Anaiok, jende jatorra zarete. Zuen erregearen bila nentorren, bada; erakustazue, otoi, bidea.

01103644
013-111036



Itsasotik jalgita, marinelek argitu zioten:

–Hara, bide honek Mulgazanzarrera eramaneen zaitu. Hantxe ikusiko duzu Pridon, ezpata zorrotzekoa, gezia beti prest duena. Hara hamar egunetan iritsiko zara, altzifre taiuko eta errubi koloreko hori. Zergatik erre gaituzu, arrotzak izanik, zeure garretan?

–Harritzen nau nik zuen bihotzak horrela hunkitzeak –esan zien Avtandilek–, baina zergatik atsegin dituzue neguko arrosa zurbilak?

Eta eskerrak emanda, zalduna bideari jarraiki zitzaion.

Mulgazanzarrera hurbildu nahirik, sutsuki abiatu zen zaldi gainean. Egun batez gizon batzuk ikusi zituen landa batean, itxuraz ehiztariak. Zelaia kordoi batean inguratzen zuten eta beren gezien eraginez erdiko ehi-ziak galburu ebakiak bezala erortzen ziren. Bidean gizon bat kausitu eta galde egin zion:

–Zer da zaratots hori eta zer darabilte hor?


Besteak erantzun:

–Pridon erregeak, Mulgazanzarreko nagusiak, ehizan dihardu eta lautada osoa ingurarazi du, ihiak eta kanaberak hazten diren lekua.

Ehiztariengana hurrandu zen, dotoretasun handiz. Nik ez nekike azaltzen zaldun honen edertasuna! Atzean uzten zituenak izozturik gelditzen ziren eta hura zekusatenak, aldiz, kiskaltzen zituen. Haren jasak, kanabera malguko plantadunak, edonor zoratzen zuen.

Bat-batean, ehiztarien gainetik, nondik etorria ez dakidala, arrano bat agertu zen. Avtandilek hari begiratu eta, arku hartuta, berehala eraitsi zuen. Lurrera jauzi eginik hegoak ebaki zizkion. Hura ikustean arkulariak gelditu eta beren kordoa puskaturik, inguratu egin zuten. Inor ez zen ausartzen, ordea, «Nor zara ba?» galdetzera.

047955040
80842110933



Pridon erregea muino baten gainean zegoen, berrogei gizon bikainen konpainian. Avtandil haiengana joan zen, atzetik ehiztariak zerraizkiolarik. Pridonek, haserre, galdetzen zuen:

–Zer egiten dute baina? –eta bere esklaboa igorri zuen–. Hoa eta jakik zertan ari diren eta zergatik apurtu duten kordoia.

Jopua behingoan haiengana hurbildu eta, kanabera taiukoa ikusi zuenean, harengan begiak jarri bezain laster ahantzi zuen zertara joana zen.

Avtandilek, baina, erregea gizon hori beragana bidali zuela ulertu zuen:

–Eramaiok heure jaunari ene mezu hau. Esaiok arrotza naizela, bakartia, urrundik heldua, Tarielen zinpeko adiskidea, eta hark igorri nauela zuen erregea ikustera.

Esklaboak Pridoni berria eman zion.

–Eguzkia ikusi dut, jauna, egun argitsua bezalako baita. Esan dit Tarielen lagun mina dela eta zuregana datorrela, errege boteretsu horrengana.

Tariel izena aditzean, Pridon berehala poztu zen eta, muinotik jaitsita, zaldunagana hurreratu zen, oihuz:

–Zer da hau, egiazko Eguzkia ez bada? Haren edertasunak jopuak esana gainditzen zuen eta. Pridonek zalduna miretsi zuen, eta zaldunak Pridon bera. Ikusi zuten guztiek Eguzkia gutxiesten zuten. Hil nazakezu horien antzeko ezer inon aurkituz gero.

Elkar agurtu ondoren, zaldi gainera igo eta Pridonen jauregira joan ziren, ehiza bertan behera utzirik. Osteak nonahitik zetozen Avtandil hobeki ikusteko:

–Nork sortu ote zuen horrelako izakia? –zioten.

Bidean zaldunak Pridoni honela esan zion:

–Jakin nahi duzuna dakit nik, eta nor naizen eta zein herritatik natorren esanen dizut. Tariel nola ezagutu dudan eta zergatik anaia deitzen diodan.

Eta bere historia osoa kontatu zion.

–Zutaz hitz egin zidan, Pridon, eta zurekiko anai-tasunaz. Orain aurkitu zaitut, laudorio guztiak merezi dituzun hori. Aholku bila natorkizu: non bilatu behar dut zeruko Eguzki hori, miretsi duenaren zoriona, ikusi ez duenaren irrika?

Jauregira helduta, noble, gortelari eta zerbitzari guztiek bi lerrotan ordenaturik agurtu zituzten. Biek elkarrekin, eskaintzen zizkieten losintxak gainditzen zituzten. Kristala eta errubia apaindurik agertzen ziren, esmaltez eta azabatxez. Han bazkari eder batekin ospatu zuten Avtandilen etorrera, inoiz amaitzen ez ziren jaki eta edariekin. Balio handiko soineko ederrak ekarri zizkieten, oparitan, eta gerriko prezagaitz bat ere bai.

Zaldunak, erregearen abegikortasuna ez mintze-agatik, jauregian zenbait egunetan egon behar izan zuen. Pridonekin ehizan ateratzen zen egunero, era guztietako patariak hilez, eta bere tiroen trebetasunaz haren arkulariak lotsarazten zituen.

Halere, azkenean, joaten uzteko erregutu zion:

–Jauna, zu utzi beharra heriotza bezain gogorra zait, baina zoritxarrez ez dut astirik neure adiskidearen maitearen bila nabilelako. Eraman nazazu, otoi, itsasaldera, zerorrek Eguzki hori ikusi zenuen lekura.

Pridonek esan zion:

–Ez naiz zeure bidaiaren aurka mintzatuko. Ongiegi dakit beste lantza batek zulatzen zaituela eta, hortaz, ez duzula hemen gelditzeko betarik. Zoaz, bada, eta Jainkoak gida ditzala zure urratsak, zure etsaiak oro suntsituz. Zaila izanen da, edonola ere, ni zu gabe egotea.

Halere, ez zaizu komeni bakarrik joatea. Har itzazu, laguntzaile, ene zaldizko batzuk, zaldi hau, arma batzuk eta mando hori, bestela gehiegi neka zintezke.

Pridonek lau zerbitzari leial ekarrarazi zituen eta armadura ederra ere eman zion, behar ziren armekin hornitua. Gainera, hirurogei libra urre eskuratu zizkion, zaldi eder bat, tresnatua, eta mando sendo bat ere bai, hornizioak garraia zitzan. Gainera, erregeak berak lagundu zituen itsasoraino, neska gatibuaren historia gogoraraziz:

–Bi jopu beltzek zuten arrosa hura, hortz zuriduna. Askatu nahi nuen, baina ihes egin zidaten eta txalupa hari, urrunean, txori itxura hartzen nion.

Batak bestea besarkatu zuen, hunkiturik, biak egiazko anaien modura. Pridon gelditu zen eta, Avtandil joaten ikustean, bihotza penaz hautsi zitzaion.

Avtandil Nestan-Daredjanen bila abiatu eta karabanak aurkitzen ditu

Tlargia bere betean zirudiela zihoan zalduna, bere buruarekin hizketan. Pozaldi bakarra Tinatinen oroitzapenean zeukan, hark gordetzen baitzuen zauriak sendatzen zizkion gantzua. Kostaldetik zebilen, eta lau zerbitzariak zerrazikion atzetik, zintzo-zintzo. Aurkitzen zituen bidaiari guztiei Tarielen Eguzkiaren berri galdeztzen zien. Eta hartan-horretan ehun egunez aritu zen, ibili eta ibili.

Behin, mendixka baten gainera igota, gamelu zamatu batzuk antzeman zituen. Haien karabana amaiga-

bea itsasbazterrean hedatzen zen. Merkatariak hantxe zeuden bildurik, itxura tristean, pentsakor. Zaldunak agur egin zien eta haiek, adeitsu, kortesia itzuli zioten. Karabana burua Usam zen, gizon zuhurra, eta Avtandilengana hurbildu zen:

–O Eguzki ederra, bizitza eta esperantza gurea, jaits zaitez zalditik, gertatu zaiguna konta diezazugun.

Avtandilek hala egin zuen. Orduan merkatariak esan zioten.

–Bagdad-ekoak gaituzu eta Mahometen legeari jarraikiz, ez dugu ardorik edaten. Salerosleak gara eta itsasoetako erregearen hirira joateko asmoz geunden. Zeta fin ugari dakargu, eta ez ehun latz mesprezagarriarik. Duela gutxi, itsasbazterrean gizagaixo bat aurkitu genuen, konorterik gabe. Bera sorotsi genuen eta, bere senera etorrita, nor zen galdetu genionean, honela erantzun zigun: «Ez zaitezte itsasoan sar, ni hortik bizirik ozta-ozta atera naiz eta.»

–Eta berari gertaturikoa kontatu zigun: «Gu Egiptotik gentozen, gure karabana eta zaintzaile batzuekin. Itsasontzian zeta karga ederra genekarren, baina bidean itsaslapurrek eraso eta dena galdu genuen. Eta eskerrak bizirik atera naizen!»

Eta Avtandili azaldu zioten:

–Eguzki eta lehoi hori, horrexegatik gaude hemen. Itsasoratzeko beldur gara, den-dena gal dezakegu eta. Itsasoz joanda, guri ere eraso egin diezagukete, eta lehorretik ez daukagu aurrera egiterik.

Zaldunak erantzun zien:

–Guk ezin dezakegu deus egin han goiko zeruetan erabaki denaren aurka, baina nik zuen ardura hartzen dut eta zuoi esetsi nahi dizuenak ene ezpata gorritz tintuko du.

Karabanako gizonak pozkari handiz honela esan zioten:

–Gizon hau ez da gu bezalakoa, ez baita ezeren beldur. Zaldun eta noble izan behar du. Goazen, bada, berarekin eta lasai ditzagun geure bihotzak –eta itsasontzia kargatu zuten.

Aro ona izanik, itsasora abiatu ziren, Avtandil gidari zutela. Handik laster baina, piraten ontzia agertu zen, bandera ikaragarriarekin, eta karabanako gizonak izu laborrian oihuka hasi ziren, lapurrak asko ziren eta. Zaldunak, ordea, honela hitz egin zien:

–Ez beldurrik izan, guztiak hilko ditut nik, Jainkoa lagun. Merkatoriok, zuek ez zarete gerlariak eta ez dakizue borrokatzen. Hortaz, ezkuta zaitezte, geziek zauriturik geldo ez zaitezten. Neuk eginen diet aurre, neure lehoi besoarekin eta, zinez diotsuet, gaur haien odola ikusiko duzue.

Avtandilek tigre keinuz armadura jantzi zuen, eta eskuan, ezpatarekin batera, burdinazko matxuka pisutsua, itsasontziaren brankan jarri zen, bihotza adoz betetik. Piratek habe zorrotz bat zekarten, muturrean burdinazko punta zuena, baina zaldunak kolpe batez erraz hautsi zuen. Ontziek elkar jo zutenean, bera haienera sartu eta indar ikaragarriekin ezker-eskuin joka hasi zen.

Etsaiak bere ingurura erortzen hasi ziren. Ahuntzak balira bezala erhotzen zituen, batzuk ontziaren kontra jaurtiz, besteak itsasora bidaliz. Bizirik gelditzen zirenak gorpuen atzean ezkututzen ziren, izaturik. Garaile irtenik, besteek, otoi, urrikaltzeko eskatzen zioten. Ez zituen galtzaileak sarraskitu, baina gatibu hartu zituen. Arrazoa zuen apostoluak zioenean: «Beldurrak maitasuna sorrarazten du.»

Ontzia aztertutik, han piraten altxor ugariak aurkitu zituen eta, itsasontzi biak elkarrekin amarratuz,

karabanakoei etortzeko esan zien. Hura guztia ikusi zuenean, Usam zalduna laudatzen hasi zen, kantuz:

–Eskerrak zuri, Jauna. Zure Eguzkiak bere errainuak isuri dizkigu, gure lehengo gau iluna orain egun bilakaturik.

Eta zaldunagana hurbildurik eskuak, aurpegia eta oinak musukatzen zizkioten, mirespenez.

–Guztiok salbatu gaituzu zori astun eta beltzetik.

Zaldunak ihardetsi zien eskerrak Jainkoari emateko, bera baita Sortzaile orojakile eta Ahalguztiduna, eta hura gabe berak ezingo zukeela deus egin. Eta itsaslapurren ontzia oparizat eman zien, aberastasun haietako askorekin batera. Merkatariek, pozarren, hara sartu ziren eta, ondasun haiek guztiak beren itsasontzira aldaturik, piratena hautsi eta erre egin zuten.

Usamek Avtandili gainerako merkatarien esker oneko hitzak esan zizkion, borrokalari onak ez izateagatik lotsa zirela aitortuz eta haren menpean gelditzen zirela, betiko obligaturik. Eta otoi, haiengadik nahi zuena eska zezala erregutu zioten. Zaldunak, ordea, ez zuela ondasunik ez oparirik bat ere gura esan zien, gauza bakar bat izan ezik.

–Hemendik aurrera ez esan gehiago zeuen jauna nauzuela eta ez inori aipa zalduna naizenik ere. Esazue karabana honen burua naizela eta zuen antzeko arropekin ibiliko naiz. Hori da zuen kontzientzia eta anaitasunetik eskatzen dudana guztia.

Horrek biziki poztu zituen karabanako merkataria eta promes egin zioten bete-betean halaxe konplutuko zutela.

Eta beren bideari jarraiki zitzaizkion, haizea poparean zutela. Guztiak miresten zuten Avtandil, eta behin eta berriro laudorioak egiten zizkioten. Gainera,

oparizat, perla sorta ederra eskaini zioten, haren hortzen kolorekoa.

Avtandil Gulanxarera heltzen da

*A*vtandilek itsasoa zeharkatu ondoan, azke-
nean hiri bat ikusi zuen, lorategi ugariz inguratua. Dena
lili zoragarri eta nabarrez beterik zegoen eta zaila litza-
teke horren edertasuna azaltzea. Ontzia hiru kablerekin
amarratu zuten lorategi haien ondoan. Berehala zamala-
ri batzuk alokatu zituzten drakma batzutan, karga itsa-
sontzitik lehorrera zezaten. Zalduna, merkataria gisa
jantzirik, aulki baten gainean eseri zen, haien burua
balitz bezala.

Halako batean, ingurune haietako lorezaina
agertu zen. Gizon hark Avtandilen planta harrigarria
miretsi zuen. Zaldunak, hari gizon zintzo iritziz, honela
galdetu zion:

—Nor zara eta nola deitzen da herri honetako
erregea? Konta iezadazu guztia, otoi. Zein da hemen
oihalik garestiena eta zein, aldiz, merkeena?

Lorezainak ihardetsi zion:

—Zure aurpegia Eguzkia begitantzen zait, jauna.
Dena kontatuko dizut, bat ere gezurrik esan gabe. Hau
itsasoetako erresuma da, eta bera inguratzeko hamar
hilabete behar dira. Hiriari Gulanxaro²⁴ deritzo, eta mila
gauza bitxi dauzka. Hona heltzen diren itsasontziek
beren altxorak urrundik ohi dakartzate. Gure erregea
Melik Surkhava da eta aberastasunaren gainean agin-
tzen du.

–Gure herrira datorren gizona, zaharra bada, gaztetu egiten da, hemen ongi pasatzeko, alaitzeko, edateko, jaietan eta kantuz etengabeki jarduteko aukera baita. Uda eta negu, mila lore ditugu, kolore banakoak. Ezagutzen gaituztenek gure inbidia dute, eta jelsiaz ditugu etsaiak. Merkatari asko datozkigu eta guztiek tratu onak egiten dituzte, pobreek zein aberatsek. Ni Usen-en, bertoko merkatarien buru nagusiaren lorezaina nauzu. Hemengo lorategi hau berarena da, eta kortesiaz horrexeri erakutsi behar dizkiozue, lehenik, zeuen altxorrik ederrenak.

–Merkatari guztiek opari onak egiten dizkiote eta dakarten guztia haren begien aurrean ipintzen. Hark hoberena erregearentzat bereizten du, eta merkatarietara salgaia ongi ordaintzen die berehala. Ondoren, baimena ematen die, nahi duten guztia sal dezaten. Zuen gisako jendeei harrera egitea haren betebeharrak nagusia da. Ostalariei non jarri behar zaituztetan esaten die laster. Ordea, une honetan bera ez da hirian eta, halere, zuek merezi duzuen bezala hartu beharra dago.

–Baina zorionez, Fatman dago, Usenen emaztea. Etxeko andre atsegina da, eta bere abegi ona eskainiko dizue. Zuen etorreraren berri emanen diot eta berehala gonbidatuko zaituzte.

Avtandilek esan zion:

–Zoaz, bada, eta egizu nahi duzun bezala.

Lorzaina lasterka abiatu zen, izerdiarekin bularra bustiz, eta bere ugazabaren andreari heldurikoen berri eman zion.

Fatman-Khatunak, oso pozik, haiengana hamar esklabo igorri eta dena prestatu zuen karabaniari ongi etorria egiteko. Bere etxera iritsi zenean, Usenen emazteak alaitasunez agurtu zuen zalduna eta etxera sartzeko eskatu zion.

Fatman gazte-gaztea izan ez arren, aski polita zen oraindik. Beltzarana zen, alaia, aurpegi betekoa, kantu eta musikazalea, eta jaialdiak hagitz zituen gogoko. Harribitxi baliotsuak zeuzkan eta buru apaingarri ugari ere bai. Gauean zaldunari afari bikaina eskaini zion, eta Avtandilek, eskertzeko, opari eder batzuk eman zizkion, andreari hagitz gustatu zitzaizkionak. Jaialdia-
ren ondoren, zalduna atsedean hartzera joan zen.

Hurrengo egunean, salgaiak erakutsi zizkion, bikainenak erregearentzat hauta zitzen. Horiek behar bezala ordaindurik, merkatariei beren oihalak eta, saltzera joan zitezela agindu zien. Avtandilek, merkatarigisa jantzirik, batzuetan Fatman gonbidatzen zuen, eta beste batzuetan andreak egiten zion gonbit berari. Elkarrekin zeudela, solasean aritzen ziren, hizketa egokiaz. Baina zalduna handik partitzean, andrea hil egiten zen, Vis gabe Ramin hiltzen zen bezala⁴.

Fatman Avtandilez maitemintzen da

Tratuarekin, maitasunaren garra piztu zuen Fatman-Khatunarengan Avtandilek. Hura ezkutatu nahi baina ezin, eta suak bezala erretzen zuen. Eta zer egin ez zekiela, haren begiei euria zerien. Beldur zen, bere amodioa aitortuz gero, zaldunak, haserrez, alde eginen ote zion. Baina isilik egonez ere, ezin zezakeen oinaze hura luzaro paira. Eta, azkenean, harekin hitz egitera joatea erabaki zuen.

Horretarako, Fatmanek maitasunezko gutuna izkiriatu zion, hunkigarria zinez, bere sentimenduak eta mingostasuna aitortuz. Gutun hark irakur zezatenen

bihotzak zirrarez inarrotsi beharko zituen, ongi gordezko gutuna, haizeari eramaten utzi behar ez zitzaiona.

O Eguzki, Jainkoak Ekiaren irudiko sortu nahi izan zintuen eta. Zeure sugarrekin zeure inguruko gauza guztiak kiskaltzen dituzu. Planetak berak harrotzen dira zuri begira egoteaz. Zu zakuskiena amoros gelditzen da, konortea galdurik. O Arrosa, zergatik urretxindorrak ez du zure edertasuna kantatzen? Loreak iharrarazten baititu zure edertasunak, ni erretzen nauen bezala. Zure errainuak niregana beranduegi iritsiz gero, maitasunak ezereztuko nau. Jainkoak daki zenbat kostatzen zaidan zuri honetaz mintzatzea, baina ene bihotzak ezin dezake luzarago paira zure betileen belztasun hori. Laguntzen ez banauzu, zentzua galduko dut, erabat. Zure erantzunaren zain nago, hiltzen utziko nauzun ala ene otoitzari kasu eginen diozun jakin gabe.

Hitzok izkiriatu zituen Fatmanek eta zaldunari helarazi zizkion. Avtandilek arreba edo senide batenak balira bezala irakurri zituen. Esan zuen: «Horrek ez daki ene bihotzean zer dagoen eta honezkero badudala beste maite bat. Eta nola sal nezake nik bera, Tinatin, Fatmanekin alderatuz? Halere, emakume horrek, hemen bizi izanda, jende asko ikusi eta tratatzen du, eta bidaiariengandik anitz berri jakin ditzake. Hari jokoa eginez gero, nik ere gauza asko jakin ditzaket. Maite duenari loturik, eraztuna kateari bezala, emakumeak, lotsa galdurik, dakien guztia esanen du eta sekretu guztiak azaldu.»

Beraz, honela ihardetsi zion: «Zure eskutitza irakurri dut, bidali didazun losintxarekin. Aurrea hartu didazu, baina ni ere suak erretzen nau, eta zu baino gehiago. Zuk gura duzu elkarrekin egon gaitezen eta

nik ere bai. Bidezkoa da, beraz, biok hala nahi dugunez gero.»

Zein pozik gelditu zen Fatman gutun hori jasotzean! Berehala erantzun zion: «Zuregatik isuri ditudan malkoak ongi enplegatuak izan dira. Gaur bakarrik egonen naiz, zatoz enegana gautu bezain laster!» Eta Avtandil, Fatmanen gutuna irakurrita, haraxe abiatu zen arratsean. Bidean baina, haren jopu bat bidera irten zitzaien, bestelako mezua ematera. «Ez etorri niregana gau honetan, ezin errezibi zaitzaketa!»

Zalduna iraindurik sentitu zen eta, mezu hura gorabehera, harengana joatea erabaki zuen. Etxera sartzean Fatman bakarrik ikusi zuen, eserita, hunkiturik. Bera ere haren ondoan jarri, andrea besarkatu eta gozoro mintzatzen hasi ziren. Bat-batean, atarian gizon gazte bat agertu zen. Aldamenean esklabo bat zeukan, ezkutu eta ezpataz armaturik, Avtandil ikustean beldurtu zen, bideari malkartsu iritiz.

Hura ikustean Fatman guztiz izutu zen. Bestalde, gizon gazteak, harriturik ikusi zituen, elkarri laztanak egiten.

—Ez dizut oztoporik jarriko, andrea, baina damutuko zaizu, bai, maitasunezko gau hau. Mindu egin nauzu, emakume lotsagabea. Laster jakinen duzu, ordea, nola mendekatuko dudan laido hau. Bihar zeure haurrak zeure hortz-haginekin janaraziko dizkizut, zinez. Bestela landetan zehar ero ibiliko naiz eta aurpegira txu egin ahalko didazu —eta hau esanda, atetik irten eta alde egin zuen.

Fatman bere burua jotzen hasi zen, masailak atzaparka urratzen zituela:

—Ai ene!, galdua naiz eta den-dena galduko dut, neure ondasunak eta neure etxeak ere bai! Ene zoritxarrekoa, zer egin dezaket orain?

Avtandil, txunditurik, kotsolatzen ahalegindu zen, baina emakumea ez zen inola ere lasaitzen.

–Neure seme-alabak neure eskuz hil behar badi-tut, zerk kotsola nazake? Ezin dizut gehiago kontatu. Nik neure burua galdu dut, maitasunagatik. Hauxe da gezurti eta hitzontziak merezi duen patua. Negar dagitela guztiek nigatik!

Zaldunaren lasaitzeko erreguak entzunik, ordea, honela erantzun zion:

–Ni laguntzeko, gauza bakarra egin dezakezu. Zoaz horren atzetik eta hil ezazu bera, bestela, har itzazu zeure gauza guztiak, karga itzazu astoak eta mandoak, eta ihes egizu hemendik. Bestela, ene bekatuek zu ere penaraziko zaituzte. Gizon hori berriz baletor, neure umeak irentsi beharko ditut!

Avtandilek, ausart eta harro, bere makila hartu eta Fatmani esklabo bat eskatu zion, gizon gazte haren etxeraino bidean gida zezan:

–Gizon hori ez da gerlaria ez eta ene parekoa ere. Zu zaude hemen trankil, ene zain.

Emakumeak bere jopua eman zion:

–Hiltzen baduzu, ekardazu haren eraztuna, neu-rea da eta.

Avtandilek, arrosa plantakoak, hiria zeharkatu eta itsas ondoko etxe gorri eta berde batera heldu zen. Behean areto zabala zegoen eta gorago terrazak terra-zen gainean, ederrik asko. Haraxe eraman zuen gida-riak:

–Hori da bilatzen duzun jauregia, jauna? Ikusten al duzu goiko terraza hura? Hantxe aurkituko duzu, lo edo eseririk, seguraski.

Zaldunak, ezkutuki, ate ondoko zainen atzealdera joan eta samatik oraturik, buruak elkarren kontra jo

zituena, garunak eta odola nahasiz. Ondoren, gizon gaztea bakarrik zetzan tokira igo eta bere sastakaiaz behin-goan erho zuen, hari hitzik edo oihurik egiteko betarik eman gabe. Ganibetaz eraztuna zeraman hatza ebakizion eta gorpua indarrez itsasora jaurti zuen, urrunera, hondarpera ehortziz. Inork ez zuen hotsik aditu eta hil-keta honetaz inor ez zen konturatu.

Avtandil atzera itzuli zen, Fatmanen etxera:

–Gizon horrek ez du gehiago eguna ikusiko, hildut eta. Zeure jopua duzu lekuko. Hona hemen haren erhia, oraindik eraztuna duela. Orain esadazu, zeren beldur zinen eta zergatik ikaratzen zintuen gizon horrek?

Fatmanek oinak muinkatu zizkion:

–Bihotza sendatu didazu. Orain ni, Usen, eta gure haurrak birjaioak gara. Haren odola isuria denez gero, dena kontatuko dizut, hasiera-hasieratik. Entzun ongi!

Fatmanek Avtandili Nestan-Daredjanen istorioa kontatzen dio

Hiri honetako ohituraren arabera, Newroz-aldian²⁵, urte berrian, merkatariek ez dute ezer saltzen eta ez dira bideetan zehar ibiltzen. Orduan geure arroparik hoberenak jantzi eta erregeak jaialdi handia antolatzen du. Gu, maila handiko merkatariek garenaz, jau-regira gonbidatzen gaitu, geure opariak eramateko. Berak ere balio bereko erregaluak egin ohi dizkigu eta hamar egunez etengabe harpa eta zinzalo soinuak entzun ditzakegu. Hondarren gainean pilota jokoak egiten da eta zaldi lasterketak ere bai.



–Hortaz, Newrozko egun batean, merkatarien beste emazteekin jauregira joan eta erreginari neure eskaintzak egin eta harenak jaso ondoren, bat-batean gaizki sentitu eta neure etxera itzuli nintzen. Aire pixka bat hartzeko, leihoa ireki eta itsasora begira nengoela, ustekabean, uhinen gainean puntu zuri bat nabaritu nuen, hegazia zirudiena.

–Hasieran ez nuen ongi bereizten, baina hurbiltzean txalupa bat zela konturatu nintzen. Barruan bi gizon ziren, beltz-beltzak, aurpegiz eta gorputzez.

–Lehorrera etorri eta gure lorategiaren ondoan amarratu zuten ontzia. Leku guztietara begiratzen zuten, ikusiak izateko beldur balira bezala, baina ez zuten inor antzeman, Nik, ordea, ezkutuki so egiten nien. Ontziaren erditik gauza bat atera zuten, kutxa itxurakoa. Hura ireki eta handik neska zoragarri bat irten zen. Jantzi berdea zeraman eta zapi batek estaltzen zion ilea. Niregana begiratu zuenean, begiak itxi behar izan nituen, haren argitasunaren distiraz itsuturik.

–Neure zerbitzari leialenei dei egin eta honela esan nien: «Ikusten al duzue horko beltz horiek gatibu daukaten Eguzki hori? Zoazte eta saia zaitzte bera erosten. Emaiezue eskatzen dutena, baina saldu nahiko ez balute, besterik gabe, hil itzazue gizon horiek eta ekardazue hona Ilargi hori.» Nire jopuak laster abiatu ziren. Ni leiho atzean gorderik begira nengokien. Berehala konturatu nintzen, beltzek, oso haserre, ez zutela neskaxa saldu nahi. Orduan hots egin nien: «Hil itzazue!» eta haiek behingoan lepoa moztu zieten.

–Ondoan, gorpuak itsasora jaurti eta gero, Eguzki eder hura ekarri zidaten. Ni etxetik jaitsi nintzen, abegia egiteko. Oi, nola kanta nitzake haren planta, haren xarma, haren fintasuna? Zinez diotsut Eguzkia bera zela. Zeinek ikus lezake haren edertasuna eta zeinek hura pinta? Ni behintzat bere suarekin berehalaxe gartu ninduen.

Honela hitz egin ondoren, Fatmanek bere aurpegia jo zuen. Avtandil ere hantxe zegoen negarrez. Baina andreari, otoi, kontatzen segi zezala erregutu zion.

–Zein herritakoa zen eta beltz horiek nondik zekarten galdetu nion, baina hark ez zidan deus erantzuten. Negarrez eta zizpuruz urtzen zen, pena handiarekin. Azkenean, honela mintzatu zitzaidan: «Zu ama bezalakoa zaitut, ama baino gehiago oraindik, baina ezin dizut ezer esan. Zoritxarrekoa naiz, patu iluna darrait, eta hori galdetzen didazunean Guzti Ahaldunari atsekabe ematen diozu.»

–Nik neure jantzirik hoberenekin apaindu nuen baina berak ez zuen negarra eteten. Haren aurrean malko aintzira bat nekusan eta azabatxezko betileak begien leize beltzean gurutzatzen ziren. Tintazko laku horrek bere azabatxearekin golko handia betetzen zuen eta koralezko ezpainen artean perlazko bi ilara biki nabarmentzen ziren. Ez zuen ezer jan nahi, eta lo egiteko ere, bururdia alde batera utzi eta eskua zerabilen burko bakartzat.

–Haren zapiaz ere hitz egin behar dizut. Neure bizitzan balio handiko gauza bitxi asko ikusi ditut, baina haren zapiaren parekorik bat ere ez. Oraindik ez baitakit zerez eta nola egina zen, ehuna bezain fina izan arren, burdina bezain sendoa zen eta.

–Ene etxean luzaro egon zen. Jopu bat jarri nuen, bera zerbitza zezan, baina neure senarrari ezkutatut nion, beldur bainintzen hortik zehar hartaz mintza zedin. Neure buruari niotson, horretaz hari hitz eginez gero, berak ondoren jauregian dena kontatuko zuela, baina bere kontutik aurkituko bazuen, inork ez ninduela heriotzatik salbatuko. Hortaz, azkenean, bakarrik eta pozik zegoen egun batean honela esan nion: «Gauza bat kontatuko dizut, aurretik inori ez diozula esanen promes egiten badidazu.»

–Hark erantzun zidan: «Traditzen bazaitut, har-kaitzetan behera amildu eta birrin nazakezu.» Eta orduan nik: «Jarraiki niri eta Eguzkiaren kidea ikusiko duzu.» Berak, miretsi zuenean, esan zidan: «Zerez egina da, baina, izaki hau? Jainkoak libra nazala, gure mundukoa bada!» Nik esan nion ez nekiela zergatik zegoen hain penaturik eta beti negarrez, eta ez ziola bere sekretua inori kontatu nahi. Biok, hunkiturik, bera gehiago ez eragoztea erabaki genuen, errespetuz, gure etxean gordeta, bakean utziz.

–Denbora pasa eta egun batean Usen, ene senarra, erregeagana joan zen, erregaluz harribitxi preziatu batzuk eramatera. Nik, otoi, neskarena ez esateko erregutu nion, eta berak trankil egoteko erantzun zidan. Jauregira heldu zenean, erregeak, esker onez, oturuntza batera gonbidatu omen zuen eta, dirudienetik, han gehiegi edan zuten. Erregeak galdetu omen zion ea nondik lortzen zituen hain perla eta harribitxi finak eta nire senarrak, ahobero halakoak, erantzun zion: «O errege nagusia! Ene ondasun guztiak zureak dira, baina hauek ez dira deus zure semearentzat gorderik daukadanarekin konparatuz gero. Eguzki hori dakusazunean, izanen duzu, bai, ni zergatik saritu.»

–Zertarako segi? Traidoreak bere zina hautsi eta erregeari neskaxa nola aurkitu genuen kontatu zion, zehatz-mehatz. Halako batean, etxean nintzela, erregearen morroi nagusia agertu zen gure atarian, aldean, ohi bezala, hirurogei zerbitzari zekartzala. Ni agurtu eta honela esan zidan: «Fatman, erregearen manuz nator, Eguzkia bezalakoaren bila. Zure senarrak eman baitio, oparizat. Ekardazu, bada, eraman dezagun.»

–Harri eta zur gelditu nintzen neure senarraren saldukeria ikustean. Halere, erregearen aginduaren aitzi-nean ez nuen irtenbiderik. Bihotza erdiraturik, neskarengana joan eta gertatu zena azaldu nion, malko artean. Hark, baina, kontsolatu egin ninduen: «Ez harritu horre-

gatik, ahizpa neurea, halakoxea baita ene zoria. Patuak ez dit sekula onik ekarri. Harritu, niri gertaturiko ongiaz egin beharko zenuke eta ez heldu zaidan gaizkiaz.»

–Eramaten utzi aurretik, neure altxortegira sartu nintzen eta handik hartu ahal nituen perla eta bitxi guztiak jaso nituen, haietako bakoitzak hiri batek adina balioa izanik, eta berari eman nizkion oro: «Agian, ene alaba, noizbait hauez baliatu ahal izanen zara.» Eta zerbitzariengana eramane nuen Eguzki hura.

–Kalean jendea multzoka biltzen zen, bidean ikusgurakoek hura pasatzen mirestearren, eta gizon armatuek nekez aparta zitzaketen. Aurkeztu ziotenean, erregeak ezin sinets zezakeen bere begiek zekusatena. «Zeinek, Jainkoa bera ez bada, molda zezakeen honelako edertasunik? Bera maita dezan gizagaixoak landetan zehar eroturik ibili beharko du!» Eta bere ondoan jarrita, bere historia konta zezala eskatu zion, baina hark, zirkinik ere egin gabe, mutu iraun zuen. Ez zion erregeari jaramonik egiten. Gogoia urrun zeukan eta bihotza beste leku batzuetatik zebilkion.

–Erregeak esan zuen: «Gaixoa, beharbada maitemindurik dago eta bere maitearengan darabil pentsua. Hartaz besterik ez du beste inor gogoan. Edo, bestela, izaera bitxikoa da, adimen handikoa, argi ikuslea, eta ez du pena ez poza ezagutzen. Edonola ere, gugandik urrun dabil hegaz, usoa zeruan bezala. Ene semea borrokatik datorrenean, Eguzki honekin eskaintza bikaina ukanen du.»

Fatmanek kontatu zion erregearen semea printze gazte eta adoretzua zela, izaera atsegineko eta planta onekoa, bai begitartez eta gorputzez ere. Aspaldian gerrara irtena zela, eta aitak, itzuliko zenerako, ustegabeko opari hura gorde nahi ziola. Neskarentzat erregeak gela berezi bat presta zezatela agindu zuen eta han urrezko diban bat jarri zuten, mendebaletik ekarria.

060367491
20250101333



–Hura zaintzeko, atean bederatzi iren jarri zituen, eta jaialdi handiarekin ospatu zuen egun hura. Useni, ene senarrari, hargatik ondo eskuzabalik eman zizkion eskerrak.

–Neskatilak, zerbitzariekin bakarrik gelditu zenean, honela pentsatu zuen: «Nolako zoria nirea! Ez dakit nondik natorren ez eta norena izanen naizen ere. Jainkoak lagun nazala! Pertsona zuhurrak ez du, bere ordua heldu baino lehen, bere burua hil behar. Zentzuz jokatu beharra daukat.» Eta zerbitzariei deitu zien, haiekin berba egiteko: «Entzun nazazue eta izan zaitezte zuhurrak. Engainaturik zaudete, eta zuen jauna bera ere oker dago ni haren erraina izanen naizela uste badu. Ez da komeni ni zuen erregina izatea, Jainkoak beste bide bat markatu didalako. Hemen bortxaz zuen printzearentzat gorde nahi banauzue, neure burua hilko dut, eta zuek ere ez zarete bizirik aterako zuen nagusiaren haserretik. Hara, hobe duzue ezkutuan dauzkadan altxor hauek hartzea eta isilean hemendik ni ateratzea.»

–Eta bere gerrikotik nik emandako harribitxiak eta perlak atera zituen, errubi bikainekin. «Hementxe dituzue. Har itzazue guztiak eta utz nazazue libre, Jainkoarren!»

–Zerbitzariek, ondasun haiek ikustean, gutiziaz beterik, erregearenganako beldurra berehala galdu eta ihes egiten uztea erabaki zuten. Ikusazu urrearen boterea norainokoa den, deabruak berak eginga. Zikiratuek neskatzak nahi zuena egin zuten, bada. Haietako batek bere jantziak ekarri zizkion eta, areto nagusia alde batera utzirik, alboko ate batetik irten ziren. Ilargia bere betean zegoen, Sugeak hartaz gupida izanik.

–Ihes egin zuten, bada, guztiek. Irenek nork bere lekutik, baina neskak ene atea jo zuen, neure izenarekin deituz: «Fatman.» Berehala irten nintzen, harriturik baina pozaren pozaz, bera besarkatzeko. Ez zuen,

ordea, etxera sartu nahi izan. Eman nionarekin bere burua erosi zuela azaldu eta eskerrak eman zizkidan. «Ezin nazakezu gehiago ezkutuan gorde. Utz iezadazu joaten, erregeak ene ihesaren berri jakin baino lehen.»

–Ikuilura joan eta neure zaldirik hoberena hartu nuen. Hura zelatu eta gainera igotzera lagundu nion. Eta agur egin ondoren, berehala alde egin zuen.

–Iluntzean erregearen soldaduak etorri ziren, baina nik esan nien: «Hemen aurkitzen baduzue, prest nago erregeari eginiko traizioa neure odolarekin ordaintzeko.» Bila eta bila jardun zuten, baina dena alferrekoa izan zen. Jauregian guztiek tristura handia erakutsi zuten. Eguzkia joanda, orok dolu jantziekin zebiltzan, ilunik.

–Geroago azalduko dizut gehiago Ilargi horri buruz. Orain jakizu hil duzun zaldun gazte horrek zergatik mehatxatzen ninduen. Ai ene, zoritxarrekoa! Ni haretzat orkatza nintzen, bera enetzat oreina izanik. Gizonarengan koldarkeria gaitzetsi ohi da, emakumearengan, aldiz, lizunkeria.

–Nik ez dut neure senarra gogoko, gaizto eta aski lerdoa baita. Gizon gazte eder horrek, aldiz, gortean kargu handia zeukan. Elkar maite genuen, baina, halere, ez dut harengatik luturik jantziko. Egia esan, emakume zentzugabea izan nintzen, maitasunak itsutua, eta neskatxaren istorioa kontatu nion, enegana etorri eta gero partitzera nola lagundu nuen azalduz. Eta harrezkero, haserretzen ginen bakoitzean, hori erregeari kontatzeaz mehatxatzen ninduen, berriz ere neure etxera sartzen uzten ez banion.

–Aspaldion atzerrian zegoen, eta zu neure etxera gonbidatu zintudanean ez nekien berriz itzulia zenik. Gaur iritsiko zela jakinarazi zidanean, berehala zerbitzaria bidali nizun, etor ez zintezan, beldur bainintzen, zu ikusiz gero, zer eginen ote zuen. Horrexegatik ziren

haren mehatxuak. Zuk hil ez bazenu, erregearengana joanen zatekeen, eta gure jaunak, hiraz beterik, ene egoitza goitik behera ezereztu eta neure umeak janaraziko zizkidan, azkenean harrika hilarazteko. Jainkoak demaizula egin didazun mesede horren ordaina, ene bizitza salbatu duzu eta.

Avtandilek esan zion:

–Ez gehiago beldurrik izan, Liburuan izkiriatua baita: «Zure etsai guztietatik gaiztoena adiskidetzat daukazuna da.» Horregatik gizaki zuhurra ez da inoiz guztiz fidatzen, ez eta bere bihotza erabat irekitzen ere. Baina orain zaude lasai, bera hilen artean dago eta. Orain konta iezadazu zer gertatu zitzaion, joan eta gero, neskatxa horri. Izan al duzu haren berririk?

*Fatmanek Avtandili kadjiek
Nestan-Daredjan beren herrira
eraman zutela azaltzen dio*

Fatmanek esan zion:

–Unibertsoa argitzen duen argizagi hori joan zenetik, haren gogorapenak etengabeki nahigabetzen ninduen eta ezin nitzakeen xuka begietara uholdeka zetozkidan negarrak. Ez etxeak ez haurrek asebetetzen ninduten jada. Usen zin hausletzat jotzen nuen eta ez diot saldukeria hura inoiz barkatu. Eta harrezkero enegana hurbiltzen ere beldur da.

–Arrats batean, Eguzkia ezkutatzera zihoanean, ostatu baten aurrean zerbitzari bat ikusi nuen, hiru lagunekin berriketan. Hark jopu jantziak zituen, bestee, aldiz, bidaiarietak. Hirian biderako hornizioak erosiak

zituzten eta hantxe zeuden, jaten eta edaten, eta umore onean mintzo ziren.

–Haiek konturatu gabe, zelatan jarri nintzen, esaten zutena entzuteko. Honela zioten: «Jostatzen ari gara eta, guztiok elkarrekiko arrotzak izan eta elkarren berri ez dakigunez gero, gutariko bakoitzak bere istorioa kontatu behar du, komeni den bezala.» Eta halaxe egin zuten hirurek, baina jopuaren txanda heldu zenean, berau honela mintzatu zitzaien: «Zuek artatxikia erein duzue, baina nik soro horretatik perlak bilduko dizkizuet. Nik neure istorioa nahiago dut zuek azaldu didazuena baino. Entzun bada:

»Ni Kadjetia⁸ gobernatzen zuen errege handiaren esklaboa izan naiz, baina hura aspaldian hil zen. Hori dela eta, haren arreba Dulardukht da orain Kadjetiako erregina, haitza bezain gogorra, eta bere loba gazte biak hazten ditu, Rosan eta Rodia.

»Egun batez haren ahizpa itsasoz bestaldean hila zela jakin genuen, baina visirrak, desesperaturik, ez zion berri txar hori eman nahi izan, beldurrez. Bazen han ordea, jopu bat, Roxak zeritzona, milaka esklaboren burua, eta horrek esan zien: “Neuk esanen diot, horretan bizia galtzen badut ere. Aurretik zelaietara joanen naiz, bidelapur. Hortik altxor handiak bildu eta erreginaren oinetan jarriko ditut, pozik egon dadin. Ordu horretaz baliatuko naiz berri ertuna esateko. Erregina bere ahizpa plainitzera joanen da eta nik lagundu egingen diot.”

»Eta esan bezala egin zuen. Bere menpekoetatik ehun bildu eta esan zien: “Ni banoa, jarraiki zakizkidade guztiok!” Eta ni ere harekin joan nintzen. Egunez lapurretan ibiltzen ginen bideetan zehar. Gauean basoetan gelditzen ginen, zain. Eta horrela karabana asko hustu genituen. Gau ilun batean, zelaietan zehar genbiltzala, bat-batean argitasun handia ikusi genuen landa erdian

eta elkarri esan genion: “Eguzkia lurreraino jaitsi ote da ba?” Batzuek Ilargia zela zioten, beste batzuek goizeko izartzat jotzen zuten bitartean.

»Hura zer zen jakin nahirik, haraxe hurbildu ginen, tokia inguratuz. Nabarmendu gintuenean, argitasunetik ahots bat aditu genuen: “Nortzuk zarete? Esadazue nondik zatozten! Ni itsasoetako herritik nator, Kadjetiarako enbaxadore gisa.” Zaldun harengana hurreratu eta haren aurpegi Eguzkitsuak itsutu gintuen. Perlazko hortzak zituen eta azabatxezko betileak. Harekin hitz egin genuen eta berehala konturatu ginen hura ez zela, zioen bezala, zerbitzari bat. Roxakek, gainera, neska zela igarri zion, eta zaldiz harenganatzuz, harrapatu egin zuen.

»Bere historia konta ziezagula erregutu genion, baina alferrik izan zen, eta negarrez hasi zen. Ez zigun inola ere hitzik egin nahi. Azkenean, Roxakek esan zuen: “Ez egiozue galde gehiago. Horren istorioa, antza, zail eta korapilotsua da eta, dirudienez, ez da erraz kontatzekoa. Edonola ere, bistan da Dulardukhtek zori ona duela, Jainkoak gure erreginari neskatxa hau eskaini nahi dio eta. Izan ere, hari eraman beharko diogu, ezkuta bageniezaio, berak laster aurkitu eta lo-tsaz beteko gintuzke eta.”

»Guztiok bat etorri ginen gogoeta horrekin eta Kadjetiarantz itzuli ginen. Neskatxa gurekin eraman genuen, behin ere lantua utzi gabe. Nik Roxaki hau esan nion: «Emadazu zati baterako askatasuna. Gulanxarora joan nahi nuke, hor zeta sorta batzuk ditut eta. Horiek hartu eta berehala zuengana itzuliko naiz.» Eta hark baimena eman zidan, pozik baitzegoen, eta hementxe nauzue. Orain zama horiek hartu eta berehala haiengana abiatuko naiz, zaldiz.»

–Beste zerbitzariak oso pozik gelditu ziren jopuak kontatu zien istorioarekin. Nik, ordea, ezin estal

nezakeen neure malkoen iturria. Haren hitzetan esperantzarako seinale batzuk aurkitu nituen. Orduan jopu horri dei egin eta istorioa berriz kontarazi nion. Dendena berdin errepikatu zidan eta haren kontraerak, nolabait, berpiztu ninduen.

–Etxean bi esklabo beltz neuzkan, sorginkerietan hagitz trebeak. Horri esker, noranahi joan eta etor zitezkeen, inork ikusi gabe. Berehala Kadjetiara abia zitezela agindu nien, neskaren berri ekar ziezadaten. Handik hiru egunera itzuli ziren, bidean laster eginik, eta hau esan zidaten: «Erreginak itsasoz bestaldera joan beharra dauka, baina neskatxa han gorde nahi du. Inork ezin du bera ikusi, Eguzkiak bezala itsuarazten baitu. Dulardukhtek bere loba Rosanentzat nahi du, harekin ezkon dadin.

»Dulardukhtek dorre batean dauka ezkutaturik eta iren batek zaintzen du. Erregina atzerrira joatekoa denez, bere gazteluan gerlaririk adoretuenak utzi ditu, eta sorgin aditu asko ere bai. Kadjien⁹ hiria etsaiek ezin hartuzko harkaitz baten gainean eraikia da eta, dorrera heltzeko, bide meharra dago, haitzen hegaletik doana. Argizagi hori hantxe dago, bakarrik, hurbiltzen zaizkion guztiak bere argiaz izekiz.

»Harako bidea bi zaldun beldurgarrik zaintzen dute, eta gotorlekuan hamar mila soldadu dira, gortelarien artean hautatuak, eta hiriko hiru ateetan hiruna mila jagole daude.»

Avtandilek, istorioa entzun zuenean, bihotza zauriturik, Fatman-Khatuna goraiatu zuen:

–Neure maitasuna merezi duzu. Nola eskertuko dizut kontatu didazuna? Halere, esadazu zerbait gehiago Kadjetiaz. Egia al da kadjiek ez dutela gorputzik? Neskatila horretaz gupida dut, eta bera lagundu nahi nuke. Nola borroka daiteke, ordea, kadjien aurka, harazgizkoak ez badira?

Fatmanek erantzun zion:

–Ulertzen dut zure harridura, baina entzun nazazu. Duten izena gorabehera, sorgin horiek gizakiak besterik ez dira. Egia da, bai, magian oso trebeak direla eta inguruko guztiei kalte handia egiten dietela. Beren etsaiak itsutu egiten omen dituzte, haize ikaragarriak sorrarazten omen dakite, uraren gainetik ibiltzen omen dira, eta eguna ilundu eta gaua argitzeko gai omen dira. Inguruko guztiek kadji, hau da, sorginak deitzen diete, baina, izan, gure antzeko pertsonak dira.

Avtandilek eskerrak eman zizkion:

–Ez dakizu asko noraino pozten nauen kontatu didazunak. O Jainkoa, zuri esker, ene pena-nahigabeak joan dira, zeure grazia isuri diguzu eta.

Fatman berriz ere garretan hasi zen, jeloskor sentitzen baitzen. Avtandilek, diskretuki, haren maitasuna onartzen zuen. Fatmanek lepoa laztantzen zion, haren Eguzki aurpegia musukatuz. Gau hori elkarrekin pasatu zuten. Zaldunak, gogoz kontra bazen ere, haren lepoa bere kristalezko lepoaren kontra estutzen zuen. Artean Tinatinengan zeukan gogoa, eta bere bihotz eroak urrunera zeraman zalduna, basapiztien artean.

Isilean negar egiten zuen Avtandilek, eta haren malkoak itsasorantz limurtzen ziren: «Begira niri, maitale bihotz guztiok! Arrosa ederra dagokit, eta bera gabe, simaurraren gainean eserita, belea nauzue gaur, eta ez urretxindorra.» Haren begiei zerizkien negarrek harriak berak erdibi zitzaketen. Azabatxe lodien gatibu, urak arrosadia bainatzen zuela. Fatman pozik zegoen, arras alai, beleak, arrosa daukanean, urretxindorra dela uste baitu.

Biharamunean Avtandil bainatu egin zen. Emakumeak orduan jantzi eta durbante batzuk ekarri eta lurrin goxoak eman zizkion, eta zeta fineko alkandora bikainak.

–Jantz itzazu nahi dituzunak, pozik egon zaitez nahi dut eta.

Avtandilek bere kautan esan zuen. «Gaur azalduko diot, bada, neure sekretua.» Eta merkatari gisa barik, zaldun armadura jantzi zuen. Haren edertasunean Eguzki irudiko lehoitzat ageri zen. Fatmanek, beste gela batean, gosaria prestatua zion. Zalduna oso dotore sartu zen hara. Merkataria ez ikustean, andrea harriturik gelditu zen eta esan zion:

–Poza ematen diozu begiraten dizunari.

Avtandil berehala konturatu zen Fatmanek ez zuela jas berri hartan ezagutu. Berarekin gosaldu eta honela esan zion:

–O Fatman, ezagutzen zaitut eta badakit dardar eginen duzula, sugearen zitzadaz bezala, nire bizitzaz egia jakinen duzunean. Ene eraileak betile beltzak dira, azabatxeak berak kokatzeko hautatu duen zuhaitza. Uste duzu merkatari bat naizela, karabana burua, baina Rostevan errege handiaren osteen nagusia nauzu, haren armadaren burua, haren armen eta altxorren zaintzailea. Fatman, adiskide on eta bikaina zaitut, baina neure erregearen alabak erotzen nau, eta bere labean urtzen. Horrek bidali nau, eta zuk ezkutatu zenuen neskata horren bila ibilia naiz leku guztietan.

Eta zaldunak orduan bere istorio guztia kontatu zion, bai eta Tarielena ere, tigrelaruz jantziarena.

–Zuk ez duzu oraino ezagutzen, baina zaldun horren ukendua izanen zara. Zatoz, bada nirekin, Fatman. Lagun diezaiogun zaldun horri. Agian bi maitatzaille horiek berriz elkarrekin egoteko parada ukanen dute. Ekardazu duzun jopu sorgin hori, Kadjetiara bidal dezagun. Jakinaraz diezaiogun Eguzki horri badakigula bere berri. Berak ere zerbait jakinaraziko digu eta arrakasta izanen dugu. Jainkoak hala nahi badu.

Fatmanek esan zion:

–Gorets bedi Jainkoa gertatu zaidanagatik. Gaur esan didazuna betierekotasunaren parekoa da.

Eta esklabo sorgina ekarri zuen, erroiaren hegoa bezain beltza. Avtandilek esan zion:

–Kadjetiara joan beharra zegok eta bidea luzea duk. Orain jakinen diat, azkenean, hire sorginkeriak zertarako balio duen. Itzal ezak ene su izekia, erretzen nauen labea. Esaiok Eguzkiari bera askatzeko prest gaudela.

Jopuak erantzun zion:

–Jauna, bihar bertan esanen dizut zer egin behar den.

Fatmanek Nestani eginiko gutuna

Fatmanek honela izkiriatu zuen:

O Eguzki, mundu osoa argitzen duzun argizagi ederra! Ez zenidan zeure bizitza azaldu nahi izan, baina halere, orain badaukit. Egia jakin dut, eta orain bihotza poztasunez ase zait. Taniel alderrai dabil, eroturik. Emazkiozu, bada, berri onak. Bioleta zara, bera arrosa, eta laster biok zoriontsu izanen zarete. Avtandil, haren zinpeko anaia, etorri zait, zure bila. Arabiar zalduna da eta ospe handia du bere herrian. Rostevan erregearen armadaren burua duzu bera, zuhurra eta burutsua. Izkiria iezaguzu azkar.

Horretarako jopu beltz hau bidaltzen dizugu. Kadjetiaren berri jakin nahi dugu, eta bertako gerlariak zehazki zenbat diren. Esaguzu nortzuk diren zure zaintzaileak eta zeinek agintzen dien. Ez ezazu ahantz, otoi, zure maitatzailearentzako berri pozgarriak ematea, horrek alaitasun bihurtuko baitio orain tristatzen duen pena beltza.

Eta bukatu zuenean Fatmanek gutuna jopuaren eskuan jarri zuen, esanez:

–Eskutitz hau Eguzki aurpegiko neskatxarentzat duk!

Morroiak bere gorputza belar koloreko kapa batekin estali eta une berean desagertu zen, teilatuen gainetik hegaz abiatu rik.

Arkulariaren esku trebeek jaurtiriko gezia beza-la joan zen. Kadjetiara ailegatu zenean, atea gordetzen zuten zaldunen artetik, ikusezinik, iragan eta Eguzkiagana abiatu zen, hargatik sufritzen zuenaren agurra eramatera. Ile luzeko jopu beltzak ate itxiak zeharkatu zituen eta bere kapaz estalirik neskatxaren gelara sartu zen. Beronek, hasieran, ikaraz hartu zuen, etsairen bat zela koan, baina beltzak honela esan zion:

–Nor naizela uste duzu? Zergatik izutu zara? Fatmanen jopua nauzu, berak zuregana bidalia. Har ezazu, frogatzat, gutun hau. Heda itzazu zeure errai nuak eta ez zaitez zimel, o arrosa!


Zerbitzariak luzaturiko eskutitza zizpuruka irakurri eta gero, galde egin zion:

–Nor da, bada, ene bila dabilen zaldun hori?

Hark erantzun zion:

–Ezin dizut esan dakidana besterik. Alde egin zenuenetik gure Eguzkia eklipsatu zen eta harrezkero

041935340
8034110133



Fatmanen bihotza mila dardoz zulatu da. Haren negarrak itsasoak betetzen zituen, harik eta zaldun hori agertu den arte. Gizon distiratsua da, eta zutaz dena kontatu dio. Leku guztietatik ibili omen da zure bila eta biek igorri naute zuregana presaka.

–O gizon gaztea! –esan zion neskatilak–, egia diostazula iruditzen zait. Bestela Fatmanek ezin jakin zezakeen ene historia. Gutun bat eginen diot berehala, eraman diezaiozun.

Nestanek Fatmani eginiko gutuna

*A*ma, Khatuna, zuri izkiriartzen dizut, ama baino hobea zaitudan horri! Badakusazu munduak nola narabilen, iraganeke oinazeei nahigabe berriak erantsirik. Zure eskutitza irakurri ondoren baina, adorea hartu dut berriz ere. Zer kontatuko dizut, bada? Kadji en erregina kanpoan da, haren meneko gehienak bezala, baina hemen oraindik gerlari ugari dago, ni gau eta egun begiratzeko. Ezinezkoa duzue, beraz, ene bila etortzea, eta ni salbatzera heldu zaizun gazte hori, alfer-alferrik nekatuko da.

Ez nizun neure historia kontatu nahi, hura ezkutatu nahi nuelako. Orain erregutzen dizut neure maiteari esan diezaiozula ene bila ez etortzeko. Izkiria iezaiozu, otoi. Asku sufritzen dut, eta bera baletor eta nik hemen hilik ikusi beharko banu, ene samintasuna berretuko litzateke. Kasu egin nahiko ez balizu,

zatoz eta harrika hil nazazu. Neure maitearentzat oroigarri bat bidaltzeko eskatu didazu. Berak emaniko durbantearen zati bat igortzen dizut, bada. Neure begiek berau zirraraz dakusate oraindik, haren oparia baita, kolorez iluna eta ene zoria bezain beltza bada ere.

Nestaneke bere maiteari bidaliriko gutuna

Negarra zeriola, bere maiteari honela izkiriariatu zion, entzuleen bihotzak erdiratzeko eran:

Ene maitea, neure eskuz izkiriartzen dizut gutun hau. Lumatzat ene gorputz dardartia hartu dut, behazunean bustirik. Papertzat gure bihotz elkartuak dauzkat, zurea eta enea, bat eginik. O kutuna, badakusazu munduak eta denbora madarikatu hauek nola urruntzen gaituzten. Ez dugu berriz elkar pozik ikusiko, zoritxarrez.

Uste nuen hilik zeundela eta indarrik gabe nengoen. Orain Jainkoa goresten dut, bizi zarela jakin dudalako. Zu bizirik izatea dut poz bakarra. Ez zaitez nitaz ahantz, zure maitasunagatik hiltzen ari naiz eta. Ni hemen nago, neure eskuz landatu nuen amodioa zaintzen. Ezin dizut neure historia luzea laburki kontatu, ene maiteder. Fatmanek salbatu ninduen. Jainkoak bera gorde beza!

Orain kadjiek naukate preso dorre baten barruan. Honainoko bidea anitz zain-

tzailek jagoten dute, eta egunez eta gauzez begiraleak txandakatzen dira. Haien kontra letorkeena, gar artean hilko litzateke. Ez pentsa, gainera, gerlari horiek ohikoak direnik. Ez zintuzket hilik ikusi nahi. Ez etorri, otoi! Zu gabe bizitzea ezin jasan dezaket, eta egunen batean sastakai batekin hilko dut neure burua eta aurrean ditudan harkaitzeta-tik salto eginen. Oinazeetan hain luzaro bizi izanda, heriotzari gozo iritziko diot.

Zu zoaz luza gabe Indietara, ene aita laguntzera. Hantxe baita bakarrik, laguntzarik gabe. Kontsola ezazu haren bihotza, nigandik urrun, hain triste dagoena. Ikus ezazu orain zer igortzen dizudan. Zerorrek eskaini zenedan zapiaren zatia. Hauxe da behialako esperantza hartatik gelditzen zaidan bakarra. Zazpi zeruetako gurpil geldiezinak guregana itzuli du bere mendekua.»

Bere maiteari eginiko gutuna bukatzean, oihalaren hegala ebaki zuen, Tarieli helarazteko. Buruhas, bere adatseko ile luzeek apaintzen zuten bera, eta aloeak bere lurrina hedarazten zuen bere azabatxezko ile beltzetatik.

Esklaboak handik alde egin zuen eta Gulanxarora iritsi. Fatman begira aurkitu zuen, berrien zain. Gutunak irakurtzean, Avtandilek eskuak zerurantz altxatu zituen, Jaunari eskerrak emateko. Fatmani honela esan zion:

—Garaiz gabiltza oraindik. Ezin ordain dezaket nigatik egin duzun guztia. Orain joan beharra daukat eta ezin naiteke hemen luzaroago gera. Kadjetiara eraman behar dut herri hori suntsituko duena.

Khatunak erantzun zion:

—O Lehoi, ene sua are biziagoa bihurtzen da orain. Zure argitasunetik urrun, ilunago gelditzen zait bihotza.

Baina joan zaitez arin, ni eroturik utzita ere, zeren eta behin kadjiek aurrea hartuz gero borroka are zailagoa izanen baituzue.

Pridonen zerbitzariak, berarekin zihoazenak, zaldunaren deira hurbildu ziren. Esan zien:

—Hilik bezala geunden, baina orain berpiztuak gara, jakin nahi genuena ikasi ondoren. Laster erakutsiko dizkizuet gure etsaiak, haien zauriak nabarmenduz. Zoazte lasterka Pridonengana hau guztiau kontatzera. Nik oraingoan ezingo dut bera ikusi, partitu beharra daukat eta. Neure altxorrek emanen dizkizuet, itsaslapurrei hartuak. Ez ni zikoitz juzga, ezin baitizuet beste saririk eman, ene etxea hemendik urrun izanik. Eta eramaiozue Pridoni, ene zinezko anaiari, gutun hau.

Avtandilek Pridoni eginiko gutuna

Honela izkiriatu zion:

O errege zorioneko eta boteretsu hori, lehoi bihotzekoa, sendo eta ausarta, errainuak banatzen dituzun Eguzkia! Jainkoak agintzeko hautatu zaitu eta etsaien odola isurrazteko. Zuri, anaia gazteago horri, oihu apal hau bidaltzen dizut urrundik.

Oinazeak jasan ondoan, saria jaso dut azkenean. Eguzki aurpegiko neskatilaren berriak dakarzkizut. Kadjien erreginak gatibu dauka. Haren soldaduak guztiz ugariak dira, baina orain ez daude haren ondoan.

Badakit zuk eta zure anaiak oztopo guztiak gaudituko dituzuela eta ezein gizonek ezin dezakeela zure aurka egin, haitzak berak birrintzen dituzu eta. Barka nazazu zu ikustera ez joateagatik, baina urrunera noa, Tarielekin biltzera. Ilargia preso dago eta ezin geldi naiteke bidean. Laster itzuliko gara, eta ondo poztuko zara gu ikustean. Biok Tarieli laguntza eskainiko diogu, anaia gisa.

Utzi zenizkidan morroi hauek zintzoak izan dira bihotzez, eta fidelki zerbitzatu naute. Zure ondoan bizi direnek ez dute gure losintxarrik behar, jakintsuek diotenez, bakoitzak bere kidea sortzen baitu.»

Gutun hau izkiriatu ondoren, bildu eta zerbitzariiei eman zien, Pridoni bere berri ahoz esateko aginduz.

Gero Avtandilek, itsasontzi bat bilatu zuen, Tarielengana eraman zezan. Tristura ematen zion Fatman bere penarekin han utzi beharrak, eta elkarri agur egitean, Fatman, Usen eta gainerako jopuak malko berotan urtzen ziren, esanez:

—O Eguzki, zer egin diguzu? Zeure garrekin suntzitzen gaituzu eta egunak ilunduko dizkiguzu gugandik urruntzean.

Avtandil Gulanxarotik irten eta Tarielekin elkartzen da

Av tandilek bidaiarientzako ontzi batean itsasoa zeharkatu ondoan, bere zaldi gainera igo eta adiskideagana abiatu zen galapan. Alai zihoan, oso

pozik, bere zinpeko anaiari oraingoan berri onak zera-mazkiolako. Eskuak zerura jasotzen zituen, Jainkoari laguntza eskatuz.

Uda zetorren eta lurrean ernamuin berriak ageri ziren. Arrosa irekitzen ari zen eta Eguzkia, Karramarroaren bila, izar multzo berrirantz abiatzen zen. Zaldu-naren bihotza zizpuruka ari zen, ez baitzuen aspaldian bere lorea ikusi. Bere adiskideaz gogoraturik, malko beroak isurtzen zituen, baina ez zion bideari uzten, beti aitzinera, Tarielen bila. Ez zen inon gelditzen eta leku bakartietatik aurkitzen zituen tigre-lehoiak oro hiltzen zituen.

Azkenean, haitzuloa ikusi zuen, harkaitz handien artean, eta zoriontsu sentitu zen: «Horra hor ene adiskidearen bizilekua, negar eragiten didanarena. Ongi merezi dut dakidana hari aurrez aurre kontatzea. Baina aurkitzen ez badut, alferlana izanen da nirea. Seguraski ez da hor egonen, eta inguruetakoa larretan zehar dabilke, piztien artean. Hortaz, haren bila joanen naiz.»

Zaldi gainean trostan zebilen, kantari, bihotza pozez. Lagunaren izena boz goraz oihukatzen zuen, eta bat-batean, Eguzkia agertu zitzaion bere edertasun osoan. Kanaberen artean anaia ikusi zuen, ezpata biluziarekin armaturik. Tarielek lehoi bat hil berria zuen. Zalditik jaitsirik zegoen eta armari odola zerion oraindik. Avtandil entzutean, hasieran pixka bat harritu zen baina, hura ezagutu bezain laster, ezpata alde batera jaurti eta harengana abiatu zen.

Batak bestea besarkatu zuen, lepoak sendoki estutuz. Tarielek, negarrez, hitz zoragarriak esan zituen, dotoreziaz beteak, eta haren odolezko malkoek azabatezko kanaberak tintatu zizkioten:

—Ikusi zaitut. Zer ardura didate, beraz, orain arteko ezbehar guztiek?

Tarielek negar egiten zuen artean, Avtandil, aldiz, barrezka mintzo zitzaion, eta bere koralezko ezpainak ireki eta hortz distiratsuak erakutsi zituen:

–Berri pozgarriak dakarzkizut, bada. Orain arrosa berpizten da, anaia neurea, lehenago zimeltzen zena.

Tarielek esan zion:

–Anaia, aski pozkaria dut gaur zu berriro ikustea. Ez diot Jainkoari beste baltsamorik eskatzen.

Avtandilek ez zion ezer ezkutatu nahi eta berehala guztia kontatu zion, arrosa ezpainetako neskatzaren zapia erakutsiz. Tarielek hura berehala ezagutu zuen, bai eta jauzi egin ere, eskuan hartzeko. Gutuna ikustean, behingoan ireki eta irakurri zuen. Biak bere aurpegiaren kontra estutzen zituen, gero eta zurbilago. Gero, indarrak erabat galdurik, bere betile beltz luzeak itxi zituen.

Avtandilek bere laguna erortzen ikusi zuenean, harengana hurbildu zen hitz gozoekin lasaitzeko, baina ezin zuen deus egin, konorte gabe baitzegoen, ezusteko hark erabat jota. Avtandil negarrez hasi zen, hura bere erruagatik zela esanez:

–Inor ezin zitekeen ni bezain eroa izan. Zergatik isuri dut ura hain supituki haren suen gainean? Horren bihotzak ezin jasan izan du bat-bateko poztasun hau. Neure adiskidea hil dut; nola paira dezaket orain hone-lako lotsa?

Tariel hantxe zetzan, bizirik gabe, hilotzik. Avtandil jaiki eta kanaberen artetik joan zen, ur bila. Lehoi hila aurkitu eta haren odola hartu zuen, sua amatatzeko, eta horrekin zaldunaren bularra ihinzatu zuen, hura errubiz gorrituz. Horrela lehoi baten odolak beste lehoi bat busti zuen. Tarielek jauzi egin zuen, eta haren betileetako indiar ilarak higitu ziren: begiak ireki eta altxatzeko indarrak biltzen zituen. Ilargiak tonu urdina hartzen zuen Eguzki errainuen bitartez.

Neguak arrosa zimelarazten du, eta haren hostoak sakabanatzen. Udako Eguzkiak, hurbiltzean, aldiz, bere beroarekin haiek kiskaltzen ditu, baina halere, urretxindorrek kantu egiten die, bere boz eztiarekin. Udak erre, neguak izoztu, haien zauria, ordea, beti berbera izaten da. Zaila baita, egiazki, gizakien bihotza poztea. Nahigabean zein alaitasunean beti zoraturik ibiltzen dira, ez dute inoiz beren zauria sendatzen, haien zoria ez ohi da behin ere erabatekoa izaten. Munduaz fidatzen dena bere buruaren etsaia da, egiazki.

Tarielek bere maitearen gutuna berriro irakurri zuen eta, irakurtzean, arima galtzen zuela sentitzen zuen. Egun argia ilun begitantzen zitzaion, eta malkoek itsutzen zuten. Avtandil altxatu eta mintzatzen hasi zitzaion, itzulingeruka ibili gabe:

—Portaera hori ez da gizon ikasiarena. Zergatik negar egin, irribarre egin beharrean? Jaiki zaitetz, zatoz, eta goazen Eguzki galduaren bila. Harengana gidatuko zaitut, zure arimak irrikatzen duenarengana. Hasteko, alegera gaitezen, halaxe komeni zaigu eta. Ondoren, zaldien gainera igo eta Kadjetiara abiatuko gara. Etsaiak ikaratuko ditugu, geure ezpatak gidari harturik. Handik erraz itzuliko gara, bertako eremua hilotzez erein eta gero.

Avtandilen hitzek Tariel susperrarazi zuten. Bere begi handiekin behatzen zion, distiratsu, tximista bezala. Errubia bezain argitsua zen, Eguzki errainuetan. Nork merezi du zerua beti bere alde izatea?

Avtandili eskerrak eman eta biak zaldi gainera igo ziren. Lehenik haitzulora joan ziren, Asmati berri onak emateko. Neska haitzuloaren atarian zegoen. Zaldun biak kantari ikustean, harri eta zur gelditu zen. Maiz ikusia zuen Tariel negarrez etortzen, baina oraingoan irribarrez zekusan. Eroturik edo zeudela uste zuen gaixoak.

Asmat ikustean hots egin zioten, barrezka:

–Asmat, Jainkoaren grazia gure artera jaitsi da. Ilargia berraurkitu dugu, eta nahi genuen guztia. Orain zoriak sua itzaliko du, eta gure pena poz bihurtuko.

Avtandil, zalditik jauzi eginik, neska besarkatzera aurreratu zen. Besteak aurpegia eta lepoan musukatzen zion, pozarren:

–Esadazu: zer dakizu, zer egin duzu? Zelaietan zehar ibilia nauzu, negarrez.

Avtandilek esan zion:

–Irakur ezazu eskutitz hau, hainbeste sufritu duenagandik heldua.

Asmatek gutuna ikustean, behingoan ezagutu zuen letra hura, eta harriturik, dardarka hasi zen:

–Zer dakusat nik hemen? Egia al da hau guztiau?

Avtandilek erantzun:

–Ez beldurrik izan, dena egia da eta. Eguzkia hurbildu zaigu, gure iluntasuna itzal bat besterik ez da orain. Ongiak gaizkia gainditu du, gaizkia ez baita behin-behinekoa besterik izaten.

Indietako erregea ere Asmatekin alai mintzo zen. Elkar besarkatzen zuten, poztasun handiagatik negarrez. Belearn hegotik loreari ihintz argia zetorkion. Jainkoak ez du behin ere abandonaturik uzten Beregan fidatzen den pertsona:

–Orain badakigu Jaunak ongia besterik ez digula eskaintzen –esan zuen Tarielek, eskuak zerurantz jatorik. Ondoren haitzulora sartu ziren eta Asmatek jaten eman zien.

Orduan Tarielek zaldun lagunari esan zion:

–Behin kontatu nizun devi batzuk hil eta haien haitzuloa bizilekutzat hartu nuela. Hauxe da, bada, eta barruan anitz altxor zeuzkaten metaturik. Ez ditut sekula

aberastasun horiek ikusi, ez bainituen nahi. Baina orain zatozte enekin eta ikus dezagun nolakoak diren.


Eta Asmatekin hara joan ziren. Gordelekuko berrogei ate itxiak erraz ireki eta gero, ordura arte inork ikusi gabeko aberastasun harrigarriak miretsi zituzten. Denetarik zegoen han: harri bitxi landu ederrak, piloten neurriko perla zoragarriak... zeinek konta zezakeen inoiz kontatu gabeko urregorri hura guztia?

Altxor guztiok berrogei gelak betetzen zituzten. Haietako bat *zaradkhana* zen, hau da, armaduren gordelekua. Hango armadurak elkarren gainean jarriak ziren, barazkiak balira bezala, baina bazen, gainera, kutxa bat ere, ongi itxia, alde guztietatik zigitatua. Haren gainean hau irakur zitekeen: «Hemen arma miresgarriak aurkituko dituzue, maila kotak, kaskoak, eta Basrah-ko ezpata zorrotzak²⁶. Deviak hauez baliatuko dira kadjiiek eraso baliezaiete. Hauek bestela erabil ditzana erregeen hiltzaile izan daiteke.»

Kutxa hura ireki eta bertan hiru armadura eder aurkitu zituzten, gerrarako hiru zaldun jantzeko behar zen guztia. Dena kutxatiletan ezarria zegoen, errubiz xartaturik. Armadura horiek jantzi zituzten, nola zihozkien ikusteko. Ezkutua, mailak eta buruko kaskoak hautsezinak ziren eta ezpatek burdina erdiratzen zuten kotoizko haria balitz bezala. Esan zuten:

–Hau aski dugu geure zoriona erdiesteko. Jainkoaren begiak so egiten digu goitik, eta zerutik Hura guri begira daukagu.

Luzamendutan ibili gabe, armadura haietako bana hartu zuten, hirugarrena Pridonentzat utzirik. Urre pixka bat ere hartu zuten, bai eta perla arraro batzuk ere, eta berrogei atea itxi zituzten beren atzean. Gaua hantxe eman zuten, hurrengo egunean partitzeko asmoz.



Tariel eta Avtandil Pridonen erresumara doaz

Egunsentian hasi ziren ibiltzen, Pridonen-gana joateko. Asmat ere berekin zeramaten, hasieran zaldi gainean txandaka, harik eta bidean merkatari bat aurkitu eta bere zaldia, urretan, erosi zioten arte. Avtandilek gidatzen zituen eta laster iritsi ziren adiskidearen erresumara.

Bidean Nuradin erregearen abeltzainak aurkitu zituzten, ondoan zaldi talde ederra zutela. Orduan, Indietako erregeak, umore onez, esan zuen:

–Jolas egin dezagun pixka bat Pridon erregearekin, eta ehiza ditzagun haren zaldiak. Zaldiak hartzean, lapurtzat hartuko gaitu eta gure aurka etorriko da, haserre bizitan, zelaia gure odolaz tindatzeko gogoaz, baina ezagut gaitzanean, bihotza lasaituko zaio, eta hagitz poztuko da.

Esan eta egin. Hara abiatu eta zaldirik hobere-nak eskuratu zituzten. Zaltzainek, berehala sute handiak egin zituzten abisua emateko, eta oihu egin zieten:

–Baina zer egiten duzuela uste duzue, bere etsaiak gupida gabe birrintzen dituenaren zaldiak ebatsiz?

Zaldunak, ordea, beren arkuak hartu eta abeltzai-nen atzetik abiatu ziren, ikaratzeko asmoz. Besteak aldiz, gero eta gogorrago hasi ziren heiagoraz:

–Hel, hel guri, ohoinak etorri baitira gu hiltzera!

Zalaparta handia egin zen eta erregeari abisatu zioten. Pridon, burutik oinetaraino armaturik, haiengana abiatu zen, eta zelaian aurkitzen zituen osteei hots egin zien, berari jarraitzeko. Neguak ezin izotz zitzakeen Eguzki biengana hurbildu ziren, baina kaskoek aurpegia

ezkutatzen zieten. Pridon zetorkiola ikustean, Tarialek esan zuen:

–Falta genuena dakusat orain –eta bisera altxatu zuen irribarrez–. Zer nahi duzu, bada? Horrenbeste haserrarazten zaitu gure etorrerak? Hau da hau, adiskideei egiten diezun ongi etorria!

Ezagutu bezain laster, Pridonek zalditik jauzi egin eta burua makurtuz, agur egin zien. Eskuak zerura jaso zituen, eskerrak emateko. Haiek ezagutzen zituzten beste jaunak ere bertaratu ziren, besarkatzeko. Pridonek esan zuen:

–Nola atzeratu zarete horrenbeste? Ni aspaldian nengoen zuen zain. Prest nauzue neure zerbitzuekin laguntzeko.

Bazirudien Eguzki biak Ilargiarekin elkartuak zirela. Zein zein baino ederragorik, beren bideari ekin zioten. Pridonen jauregira heltzean, tronoetan eseri ziren eta Pridoni armadura eskaini zioten, oparizat.

–Ezin dizugu orain beste erregalurik egin –esan zioten–, baina halere, badugu nonbait beste gauza franko ere.

Pridonek, esker onez, beste opari batzuk eskaini zizkien: jantzi ederrak eta urrezko ontzi bat, perlaz eta harri preziatu landuz betea. Eta gaua hantxe eman zuten.

Hurrengo egunean Pridonek esan zien:

–Ongisko dakit abegikortasunak bestela agintzen duela, baina hemendik lehenbailehen irten gaitzela kontseilatu nahi nizueke, kadjiek guri aurea hartu eta beren herrira itzuli baino lehen. Ez dugu soldadu askorik eraman behar. Hirurehun gizon nahikoa izanen dira, ongi hautatuak izanez gero. Behin Kadjetiara helduta, jagoleak geure ezpatekin garbitu eta bere edertasunarekin

hiltzen gaituena berehala aurkituko dugu. Nik herri hori ederki ezagutzen dut eta leku guztietatik harkaitzez inguraturik dago. Hori dela eta, han ez dago borroka egiteko zelai zabalik eta, beraz, hobe da tropa gutxi eramatea.

Hiru zaldunak iritzi berekoak izan ziren. Asmat han utzi zuten, eta Pridonek opariz bete zuen. Gero, hirurehun gerlari bikain harturik itsasoa zeharkatu zuten, gau eta egun bidaiatuz. Pridonek bidea ongi zekien eta honela ziotsen:

–Kadjetiara hurbiltzen ari gara. Gauez ibili beharko dugu, ikus ez gaitzaten.

Guztiek miresten zuten Pridonen zuhurtzia, eta egunez gelditu egiten ziren, gauez aurrera segitzeko.

Azkenean hiria agertu zitzaien harkaitz baten gainean. Jagole ugarik zaintzen zuten. Harainoko bidearen atean hamar mila gerlari ikus zitezkeen. Ilargiak zerua argitu zuenean, Lehoiek hirira begira kontseilu hartu zuten:

–Nola jokatu erabaki behar dugu zuhurki. Ongi aukeratuz gero, ehun gizonek milak baino gehiago balioko dute.

Hiru zaldunen kontseiluak

Pridonek esan zien:

–Hiri hori hartzeko, anitz gerlari geharko genituzke. Gainera mila urte beharko lirateke, atea itxirik badaude. Ni haurdanik, ezinago trebe eta zalua izan naiz beti, eta soka baten gainetik ibiltzen ederki dakit.

Hauxe proposatzen dizuet. Jaurti dezagun kable bat hango dorreraino. Ni soka horren gainetik joanen naiz, inork ikusi gabe. Dorreko gerlariak birrinduko ditut eta, atea ireki ondoren, zuek erraz ukanen duzue sarrera.

Avtandilek esan zion:


—O Pridon, zure adiskideak ezin dira zutaz plai-ni. Zeure lehoi besoak zaintzen zaitu. Zure kontseiluak beldurtuko ditu etsaiak, baina halere, ez al dituzu entzuten jagoleen oihu gero eta ozenagoak? Soka gainetik ibiltzean, zure armadurak hotsa aterako du eta haiek, hori entzutean, kablea ebakiko dute. Arazoa gaizki aterako zaizu, eta saioa alferrik izanen da. Bestelakorik pentsatu beharko dugu.

—Hobe dugu plantak eta itxurak egitea. Jende horiek ez liokete arrotz bati kalterik eginen. Merkatari jantziekin hara sartuko naiz eta mandoetan kaskoa, armadura eta ezkutua eramanez ditut gorderik. Ondoren, inork ikusi gabe, armadura jantzi eta, Jainkoak lagun, odol uhinak isuriaraziko ditut. Arazorik gabe dorreko jagoleak hilko ditut, ateko sarrailak hautsi eta orduan zuek, atea zabalik, barrura sartuko zarete erasoan. Hauxe da nik uste dudana, baina prest nago besteren iritziak ere entzuteko.

Tarielek erantzun zion:

—Adore nabarmena erakusten duzu, adiskidea, eta badakit borrokan hasteko irrikitan zaudela, baina ezin zaitugu hor barruan bakarrik utzi. Kontseilu hobea emanen dizut. Har ditzagun ehuna gizon eta, goiztirian, hiru aldetatik abiatuko gara hara zaldiz. Haiek aurrera etorriko zaizkigu eta gure esku sendoek ezpatei eutsiko diete. Borrokaren hasieran atetik urrinduko ditugu, eta gutariko batek atzea hartuko die, irtenbiderik izan ez dezaten.

Pridonek esan zion:



—Oso ongi ulertu dut eta badakit horrek zer esan nahi duen. Duzun zaldi hori lehenago enea izan zen, eta ezerk ez dio aurea hartuko. Ez nekien Kadjetian balioko zigula, bestela ez nizun emanen.


Guztiak barre egin zuten, txantxa hartaz gustaturik. Tarielen aburua hobetsi zuten eta bakoitzak ehuna gerlari hautatu zituen. Ondoren zaldi gainera igo ziren, eskuan ezkutua harturik.

Kadjetiake gotorlekua hartu eta Nestan-Daredjan askatzen dute

Tkusi ditut zaldun horiek, jaun distiratsuagoak Eguzkia bera baino. Zazpi planetek beren argitasunezko zutabeekin estaltzen zituzten. Tariel, planta lirainekoa, bere zaldiaren gainean jarria. Hirurek beren etsaiak suntsitzen zituzten, ikusten zituztenak hilaraziz. Orain esanen dizuedanak azalduko dizue nolako itxura zuten: uholdea bezalakoak ziren, suzko hodei handiz osatua, bere amileran oihan osoa eramanez, itsasoratzean, ordea, bat-batean lasai gelditua.

Avtandilek eta Pridonek guztiak gaintitzen zituzten beren kemenaz, baina, halere, inork ez zuen Tarielen aurka borrokatu nahi. Eguzkiak planeta itzaltzen du eta izartegia zurbilarazten. Entzun nazazue baina, gudu latza nolakoa zen jakin nahi baduzue. Gauean beren egitekoa prestatu eta, haietako bakoitzak hiri horren ate bana aukeratu zuenean, zerraizkien hirurehun gizonak heroi gisa oldartu ziren, nor bere ezkutuarekin horniturik.

Lasai zihoazen, bidaiariak ohi doazen bezala, inork ezagutzeke, mesfida ez zitezen. Ezeri beldurrik izan



gabe, aitzineratzen ziren eta aski hurbildu zirenean, bat-batean kaskoak jantzi zituzten. Orduan, zaldiak ezproiaz zirikatuz, beren zigorrak airean ziztuka, galapan abiatu ziren. Hiru lekuetatik ate irekietaraino zuzendu ziren, beren adarrak, zinbaloak eta danborrak joz.

Kadjetiaren gainera Jainkoaren haserrea amildu zen ikaragarriro. Kronos gaiztoak Eguzkiaren gozotasuna ezkutatu eta ortzia eraitsi zien, zeruko gurpila bezala. Landek ere ezin eduki zitzaketen beren gainean pilatzen ziren gorpuak. Tarielen orroak entzutean gizonek konortea galtzen zuten. Armaduren kateak hausten zituen eta maila kotak goitik behera urratzen. Toki guztietatik egiten zuten eraso, hiltzeari erraz iritziz. Eta azkenean hirira sartu ziren, gotorlekua birrinduz.

Avtandil eta Pridon lehoia gazteluaren erdialdean elkartu ziren. Etsaia zatikatzen zuten, haren odola uholdeka isuraraziz. Oihuka ari ziren, pozik, ingurura so:

–Non da bera? –galdetzen zuten, begiekin Tariel bilatuz. Dorrearen atera begiratu eta han, elkarren gainean metaturik, arma puskatuak ikusi zituzten, hamar mila zaintzaileen gorpuekin, lurrian etzanik. Haien gorputzak zati huts ziren, armadurak erabat urraturik. Tarielen lana ikusi zuten berehala sarraski horretan.

Dorrerako sarbidea aurkitu eta hara joan ziren presaka. Azkenean, sugeagandik aske, Ilargia Eguzkiarekin elkartua zen. Bere kaskoa alde batera jaurtia zuela, ile beltz luzeek burua edertzen zioten. Bularra bularraren kontra hertsaturik zituzten, lepo biak bat eginik. Besarka ari ziren maitasunez, musuka, eta biei negarra zerien. Edonork ikusi uste zuen han Muxtar eta Zual. Eguzkiak bere ukituarekin are ederrago egiten du arrosa. Gaitz handiak pairatu ondoren, zoriontsu izanen ziren jada betiko.

Avtandil Pridonekin heldu zen eta hiru anaiak berriz elkartu ziren. Nestanen aitzinean makurtuz, hura

errespetuz agurtu zuten. Neskak Tarielen adiskide biak besarkatu zituen esker onez. Pozik zeuden guztiak, eta hizketa gozoan aritu ziren, hitz ederrak esanez. Lehoiak bezalakoak izanak ziren, beren etsaiei aker eta orkatz zeritzela.

Hara eramaniko hirurehun gizon haietarik hirurogei besterik ez ziren bizirik gelditu. Pridon, hargatik, triste zegoen, bihotza, bestetik, pozik bazuen ere. Oraindik bizirik zeuden kadjien bila ari ziren, heriotza emateko. Zeinek konta zitzakeen zaldunen altxorrak, han bilduak? Mandoak, gameluak eta bestelako zamari motak ekarri eta zamatu zituzten. Guztira hiru mila, perla eta gema baliotsuz beteak. Errubiak landuak ziren, hiazintoak bezala. Eguzkia palankin batean ezarri zuten, zaintzailez inguratua.

Gotorlekuan gizon batzuk utzi zituzten, jagon zezaten. Eta Eguzki zoragarria eramanez, itsasoetako hirirantz partitu ziren, bidaia luzean. Esan zuten:

—Goazen orain Fatman ikustera, merezi bezala saritu behar dugu eta.»

Tariel itsasoetako erregeagana heltzen da

Beren aurretik mezulari bat igorri zuten itsasoetako erregeagana, esan ziezaion: «Tariel nauzu, neure etsaien suntsitzailea. Kadjetiatik dakart bere geziekin zulatu ninduen. Zu senide eta aitatzat ikusteko ohorea nahi nuke izan. Orain kadjien herria eta beraren altxor guztiak eneak dira. O errege, heldu zaidana, hel dakidala zure graziarekin. Fatman, zure herrikoa, haren

ama eta ahizpa izan zen, hari esker askatu dugu eta. Zatoz bada, luza gabe. Kadjién herria ematen dizut oparitzat. Onar ezazu ene eskaintza hau! Jar itzazu han, bera gordetzeko zeure jendeak, eta zain ezazu ongi bertako gotorlekua. Esaiozu Fatman-Khatunari, Usenen emazteari, beragatik askatuak bera ikusteko gogo handia duela. Hark Eguzkia gainditzen baitu, kristalak erretxina bezala.»

Erregeak Tarielen mezularia ikustean, hunkiturik geratu zen hain berri harrigarriekin, eta bere zaldi gainera igoz, haren bila irten zen, ongi etorria ematera. Mando asko kargatu zituen, ezteietarako opariekin, anitz gauza eder, azabatxe eta harri bitxi franko. Fatman ere eraman zuen berekin eta hamar egunez ibili behar izan zuten. Berau pozik zihoan, Eguzkia berrikusteko irrikaz, mundua argitzen zuen lehoiarekin batera.

Bildu ziren bada, azkenean, guztiak. Zalditik jaitsi eta elkar agurtu zuten, besarkadaz. Erregeak Tariel gorai-patu eta eskerrak eman zizkion, eta Eguzkia ikustean haren errainuz zoraturik gelditu zen. Fatman ere garretan jarri zen haren aitzinean eta aurpegian, eskuetan eta oinetan muinkatzen zuen, zioela:

–Jainkoa, zeure zerbitzaria izanen nauzu, ene ilunak argitu baitituzu. Gaizkia beti iragankorra da, baina ongia, aldiz, mugagabea.

Neskatxak erantzun zion:

–Jainkoak ene bihotz gaixoa salbatu du, zimel-tzen eta urratzen ari zena. Orain loretan nago, hilik nengoena. Ene Eguzkiari argia dario eta arrosa ez dago ihartua.

Itsasoetako erregeak jaialdi handiosak ospararazi eta hiru zaldunak han zazpi egunez eduki zituen. Ekarri zituen aberastasunak eskaini zizkien. Urrea zoruan sakanabatzen zen eta guztiek ohondikatzen zuten. Baziren

han brokatuak eta zeta ederrak ere bai. Tarieli koroa prezagaitza eskaini zion, hiazinto bakarraz egina, kolore hori eta gardenezkoa, eta trono bat ere eginarazi zion, urre hutsezkoa, nahasterik gabea.

Nestanek harri bitxiz josiriko jantzi ederra jaso zuen, hiazintoz eta perlaz apaindua, Badakhxaneko errubi distiratsuekin¹³. Neskak eta gizon gazteak, horrela eseririk, tximista itsugarriak ziruditen. Pridon eta Avtandil ere opari baliotsuekin hornitu zituen. Haietako bakoitzari zaldi bana eman zien, prezio handiko zelarekin, eta harribitxiz aseriko jantziak ere bai.

Guztien izenean Tarielen eskerrak eman zizkion erregeari:

—Zorionsua naiz, o errege, ikusi zaitudalako, eta zure eskutik jaso ditugun present hauek biziki poztu gaituzte. Ongi egin dugu, zinez, hemen gelditzean, zu agurtzeko.

Erregeak erantzun zion:

—O errege, lehoi ongilea, hiltzen zintuenari bizia eman eta urrun zeudenak hiltzen dituzuna! Zein opari izan daiteke zure mailakoa, zu zeure buruarentzat zaren bezala? Abandona nazazunean, zer nahi izanen dute ene begiek?

Ondoren Tarielen Fatmani esan zion:

—O, zu, ene arreba! Zurekin dudan zorrak ez du mugarik. Nola ordain dezaket? Halere, har itzazu zuretzat Kadjetiatik ekarri ditudan altxor hauek, oparizat.

Fatmanek erantzun zion:

—O errege, zugandik urrundu beharrak erretzen nau, ezin iraungizko suekin. Zorionsuak zure aldame-nekoak; zoritxarra zugandik urrunekoentzat!

Handik joateko, erregeak itsasontzi handi bat eskaini zien eta, hartan sarturik, Pridonen erresumara

partitu ziren. Agurtzean portukoei negarra zerien eta Fatmanen malkoek itsasoko uhinak gainditzen zituzten. Joan ziren, bada, hiru anaiak, zinpean elkartuak, eta oraingoan barrezka eta kantuz zihoazen, beren koralezko ezpaineekin.

Lehorreratzean, aurretik Asmati mezulari bat bidali zioten, berri ona eraman ziezaion. Nestan palan-kinean atera zuten eta Pridonen herriko guztiak, pozarren, kantuz, haiengana joan ziren, ongi esanaz. Haien artean Asmat zegoen, iraganeko zaurietatik jadanik sendatua. Nolako besarkada egin zioten elkarri andreak eta neskameak. Neskak esan zion:

–Nolako penak sorrarazi dizkizudan! Ez dakit zer egin dezakedan hain bihotz handia saritzeko.

Asmatek erantzun zion:

–Jainkoari esker, berriz arrosa ikusi dut, izoztu gabea. Pozik zakuskit orain, eta hortaz, heriotza bizia irudituko zait.

Nagusiak eta menekoak adiskideek baino maite-ago zuten elkar.

Jaun handi asko hurbildu zitzaizkien, ohore egitera. Tarielek esan zien:

–Zuen anaietako asko hil dira gugatik. Egiazko zoriona aurkitu dute, eta ez amets iragankorra. Haien loria ehun aldiz handiagoa da, Bakarrarekiko batasunean. Haien heriotzak pena handia ematen didan arren, bada-kit, halere, hilezintasunaren dohain nagusia jasoa dutela.

Eta haiengatik umilki egin zuen negar, euria elurrarekin nahasiz. Haren nartzisoek haizeari putz egiten zioten, eta urtarrilak arrosa izozten zuen.

Pridon eta Avtandil hura kontsolatzen saiatu ziren, Mulgazanzarrerako bidean. Hirian nonahi adi zitekeen adarren, txirulen eta danborren zaratotsa. Hiritar

guztiak haien bila zihoazen, azoka eta dendak abandona-
turik. Jagoleek, armak eskuan, inguratzen zituzten eta
familia osoak hurreratzen ziren, haiek ikusten uzteko
erregutuz.

Pridonen jauregiaren aitzinean zalditik jaitsi
ziren. Han, abegia egiteko zeuden esklabo guztiek urrez-
koa zuten gerrikoa. Haien oinen azpian brokatuz eginiko
tapiz luzea ezarria zuten eta ibiltzean urrezko txanponak
jaurtitzen zituzten, ikusleek bil zituzaten.

Tariel eta Nestan Pridonenean ezkontzen dira

Pridonek ezkongaiantzat trono zuria prestatu
zuen, purpuraz nahasia, harri baliotsuz xartatua erabat,
bitxi gorri eta horiekin. Avtandilenzat, aldiz, trono
horia, ertz belzduna, jarri zuen. Hantxe eserarazi zituen,
jendeak txaloak jotzen zizkien artean. Ondoren, kanta-
riak hurbildu zitzaizkien, kantu gozoak eskainiz. Eta
opariak zeta bigunezko oihal ederretan metatzen ziren.
Pridonek ohore egiten zien, abegikorra baitzen.

Pridonen eskaintzak honako hauek izan ziren:
bederatzi perla, antzara arrautzak bezain lodiak; gero
prezio handiko harri bitxia, Eguzkia bezain distiratsua;
pintatzaile batek bertan gaua pinta zezakeen bere ñir-ñir
guztiekin. Ondoan, samak apaintzeko, iduneko bana
eman zien, zati landuz eta leundu gabeko hiazintoz egi-
nak. Nekez sostenga zitekeen haiek aurkezteko platera,
halakoxea baitzen Pridon aberatsak Avtandil lehoiari
emaniko dohaina. Belus ederrek eta brokatuek etxe osoa
betetzen zuten. Tariel, erregekiro, hura guztia eskertzen
zuen.

Pridonek zortzi egun osoz ospatu zituen ezkon-
gaien ezteiak eta egunero gehitzen zizkien balio handi-
ko eskaintzak. Egunez eta gauzez entzun zitezkeen han
harpak eta lauteak jotzen. Neskatilak bere kidea aurkitu
zuen, eta zaldunak ere berea.

Egun batez baina, Tarierek Pridoni honela esan
zion:

–Nire anaia bazina baino maiteago zaitut, eta
ezin dezaket ezer egin zure mesede handiak ordaintzeko,
ez arimarekin ez eta bizitzarekin ere. Hiltzear nengoen,
baina, zuri esker, honezkero sendatu naiz. Ongi dakizu
Avtandilek negatik norainoko sakrifizioak egin dituen.
Eta harekin dudan zorra kitatu beharra sentitzen dut.
Esaiozu, otoi, berarekin Arabiaraino joateko prest nago-
ela, han ezkon dadin laguntzera.

Pridonek adiskideak eskaturikoa betez hori guz-
tiori Avtandili jakinarazi zionean, honek barrezka ihar-
detsi zion:

–Ez dut inolako laguntzarik behar. Ni ez nago
zauriturik, kadjiek ez daukate ene Eguzkia, eta berak ez
du alaitasunik falta. Jainkoaren borondatearekin bat,
ene Eguzkia tronoan jarria da, ohore eta errespetu han-
diz. Zoaz eta esaiozu Tarieli honako hau: «Bihotzez
eskertzen dizut, baina ez dut saririk nahi, zu zerbitza-
tzeko bainintzen ni amaren sabelean jada. Zure oinen
azpiko lurra izanen naiz errege izanen zaren denbora
guztian. Esan didazu maite dudanarekin ezkondu-
rik ikusi nahi nauzula. Hor ageri da nolako arima zintzoa
duzun. Bestelako da baina, ene gogo. Zu Indietako tro-
noan jarririk ikusi nahi zaitut, argizagi distiratsu hori
ondoan duzula. Ene bihotzeko nahiak behin betez gero,
arabiarren herrira joanen naiz, neure Eguzkiaren ondora.
Hark, nahi badu, ene gar sutsua ito dezake. Zuregandik
ez dut deus besterik nahi eta ez ditut lausenguak atse-
gin.»

Pridonek hori jakinarazi zionean, Tarielenk erantzun zuen:

–Ez dut behin ere eginen eskatzen duena, berak ene Eguzkia, ene izatearen iturria aurkitu duenez gero, ulertu beharko du beragatik bere anaia zer egiteko prest dagoen. Esaiozu, beraz, nik ere ez ditudala zurikeriak gogoko eta ez naizela joanen bera hezi duena ikusi gabe. Haren zerbitzari maite asko hil nituela uste dut eta orain haregana itzuli beharra daukat, barkeske, neure etxera joan baino lehenago. Eta esaiozu, mintzatzeko, ez dudala bitarteko gehiagorik nahi. Bihar bertan ilkiko naiz hemendik, Rostevan erregea ikustera. Segur naiz haren konfiantza erdietsi eta jakinen dudala nola erregutu, bere alaba eman diezaion emaztetzat.

Pridonek halaxe jakinarazi zion:

–Tariel joateko prest dago, eta alferrik izanen da hemen atxiki nahia.

Avtandil mindu zen, baina on da zaldunak burua erregearen aitzinean makurtzea. Halere Tarielengana joan zen eta belauniko jarri zitzaion, erreguz:

–Erruduna naiz Rostevanen aurrean, ez nazazu, otoi, hara berriz joatera bortxa. Horrek seguraski maite dudanaren eta nire artean haserrea sorraraziko du. Eta, ai ene, haren bihotza kontra badut! Saminki sufriaraziko lidake, harengandik urrun, haren berririk izan gabe. Orduan ezein bizidunek ezingo lioke niretzako barkamenik eskatu.

Tarielenk, Eguzki distiratsuak, irribarrez ihardetsi zion:

–Zure laguntzak neurrigabeko mesedea egin dit, baina nahiago nuke zure zoriona enearekin batera balitz. Segur dakit zure maitearen bihotza zeure duzula. Ni ikusteak, zure aldetik noalarik, ez dio penarik ekarriko. Erregea ikusi nahi dut, eta errespetuz bere alaba eman

diezazula eskatuko diot, berak hala nahi badu. Elkarrentzakoak bazarete, zergatik egon behar duzue urrundurik, bada? Batak bestea apaindu behar duzue, bakarka zimeldu gabe.

Tarielek zin-zinez jarraiki nahi ziola ikustean, Avtandilek, azkenean, eztabaida bertan behera utzi eta baiezkoa eman zion. Pridonek segiziorako gerlariak hautatu ondoren, bera ere berekin abiatu zen bidean.

Hiru zaldunak haitzulora heldu eta handik Arabiaratzen dira

Dionos jakintsuak gauza estariak erakutsi zituen²⁷; Jainkoak ez zuen inoiz gaizkia sortu, eta ez digu egiten ongia besterik. Bere izatea gero eta osamaituagoa du, behin ere endakatu gabe. Hiru zaldunak Pridonen herritik irten ziren, berekin Nestan zoragarria eramanez. Belearn hego ederrak haren kristal garbiaren gainean txirikordatzen ziren, Badakhxango errubiak fintasun osoz hornituz.

Eguzki eder hori palankin batean zeramaten. Bidean hiruzaldunak kantari zihoazen eta bisitatzen zituzten herrietako ikusleak zorionsu sentitzen ziren, ortzian Eguzkia Ilargiez inguraturik ikusi uste baitzuten. Zaldunak luzaro ibili ziren, zuhurtziaz mintzatuz, eta basamortu zabal bat zeharkatu ondoren, Taniel bizi izandako haitzulora iritsi ziren.

Zaldunak esan zien:

—Komeni da gaur ni zuen ostataria izatea. Hara joanen naiz, ero antzera bizi nintzen tokira. Asmatek bizi-ki ongi tratatuko gaitu, haragi keztatu ugari dauka eta.

Gero opariak eginen dizkizuet, eta zeta ederrak miretsiko dituzue.

Zalditik jaitsi eta harkaitzeko zulora ailegatu ziren. Asmatek oreinki errea prestatu zien. Adiskidetsu, iraganeko gauzez mintzo ziren, atseginez, eta Jainkoa goresten zuten, beren ordu tristeak hala alaitzeagatik.

Gero, haitzulo barrura sartu eta Tarielek bertan gorderik zeuzkan altxorrei begira gelditu ziren. Inork ez zuen inoiz halakorik ikusi. Hark, bakoitzari zegokionez, erregalu bikainak egin zizkien. Pridonen zerbitzariak eta haren gerlariak eta buruak oro aberastu zituen, eta ez zituen ahantzi borrokan harekin ibilirikoak ere. Baina, halere, altxorak ez ziren gutxitzen, hain ugariak izanik.

Pridonengana hurbilduz esan zion:

–Nik ezin ordain dezaket zurekiko zorra, baina ongia dagiena ez omen da behin ere hilko. Halere, har itzazu altxor hauek guztiok eta eraman itzazu zurekin, zureak dituzu.

Pridonek oso apal agurtu zuen, bere eskerra adieraziz.

–O errege, ene zorionak zu ikusten zaitudan bitartean iraunen du.

Ondoren, Pridonek bere jendeak bidali zituen gameluen bila, altxor haiek guztiak berera eramateko. Eta hiru zaldunek bideari segitu zioten. Avtandil, ilbeheran, bere Eguzkia berrikusteko antsiaz zegoen.

Anitz egun igaro ondoren, azkenean Arabiara iritsi ziren. Herrixkak eta gotorlekuak edonon ageri ziren eta toki horietako lagunak urdinez eta berdez jantzirik azaltzen zitzaizkien. Guztiak Avtandilez gogoratzen ziren eta negar uholdetan bainatzen ziren. Tarielek Rostevani mezulari bat igorri zion, hau esateko:

«O errege, zure nahi guztiak bete daitezela. Indietako erregea nauzu eta zuregana nator, arrosaren ninika freskoa erakustera, inork oraino hartu gabea. Ene! Behinola ikusi ninduzunean, zoritxarra ekarri nizun. Gaizki egin zenuen harrapa nintzatela agintzean, eta neure amorrua erakutsi nizun zure gerlariak hiltzean. Zure zerbitzari asko, gehiegi, hil nituen, zure jauregikoak. Orain barka eske natorkizu, erruduna bainaiz zure aitzinean. Ez dakarkizut opari bat besterik, Avtandil, hain zuzen.»

Mandatariak berri on horiek ekarri zizkionean, erregea zoriontsu sentitu zen, ezin azalduzko poztasunaz. Errainu hirukoitzek argitu zuten, halaber, Tinatinen aurpegia, eta betile-bekainen itzalak kristala eta errubia ederreztatzen zituen. Danborra joarazi zen eta gerlariak, harrera egiteko, berehala hasi ziren zaldiak zelatzen. Erregea bera bere zaldi gainera igo eta beste buruzagiekin jalgi zen. Jendeek Goiko Jauna gurtzen zuten, oihuz: «Ez da gaizkirik, ongia beti prest duzu eta!»

Erregea hurbiltzen ikustean, Avtandilek Tarieli honela esan zion:

—Ikus ezazu hauts multzo hori, ene anaia, zelai osoa estaltzen duena. Hor ene gaztaroko aita dator, zuregana. Ni, aldiz, lotsarren, ezin joan naiteke beragana eta, horregatik, garrek erretzen naute, labean banengo bezala. Ezein bizidunek ez du sekula izan nik sentitzen dudan ahalkea eta ezinegona. Zuk eta Pridonek jakinen duzue nitaz zer egin.

Tarielek erantzun zion:

—Ongi da zure jauna horrela ohoratzea. Zaude hemen eta ez niri jarraiki. Erregeari dena kontatuko diot eta, Jainkoa lagun, zeure Eguzkiarekin bilduko zaitut.

Avtandil hantxe geratu zen, prestatu zioten dendan. Harekin Nestan zegoen, ikusten zutenen miresgarri.

Indietako erregea galapan zihoan, ez ezkutuki. Ondotik Pridon zerraion, beti lagun.

Erregeak esan zuen:

–Tariel da, itxura paregabekoa.

Eta zalditik jaitsita, lehoi ausarta agurtu zuen, Indietako erregeari zor zitzaion abegia eskainiz. Tarielen ere agurtu zuen eta beragana hurbildu zen, besarkatzeko. Erregeak bere lepoa eta ezpainak eskaini zizkion. Harri-duraz mintzatzen zitzaion, pozik, hantxe zekusalako:

–Eguzkia, zuregandik urruntzea eguna gau beltz bihurtzea da.

Erregeak haren planta harro eta bikaina miresten zuen. Gero Pridon iritsi zen, Rostevani errespetua erakustera. Erregeak baina, Avtandil ikusteko zuen gogoia. Orduan Tarielen esan zuen:

–O errege, ene bihotza beti izanen duzu zeure menpeko. Harritzen nau, ordea, zuk ene balioa hainbeste estimatzea, zuk, Avtandil zeure eskuko duzun horrek. Ez harrigarri iritzi bera bidean gelditua izateari. Zatoz, eser gaitzen hemen, belardi gozo honetan eta azalduko dizut zergatik ez den oraindik azaldu. Badut, gainera, zuri eskatzeko zerbait, hala egiten uzten badidazu.

Elkarrekin jesarri ziren, soldaduek inguratutik. Eguzkiak distira egiten zuen, argitsu, Tarielen aurpegian. Rostevanekin hizketan hasi zen, eleder, zuhurtzia handiarekin.

–O errege, ez dut merezi berri hau zuri ekartzeak. Halere, erreguz natorkizu, haren alde hitz egitera. Hura neure Eguzkia dut, egunsentia; emaiuzu, otoi, eskatzen duena.

–Avtandilek era guztietako oinazeak pairatu ditu nigatik, ene maitearen bila. Orain biok ausartzen gatzaizkizu otoiztera. Zure seme-alabek elkar maite dute.

Nik mutila zurbil eta negartsu ikusten dut, urrikalgarri. Belauniko eskatzen dizut haren gar sutsua itzal dezazula. Emaiozu zeure alaba zaldun horri, beso sendoak eta marmolezko bularrak dituenari. Honezkero ez dizut beste konturik esango, luze edo laburrik.

Eta ondoren, bere zapia hartu eta lepoaren inguruan korapilatu zuen, soka baten antzera, erregearen aitzinean belaunikaturik. Hura ikustean guztiak aho zabalik gelditu ziren harriduraz²⁸.

Erregeak Taniel belauniko ikustean, deseroso sentitu zen. Pixka bat urrundu eta, aurpegia lurreraino makurturik, agurtu zuen, esanez:

—O errege, poz guztia zapuztu didazu, zu horrela, menpeko gisa, umiliaturik ikustean. Nola esan niezaioke nik ezetzik zure eskariari? Ene alaba zure zerbitzarietako batekin ezkondu nahi izan bazenu ere, ez nizukeen ukatuko. Zeinek errefusa liezazuke? Baina non topa nezake neuretzat suhi desiragarriagorik? Zerurantz hegaz eginik ere, non aurki lezake ene alabak beste Avtandil bat? Eta Avtandil hain maite ez banu, izan al nezake bera ikusteko honenbeste gogorik?

Erregearen hitzok aditzean, Taniel haren aurrean makurtu zen, adeitasunez. Erregeak ere berriz agurtu zuen, zaldunagana hurbilduz, eta biek eskerrak eman zizkioten elkarri. Pridonek bere zaldi gainera jauzi egin zuen, Avtandili berria eramateko. Bozkarioz zihoan, ororen alaitasunaz. Harengana heldurik, berehala hartu eta erregearen aitzinera eraman zuen, baina Avtandil ahalkor zegoen, eta haren errainuak aski apalik.

Erregea beragana zetorrela ohartzean, zalduna zalditik jaitsi eta bere zapiak aurpegia estaltzen zuen, lotsaz. Arrosa tristea izozten ari zen, eta Eguzkia itzaltzen, baina ezerk ezin ezkuta zezakeen haren edertasuna. Erregea hura besarkatzera heldu zen. Avtandilek oinetan muin egin zion. Erregeak agindu zion:

–Jaiki eta ez hadi gehiago herabe izan. Honen-
beste estimatzen nauenak ez dik ezeren lotsa izan behar
–eta besarkaturik, musu eman zion aurpegiari.

Erregeak esan zion:

–Ene labea itzaltzera hator, heure urarekin ni
freskatzera. Ikusak bere azabatxezko betileekin inguru
osoa ureztatu duena. Hator bada, o lehoi, Eguzkiagana,
nik laster batuko zaituztet eta.

Eta bere ondoan eserarazi zuen heroi hura, erral-
doi boteretsua, haren begitarte ederretsiz. Ongi merezia
zuen, bai, Avtandilek Tinatin, Eguzki ahaltzu hori! Izan
ere, pozak alaitu ohi gaitu, behin atsekabea ezagutuz
gero.

Zaldunak erregeari esan zion:

–Harritzen naiz zu bestelako gauzez ez mintza-
tzeaz. Zergatik ez zoaz Nestan ikustera? Egiozu harrera,
adeitsu, eta eramazu zeure jauregira. Horrela, bere errai-
nuekin etxea argituko dizu.

Eta guztiak Eguzkiagana joan ziren, bilatzen
zutena ikustera. Ezpata biluziak eskuan zeramatzaten,
gerrikoan lotu gabe.

Erregeak, palankinera heltzean, kortesiaz agurtu
zuen erregina, eta bere begiak itsutu ziren haren argita-
sunaz. Biziki goraiatu zuen hura Rostevanek:

–Nola lauda nezake Eguzki klar eta hodei gabe
hau? Ez da alferrik esan erotzen dituzula jakintsutzakoak.
Ilargi eta Eguzkiaren pareko, zein argizagirekin konpara
zaitzaket? Honezkero ezingo dut arrosarik ikusi, ez eta
bioletarik ere.

Jauregirako bidean toki orotatik heltzen zen jen-
dea argitasun miresgarri hura ikusteko. Eguzki hori
zeruko zazpi planetekin konparatzen zuten, baina inork
ezin zezakeen haren edertasuna erabat adi ez eta uler

ere. Jauregiaren sarreran Tinatin ikusi zuten, zekusana erretzen zuena. Zetroa, koroa eta purpura fina ongi zihozkion bere edertasunari. Indietako erregea hurbildu zitzaion, koloso baten irudiko Eguzkia.

Nestanekek eta Tariaiek apaltasunez agurtu zuten. Neskatilak elkar besarkatu eta laster hizketan hasi ziren, pozez. Etxea klartzen zuten, amaigabeko argitasunaz. Azabatxea betile bilakatzen zen, eta errubi eta kristal bilakatzen ziren haien masailak. Tinatinek bere tronorantz deitu zituen. Tariaiek eta Rostevanek bera eskutik hartu eta Avtandilen ondoan jarri zuten. Biak ederragoak ziren ikusgarria eta ikustezina baino, eta maitale horiek ez zuten kiderik, ez eta Vis eta Raminengan⁴ ere.

Neskatxa aztoraturik zegoen Avtandil bere ondolan ikustean eta zurbil jarri zen, bihotza taupadaka bular barruan. Erregeak esan zion:

–Ene haur maitea, ez nitaz kexa. Jakintsuak dienez, maitasunak azkenean bere helburua beti erdietsi ohi du. Jainkoak eman diezazkizuela, seme-alabok, mila urte zoriontsu, arrakasta, loria eta poza, zuen nahigabea ezerezteko. Zeruak iraunkor egin zaitzatela, Jauna bera bezain fermu. Eta nahi nuke zeuen eskuek ni ehorztea.

Erregeak bere osteei zalduna agur zezatela agindu zuen:

–Honezkero bera duzue errege. Zerbitza ezazue ni egin nauzuen bezala.

Gerlariak eta jaun handiak haraxe hurrandu ziren, omenaldia eskaintzeko. Ondoren, Indietako erregea mintzatu zen, hitz esperantzarriokin:

–Jadanik baturik zaudete, eta sugarrak ez zaituzte gehiago samintzen. Neskatila, zure senarra anaia dut nik, eta nahi nuke zu ene arreba izan zintezan. Lotsaraziko ditut traidoreak oro, zuen kontra ausart litezkeenak.

Avtandil eta Tinatinen ezteiak Arabiako erregearenean

Avtandil tronoan zegoen, jaun handi, erregetzat, eta bere ondoan Taniel zuen jarria. Nestanek eta Tinatinek ikusle guztiak zorutzen zituzten. Zerua husten zela zirudien, bi Eguzkiak hala elkaturik agertzean.

Armadaarentzako bazka prestatzeko, janariak ekarri eta kontaezineko behi, idi eta ahariak hilarazi ziren, bakoitzari bere mailaren araberako anoa emanaz. Errubizko ontziak ziren han, hiazintozko kikarak eta baxera koloreanitza, txit ederki landua. Oi, jakintsuek berek goretzi nahi lukete eztei hauen goreslea! Musikariei dei egin zitzairen eta zinbaloak jotzen hasi ziren nonahi. Badakhxango errubi politek eta urrea pilaka metatzen ziren nonahi. Ardo iturriak ehun lekutan isurtzen ziren edaleen pozerako. Goiztiritik arratseraino oparo edan zen han.

Biharamunean Rostevan erregeak, alaitasunez ase, ospakizunetan segitu zuen. Taniel eta Nestanentzat trono bana eginarazi zituen, eta bere gorentasuna alde batera utzirik, adiskidetsu tratatzen zituen. Haiei opari franko eskaini zizkien, Pridon Avtandilekin zegoen artean. Usoaren arrautza politen neurriko perlak, bitxi harri-garriak, errubi landu ikusgarri eta mila garaño hautatu, mendixkak bezain handiak. Horrez gainera, bederatzi zaldi ongi tresnatu, zela prezatuz ongi hornituak. Indietako erregeak eskertzen zuen omenaldi hura. Hordi zegoen, baina gizon zentzudun bezala mintzatzen zen.

Zertarako segi? Hilabeteko egunak hala joan ziren dostatzen eta jan-edanetan. Tarielek arrosa zirudien, elur zuria sakabanatuz. Avtandili, ordea, bere izenean Rostevan erregeari hitz egiteko eskatu zion, honela esan ziezaion:

–Zure aldamenean ezin pozago nago, jauna, baina ene erresuma etsaien eskuetan egon daiteke. Jakintsuaren zientziak eta arteak ezjakina ezereztuko dute. Badakit ene zoritxarrak atsekabetuko zaituela. Joan beharra daukat, egonezak kaltea ekarri baino lehen, baina berriz etorriko naiz, zu ikusteko, beti ere zorientsu.

Rostevanek erantzun zion:

–O errege, zergatik zaude hain nahigabeturik? Egizu komeni dena, azter eta begira itzazu gauzak ongi. Eramazu armada handi bat, eta zu laguntzeko, doala Avtandil ere. Eta suntsi itzazu zeure etsai guztiak, traidoreak barne.

Avtandilek Tarieli erregeak agindua esan zionean, honek ihardetsi zion:

–Ez ireki zure kristalezko lerroak. Eguzkiak Ilargia utz dezake, harekin elkartu eta gero?

Avtandilek erantzun:

–Ez nauzu engainatuko horrelako mintzairaz. Abandonatu nahi al nauzu, ni gabe, alde eginez? «Bere emaztea maite duenez, alde batera utzi nau», hori al da nitaz pentsatu nahi duzuna? Ai zeinen tristeza duen lagunak lagunagandik urrundu beharra.

Tarielek, irribarrez, esan zion:

–Urrun izanen naizenean, zuk adina sufrituko dut nik ere, baina zerorrek hala nahiago duzunez, zarraizkit, ez dizut eragotziko.

Eta bere soldaduei biltzeko agindu zien. Berehala arabiar armada elkartu zen. Laurogei mila gerlari armatu, gudurako prest. Gizonak eta zaldiak Korezmiako armaduraz horniturik zeuden.

Erabat tristeza izan zen agurra. Neskatek, zinpeko ahizpek, bular-lepoak hertsaturik, negarrez agurtu zuten elkar, ikusleak oro hunkituz. Ilargia zeruan goizeko iza-

rraren bila datorrenean batetik eta bestetik distira egiten dute, eta haietako bata edo bestea bertan geldi baledi, zeruak laster urrunaraziko luke. Biak planeten irudira sortu zituenak beren gogoz urrunarazi zituen, elkarrengandik urrundu nahi gabe baina.

Nestan-Daredjanek esan zuen:

–Ezagutu ez bazintut, ez ninduke urtuaraziko neure Eguzkitik urrundu beharrak. Ez ahantz, otoi, aldizka, zure berriak niganaino helarazteaz. Zuganako maitasunaz erretzen naiz eta zuk ere halaxe urtu behar-ko duzu nigatik.

Tinatinek esan zion:

–O Eguzki, ikusten zaituenari gozotasuna demaiozuna, nola nagoke zu gabe? Jainkoari eskatzen diot hil nazala, berriz ikusten ez bazaitut. Izan bitez zure egunak luzeak, nik guztietan zugatik negar egiteko.

Eta are estuagorik besarkatuz, azkenean partitu ziren. Gelditzen zenaren begiak hara adi, eta zihoanak, maiz, atzera itzuli. Eta nik ezin nezake konta adierazi nahiko nizuekeena.

Rostevanek, besartean agurtu zituen, esanez.

–Zuen etorrera amets baten antzekoa izan da. Zu galtzean hogeit aldiz abailduko nau penak. Izatea ekarri zeniguten eta orain zuek berriz daramakiguzue.

Ondoan, joaten zekuskien tristerik, mila aldiz errepikatuz:

–Hau zoritxarra! –eta malkoak isurtzen zituen bor-borka eltzetik ur irakina bezala.

Soldaduak ere plainitzen ziren, zelaiak negarretan ureztatuz:

–Eguzkiak ikusi nahi zaitu, baina zu are gorago zara igoa.

Tarielek erantzunez:

–Zuengatik nik ere negar egiten dut, malkorik aurreztu gabe.

Eta Tariel, Pridon eta Avtandil, zein zein baino planta ederragoarekin, handik partitu ziren beren laurogei mila soldadurekin. Bidea elkarren ondoan egin zuten, bata besteari laguntzeko gertu. Inor ez zen ausartu bide osoan haiei eraso egitera. Lautadetan kanpatzen ziren, pausatu eta jateko, eta eguna ospatzen bazekien, ardoa edanez, eta ez esnea.

Tariel eta Nestanen ezteiak

Tarielek eta bere emazte gazteak, azkenean, zazpi tronoak eskuratu zituzten, baina ez zituzten horregatik beren lehenagoko oinazeak aherentzi, pena mingotsaren berri dakienak pozik eza ikasten baitu.

Ikus itzazue, elkarren ondoan eseriak, Eguzkiaren kume gisa. Altxorren giltzak jasotzean errege izendatzen zuten koruak kantarazi zituzten, kobrezko eta letoizko tronpeta guztiak. Tariel ikustean, jendetzak oihu egiten zuen:

–Horra hor gure erregea.

Avtandil eta Pridonentzat trono baliotsu bana prestatu ziren. Hantxe laudatuak izan ziren, purpura eta urrez jantzirik. Jan-edanetan eman zuten jaialdi ederra. Gonbidatu guztiek opari eta oroigarriak jaso zituzten eta eskekoentzat ere parte bat utzi zen, ez txikia.

Avtandil eta Pridon agurtzen zituzten indiarrek, ziotela:

–Gorets ditzagun geure salbatzaileak! Eta haien nahia berehala betetzen zuten, eta jendeak haiengana aholku bila joaten ziren, ordua aurretik jarririk.

Indietako erregeak esan zuen:

–Asmat, inork ez dit erakutsi, patu txarreko aldie-tan, zuk eskaini didazun zintzotasuna. Har ezazu, bada, ene zazpigarren erresuma zeure esku. Eta gorde ezazu ongi, devi eta haizeen aurka. Zatoz gurekin, denbora zoriontsu eta gozoki emateko. Hauta ezazu ongi doaki-zun senarra eta edukazu aginte herrialde zabalen gainean, eta horrela, ni ere, zure nagusia, ongi zerbitzatuko nauzu.

Asmatek erregearen oinak muinkatu zituen:

–Bizitza honetan, zer hoberik aurki nezake zure esklabo leiala izatea baino?

Zinpeko hiru anaiak elkaturik, egunak igarri gabe limurtzen ziren. Dostetan, opariak elkarren gainka metatzen ziren: bitxiak, ehunak, perla arraroak, zaldi azkarrak, ezkutuak, mandoak. Baina Avtandil, bere maiteagandik urrun, tristuraz agertzen zen. Emazterik ezaz zalduna gogaitzen hasia zela oharturik, Tarielek esan zion:

–Zure bihotzak, zalantzarik gabe, laguna falta du gauean. Ai ene zoritxarrekoa, harengan pentsatuz, zeure zazpi gaitzak zortzi bihurtzen baitzaizkizu. Zugandik urrun, unibersoak, iheska, min ematen dit.

Geroago, Pridonen txanda izan zen:

–Mugitu beharra dut, baina, neure erresumatik maiz zuzenduko dut zaldia zugana. Zure esku geldituko naiz, neure ahalmen apal guztiekin. Beti zure egarriz egonen naiz; hala nola oreinak iturriko ura amets.

Tarielek ontzat eman zuen:

–Bai adiskide, zoaz zeure etxe eta jabegoa gobernatzera. Ez zaitetz nitaz ahantz eta itzul zaitetz ni berriz

ikustera, eta ez dadila sekula gure gainean gorrotorik izan!

—Nola dagoke alai soina bihotzik gabe? —esan zion Avtandili—. Baina zer egin? Beharturik zaude, lehoia, eta Ilargiak urbazterrera zaramatza.

Rostevanentzat Tarierek larru bikainak prestatu zituen eta harri finezko baxerak, eta ez burdinki hutsalak:

—Eramazkiozu ene partez eta zoaz beroan eta hotzean.

Avtandilek erantzun:

—Zugandik landa, bizia oinaze izanen dut.

Erreginak ere erreginari larruzko jantzia eta kapa leuna bidali zizkion, ezin egokiagoak itsas haizetatik babesteko. Bitxi eder bat ere bai, ez aspertzeko modukoa, gauz edonondik ikustekoa, Eguzki baten antzera.

Avtandilek, zaldi gainean jarrita, agur egin zion Tarieli. Urrundu beharrak biak erretzen zituen bere su gorrotagarriarekin. Indiarrei malkoak zerizkien, zeru-lurrak bustiz. Avtandilek esan zuen:

—Mundu bekaiztiaren pozoiak hiltzen nau.

Pridonek eta Avtandilek beren bidearen zati bat elkarrekin egin zuten. Aldendu ondoren, antzeko gogotaz segitu zuten. Helburua lortua zuten, zerua haien alde egonik. Arabiara itzuli ondoren, Avtandilek zoriona dastatu zuen, etengabe. Arabiarrek beren erresumako edertasunari ongi etorria egin zioten multzoka. Zalduak berriz ere bere Eguzkia mirets zezakeen, aurreko pena-nahigabeak ahantziz. Biak tronoan eseri ziren, poztasun eta oihu artean, eta Ahalguztidunak bere argiaz koroatu zituen.

Hiru erregeek elkar maite zuten, batak bestea zintzoki estimatuz. Maiz elkarri bisitak egiten zizkieten, beren nahirik txikienak ere betez. Beren ezpatek esaneko

bihurtzen zituzten obeditu nahi ez zutenak eta beren lurraldeak hedarazten zituzten, joritasunez, gero eta sendoago.

Ondasunak banatzen zituzten, neguan elur malutak bezala. Bat-batean aberasturik, alargunek, behartsuek eta umezurtzek honela zioten:

–Zer falta dut, bada?

Gaizkileak gaizkiaren beldur ziren eta oreinemeek anitz kume eradoskitzen zituzten. Ahuntza eta otsoa belardi berean ari ziren baketsu³⁰.



Azken solasa

Haien historia amaitu da, gaueko ametsa bezala. Utzia dute jada mundu hau, urte gaiztoek darabiltena. Bizi denak luzeegi deritzo, baina denbora unetxo bat besterik ez da. Meskhiarra³⁰ naiz eta bertso hauek idazten ditut, Rustaveli izenaz.

David, Georgiako erregearentzat, Eguzkiak gidatzen duenarentzat izkiriatu dut kondaira hau, plazer ematekoa. Ekialdetik Mendebalera beldurra sorrarazten, traidorea erretzen eta gizon zintzoa boteretsu egiten dakienarentzat.

Nola kanta nitzake nik David eta bere argitasuna? Errege arrotz hauen istorioa bertsoan ezarri eta ohitura zaharrak, behialako balentriak eta errege horien laudorioak atseginez kontatu ditut.

Mundua halakoxea da eta inor ezin daiteke hartaz erabat fida. Une laburra da, giza begien hertsirekia baino lasterragoa. Ez du ardura zeren bila zabiltzan, zoriak lotsaz beteko zaitu eta. Zorionekoak hark saltzen ez dituenak, mundu bietan zoria beren alde izanik.

Mose Khonelik³¹ Amiran kantatu zuen, Daredjanen semea. Xavtelik³² Abdul-Mesia goretsi du, bere bertsoei esker ospe ona lortuz. Sargis Tmogvelik³³ Dilarget laudatzen du etengabeki; Nik, Rustavelik, Tariel gorai patu dut, harengatik neure negar amaigabea isuriz.

Oharrak

- 1 **Lehoia:** David Soslan da, Osetiarren erregearen semea, Tamar erregearen senarra. Hitzatzean ere aipatua.
- 2 **Midjnur:** arabierazko *midjnun* hitzaren georgierazko aldakia; «maitatzaile, maitale» esan nahi du.
- 3 **Devi:** Georgiako mitologiako erraldoi gaizkilea, munstro itsusi eta adarduna, deabru modukoa.
- 4 **Dionos:** ikertzaileen arabera, berau Pseudo Dionisio Areopagita litzateke, V. mendeko filosofoa. Honen arabera, Jainkoa beti ona litzateke, eta gaizkia ez letorke harengandik.
- 5 **Ezros:** Mosheh Ibn-Ezra-z ari da, Granadako judu jakintsu eta poeta nabarmena (1060 inguruan jaioa eta 1139an hila), Yehudah Ha-Levi poeta nafarraren adiskide mina. Haren gai landuenak amodioa eta maitaleek elkarrengandik urruntzean izaten duten tristura izaten dira.
- 6 **Vis eta Ramin:** Fahr Ud-Din Asad Gurgani XI. mendeko persiar poeta famatuaren obrako pertsonaia nagusiak. Vis andre ederra, Mohabad xah zaharraren emaztea, bere koinatuaz, Ramin gazteaz, maitemintzen da, eta patuak izugarrizko nekeak dakarzkie beren maitasun bidean. Persieraz agertu zen bezain laster, poema hau georgierara itzuli zen eta ospe eta estima handikoa izan zen, Rustaveliren garaian.
- 7 **Katai:** Txina, eta bereziki iparraldeko eskualdea.
- 8 «**Bekatua zazpi aldiz barkatu behar dela.**» Esaldi honek Rustaveliren barru-barruko kristau hezkuntza salatzen du, musulman baten ahoan ere ebanjelioaren pasarte ezaguna jartzean: «Senideren batek (...) egunean zazpi aldiz iraintzen bazaitu eta zazpi aldiz etortzen bazaizu “damu dut” esanez, barka ezazu.» Luk, 17-4.
- 9 **Kadji:** sorgina, Georgiako mitologiako pertsonaia gaizkilea, gorputzik gabeko izakia.
- 10 **Amirbar:** arabierazko *amir al-bahr*-etik helduriko hitza, «itsasoko printzea», hots, «flotaren burua», eta hortixek datoz frantsesezko *amiral* eta eusk. *almirante* berbak ere. Tarielen hitzetatik, Indian amirbarrak armada buruaren maila zuen.
- 11 **Kadjetia:** Kadjen Herria. Irudimenezko lekua, sorgin gaiztoen bizilekua.
- 12 **Korezmia (Khwarezm):** Amu-Darya ibaiaren haranean

kokaturiko erresuma izan zen, bere arma bikainengatik Ekialdean guztiz famatua. XII-XIII. mendeetan Korezmiako xahek Iran osoa menperatu zuten. Horregatik, poeman Nestan Daredjanek inoiz korezmiarrak eta persiarrak gauza bera balira bezala aipatzen ditu. Dirudenez, herrialde horretako jatorria zuen Muhammad ibn Musa al-Khwarizmi (780-850) matematikari arabiarrek indu-arabiar zenbakiak eta aljebren kontzeptua Europara sartu zituena. Haren izenetik moldatu dira, halaber, algoritmo eta guarismo hitzak.

- 13 **Badakhxan:** Pamir-ko hegoaldeko herrialdea, gaurko Afganistango mugan. Bertan errubi bikainak aurkitzen ziren, jatorriagatik *badakhxi* edo *balakhxi* deituak.
- 14 **Drakan:** aintzinako urrezko txanpona, 4 gramo pisatzen zuena.
- 15 **Mulgazanzar:** Herrialde menditsua, itsasbazterrean kokatua. Izen hau persierazko *mulgazar* hitzarekin zerikusia omen du, «lore herria» alegia.
- 16 «**Ez al dakizu apostoluek zer izkiriatu zuten?**» Rustavelik, berriz ere, musulmanen ezpainetatik oihartzun kristauak ateratzen ditu, seguraski Done Paulo Apostoluak Korintoarrei eginiko lehen gutunean (XIII-1-8) edo Done Joanen gutunean (III, 11 eta IV, 7, 11) oinarriturik.
- 17 «**Ni Levi judua nauzu.**» Jakobek, bere jarrera okerragatik, madarikatu zuen semeaz ari ez bada, izan daiteke hemen Rustavelik 1070-1140 artean bizi izan zen Yehuda Ha-Levi poeta tuterarra aipatu nahi izatea. Tradizioak dioenez, Jerusalemen Tenpluaren Mendebaldeko Horman himno bat kantatzen ari zelarik zaldun arabiar batek hil omen zuen. Heinrich Heine idazle alemanak (1797-1856) istorio bera jaso zuen bere «Judutar Melodiak» poema liburu ederrean.
- 18 «**Zer balio digu ikasteak, gero jakintsuei jaramonik egiten ez badiegu? Zertarako nahi dugu altxor estalia, gero hartaz baliatzen ez bagara?**» Hau ere Testamentu Zaharreko aipamena da: «Zuhurtzia gordea eta ikusten ez den altxorra, zertarako dira on bata eta bestea?» (Eklesiatikoa, XX, 32).
- 19 **Zual:** Saturno planetaren arabierazko izena, grezieraz, Kronos.
- 20 **Muxtar:** Jupiter planetaren arabierazko izena, grezieraz Zeus deitua. Astrologiaren arabera, zoriona eta boterea ohi dakartza, epaile zuhur eta zuzena izanik.
- 21 **Marikh:** Marte planetaren arabiar izena, grekoek Ares deitua. Gerraren aitzindaria omen da, isuritako odolaren eta sufrikarioena.

- 22 **Aspiroz:** Maitasunaren planeta arabieraz, greziarrek Afrodita eta erromatarrek Venus deitzen zutena. Harengandik maitasuna, poza eta alaitasuna omen datoz.
- 23 **Otarid:** Merkurio planeta arabieraz, greziarrek Hermes izendatzen zutena. Zuhurtziaren, adimenaren eta trebetasunaren mandataria.
- 24 **Gulanxaro:** Persierazko *gul xahr*-etik sorturiko izena, hots, «arrosen hiria.»
- 25 **Newroz:** Musulmanen urte berri egunaren jaia, martxoaren hirugarren astean, ekinozioan ospatzen dena. Gaur egun, kurduentzat, erreibindikazio nazionalako esangura berezia dauka.
- 26 **Basrah:** Siriako hiria; bertan altzairu bikaina egiten zelako fama ongi merezia zuen.
- 27 «**Dionos jakintsuak gauza estariak erakutsi zituen.**» Esaldi honetan Rustavelik kristau filosofo eta teologo ospetsuenetako horren monismo etikoaren kontzepzioa azaltzen du, hots, V. mendeko Dionisio Aeropagitarena. Honen arabera, Jainkoa edo Ongia den guztiaren sortzailea eta oinarria da. Diren gauza guztiek, izateko, jainkozko ontasun horren partaide izan behar dute nolabait. Jainkoak, beraz, sortzen duen guztia ona da eta guk mundu honetan «gaizkia» deritzoguna, ongirik edo ontasunik eza besterik ez da, substantzia gabeko zerbait alegia. Horrexegatik, gaizkia beti behin-behinekoa izaten da, azkenean ongia beti garaile geldituz.
- 28 «**Bere zapia hartu eta lepoaren inguruan korapilatu zuen, soka baten antzera.**» Lepoaren inguruan loturiko sokak erabateko menpekotasuna eskaintzea adierazten du. Antzinan ohitura hori guztiz hedaturik zegoen ekialde osoan.
- 29 «**Ahuntza eta otsoa belardi berean ari ziren baketsu.**» Bibliatik jasoriko irudi eskatologikoa: «Orduan otsoa eta bildotsa elkarrekin biziko dira, lehoiabarra eta antxumea elkarren ondoan etzango; zekorra eta lehoikumea batera haziko dira, eta haurtxo batek zainduko ditu. Behia eta hartzemea elkarrekin larratuko dira eta haien umeak batera etzango. Lehoiak lastoa jango du, idiaren antzera.» (Isaias, XI,6-8)
- 30 **Meskhiarra:** Mesketiako bizilaguna. Meskhetia Georgiako herrialde zaharrenetako bat da, kultur tradizioz eta monumentu historiko ederrez ongi hornitua. Bertso honetan oinarriturik, azterlari batzuek Rustaveli Meskhetiako semea zela pentsatzen dute. Beste batzuen ustez, ordea, hitzatzea ez litzateke

Rustavelirena izango, kopiatzaile edo eskribari batena baizik, eta lerro hori honetara interpretatu beharko litzateke: «Nik, Meskhiar bertsozile honek, hau idazten dut Rustaveliren antzera.»

- 31 **Mose Khoneli:** XII. mendeko georgiar idazlea «Amiran-Daredjaniani» zaldieriako elaberri luzearen egilea, Amirani zaldun adoretuaren istorio harrigarria kontatzen duena, agertu zenetik arrakasta izugarria izan zuena.
- 32 **Ioane Xavteli:** Tamar erreginaren gorteko poeta, Abdulmesia poesi liburuaren egilea.
- 33 **Sargis Tmogveli:** XII. mendeko georgiar idazlea. «Dilargetiani» hau da «Dilargeten istorioa» deritzon poema idatzi zuen, geroago zoritxarrez galdua. «Visramiani» persiar idazlanaren georgiar itzulpena ere egin zuen.

ჩივთეგითქოა

abaildu: okertu, makurtu.

abegi: harrera, ongi etorri.

abegikortasun: bisitariak eta arrotzak norbere etxean modu on eta atseginez hartzeko ohitura.

abeltzain: abereak zaintzen dituen.

adats: buruko ileen multzoa, luzeak bereziki.

adeitasun: jendetasuna, gizalegea, kortesia.

ahalke: lotsa.

ahalkor: lotsorra, lotsatia.

ahapaldi: bertsoa.

aienatu: desagertu.

ailetsa (Jainkoak): Jainkoak hala nahi duela; etsi aditzaren forma jokatu zaharra.

aitzinean: aurrean.

alderrai: nora ezean hortik eta hemendik dabilena.

aloe: landare lirain eta usaintsua, lore zuriduna.

alokatu: diru truke norbait edo zerbait lanerako hartu; langile alokatua, auto alokatua.

altzifre: zuhaitz lerdin luzea, Mediterraneo aldean hazten dena. Gure artean hilerrietan landatu ohi dira.

amoltsu: maitagarri.

anil: kolore urdina.

anoa: janari zatia.

argizagi: astroa.

badia: itsas golko txikia. Donostiakoa adibidez.

baxera: plater, edalontzi eta jan-edateko ontziteria.

begiratu: 1) so egin, ikusi (dio). 2) zaindu, jagon (du).

begitandu: iruditu, buruan sartu.

begitarte: aurpegia.

behako eman: begirada egin.

behatu: begiratu.

belatz: hegazti harraparia, usoak eta ehizatzeke erabiltzen dena.

belus: ehun fina, iletxo mehez hornitua, mertxikaren azalaren antzekoa.

berba egin: hitz egin, mintzatu.

berretu: bi aldiz egin edo handitu.

besoko: besoan jartzen den apaingarria.

beta: astia, zerbait ongi egiteko denbora.

blai: bustirik.

bokantza: dotoreziaz hitz egiteko trebetasuna.

bortizki: gogorki.

bozkario: poztasun, pozkaria.

branka: itsasontziaren aurreko aldea.

burdinki: burdinazko gauza.

buruhas: buru hutsik, burua estali gabe.

bururdi: ohean burupean edo eserlekuetan jartzen den burko doto-rea.

dabilke: ibiliko da, dabil (seguraski).

dagoke: egongo da, dago (seguraski).

dateke: izango da; da (antza denez).

darrait: jarraitzen zait.

deitoratu: negarreztatu.

demaiozue: ematen diozue.

demaizula: eman diezazula.

diban: esertzeko aulki luze biguna, bururdiez hornitua.

dirudike: irudituko du, irudia izango du.

dizeka: izekirik dago; beti dizekan sua: beti garretan dagoena, behin ere itzaltzen ez dena.

dolu: lutua, hilei gordetzen zaien errespetua edo eta jantzi beltzak.

dostatu: jolastu, olgatu.

dostetan: jolasten, olgetan, ongi pasatzen.

drakma: 1) pisu neurria (3 gramo baino pixka bat gehiago).

2) zilarrezko txanpona.

dukezu: izango duzu; duzu (dirudienez).

durbante: buru inguruan ezartzen den zapia, ekialdeko herrien artean eskuarki erabilia.

ebatsi: ostu, lapurtu.

edukazu: eduki ezazu.

ehizi: ehizan harrapatzen diren animalietako bakoitza: eperrak eta erbiak ehiziak dira.

eho: 1) hariaz ehunak egin. 2) aleak errotan xehatu, irina egiteko.

ehortzi: lurperatu, lurra eman.

eki: Eguzkia (euskal tradizioan, Ilargiarekin batera, Eguzkia eskuarki femeninotzat jotzen da).

eleder: dotore mintzatzen dakiena.

ematu: bigundu, lasaitu.

endakatu: lehenagoko indarra edo izaera galdu, degeneratu.

ene: nire.

eradoski: ume bati titia eman, esnea har dezan.

eraile: hiltzailea.

eraitsi: jaitsarazi, beheratu.

erauzi: kendu, atera.

erhi: hatza, atzamarra.

erho: norbaitek norbait hil, erahil.

errainu: argizko izpia; Eguzkiaren errainuek itsutzen gaituzte.

erresuma: erreinua, errege baten agintepeko lurraldea.

errezel: leihoak edota atea estaltzeko oihala.

ertun: txar, zoritxarrekoa; notiziei dagokie, bereziki: berri ertuna: berri txarra.

esetsi: borrokan eraso, aurka egin.

estari: ezkutu, gorde, estalia: altxor estaria, sekretu estaria.

estekatu: lotu, amarratu.

etsi gaizto: etsipen txarra, desesperantza.

ezagutzeke: ezagutu gabe.

ezein: inor, ezer, inongo, bat ere ez; ezein gizonek ez daki hori «inork ere ez.»

ezkutu: borrokan gezi eta ezpata kolpeetatik babesteko eskuan hartzen den estalkia.

ezproi: zaldunek zaldiak akuilatzeko zapatetan janzen duten burdina zorrotza.

fereka: xera, eskuaz eginiko laztana.

ferekatu: laztandu.

fermu: tinko, sendo, jarrera aldatzeko asmorik gabea.

gantz: olioaz eta sendagaiez egiten den nahastura.

garaño: zaldia.

gogaitu: aspertu.

goiztiri: egunsentia, goizaldea.

gorpu: hilotz, gorputz hila.

gotorleku: etsaien erasoetatik babesteko tokia, harreresiz inguratua.

gudu: gerra.

gupida: erruki, urriki

hagitz: 1) asko, biziki, txit, 2) oso, guztiz.

handioski: handitasunez.

hantuste: harrokeria.

hartan-horretan: hau eta bestea eginez, denbora konturatu gabe pasatuz.

hasperen: zizpurua, arnasaren gorabehera, sentimendu edo emozio handiko uneetan irteten direnak.

heiagoraz: oihuka, deiadarrez.

herabe izan: lotsatu, lotsa izan.

herabeti: lotsatia.

hertsatu: estutu.

hertsireki: itxi-ireki; begi hertsirekian: begia itxi eta irekitzeko denbora laburrean.

histasun: tristura.

histu: tristatu.

hits: triste.

hitsik: tristerik, tristeki.

hordi: mozkortua.

hunkitu: sentimenduetan ukitu.

hurrandu: hurbildu, hurreratu, ondoratu.

hurreratu: hurbildu.

hutsal: balio gutxikoa, ezertarako ez dena.

iduneko: sama edo lepoaren inguruan jartzen den apaingarria, maiz perlaz edo harri bitxiz egina.

igortziri: tximistaren argia.

ihardetsi: erantzun.

ikuilu: gorta, etxeko abereak gordetzeko toki estalia.

indazu: emadazu.

ilki: atera, irten.

intzirika: minezko kexak eginez.

iraungi: itzali, ezereztu, amatatu.

iren: gizon zikiratua, musulmanek harem-ak gordetzeko enplegatua.

itzego: zamalkatu, zaldi gainean ibili. Arabako euskara zaharreko hitza, gaur arte Nafarroako Sakanan ere *itzo* forman gordea.

izkiriatu: idatzi.

izu laborri: beldur edo ikara handia.

jagole: zain, zaintzaile, gordetzailea.

jagon: zaindu, babestu, gorde.

jalgi: irten, atera, kanporatu.

jarki: aurka eraso.

jas: itxura, irudia.

jeloskor: zelatia, zeloak edo jelosia duena.

jopu: meneko, morroi, zerbitzaria.

jori: ugari, aberatsa.

joritasun: aberastasuna.

jostari: jolasean dabilena.

jukutria: azpikeria, maliziazko egintza.

Karramarro: (Astron.) Cancer konstelazioa.

kausitu: aurkitu.

khan: Asia aldeko enperadorea, mongoliarren artean bereziki.

kota: soina estaltzeko armadura, burdinazko hari edo eraztunekin egina.

krobitxet: hilen gorpuak estaltzeko erabiltzen zen zapi edo mihisea.

Kronos: Greziarren artean denboraren jainkoa zen. Erromatarrek Saturno zeritzoten.

lantu: negarra.

lausengatu: inoren belarriak pozteko kortesiazko hitz atseginak esan; lausenguz bete.

lauza: harri handi zapala.

lepoko: lepoan jartzen den zapia edo apaingarria.

letoi: metal aleazio horia.

limurtu: labaindu.

loria: gloria, aintza.

losintxa: lausengua, goraipamena.

lotsaizun: lotsagarri, lotsa ematen duena.

maila kota: gorputza babesteko metalezko mailaz eginiko soinekoa, antzinan erabilia.

mailegutun: ordean, inori zerbait hartzea, gero itzultzeko asmoz.

maluros: zoritxarrekoa.

matxuka: porra.

mingots: gozotasunik gabea, zapore txarrekoa.

miraz egon: harriturik egon.

nagoke: egongo naiz.

nahigabe: atsekabea.

neba: emakume baten anaia.

nentzan: etzanik nengoen, etzaten nintzen.

nerabe: 15-18 urte arteko gaztea.

ohoin: lapurra.

ohondikatu: ostikoperatu, oinez zapaldu.

oinordetza: herentzia.

ordurezkeru: harrezkeru, ordutik aurrera.

orkatz: orein mota txikia.

ortzi: zeru fisiko edo astronomikoa.

oste: soldadu taldea, tropa.

oturuntza: jataldi handia.

pairatu: jasan, sufritu.

palankin: pertsonak andetan eramateko aulki sabaiduna, gutxienez bi edo lau pertsonaren artean eraman ohi dena.

parada: aukera, modua, era.

patari: basoko animalia.

patu: zoria, halabeharra.

pentsu: pentsamendua, gogoeta.

plainitu: kexatu.

poparean: popa aldetik; haizea poparean: haizea popa aldetik jotzen, belak puztuz.

pozkari: poztasun, bozkario.

saihestu: alboratu, baztertu, urrundu.

sama: lepoa.

sarri: 1) maiz, askotan. 2) ugari, joria.

so egin: begiratu.

soaldi: begirada.

solasean: hizketan.

sorotsi: lagundu.

trostan: zaldien ibilera, ez geldoegia ez arinegia.

txirikorda: ileekin edo baratxuriekin egiten den soka.

uhaitz: euriteengatik edo elurra urtzean mendietatik arrapaladan uholde handiz datorren ur korrontea.

ukan: eduki, izan (= dut); ukanen dut = edukiko dut.

unide: inoren umea txikitan bere titiaz hazten duen andrea.

urrikaldu: gupida izan, errukitu.

urrikaltsu: bihozbera.

uztazu: utz iezadazu.

visir: ekialdeko herrietako antzinako kontseilaria, ministroa.

xah: Persiako enperadorea.

xarmatu: liluratu, zoratu, engainatu.

xartatu: gauza gogor baten erdian beste bat sartu; diamantea eraztunean adibidez.

xerkatu: bilatu.

xukatu: lehortu, sikatu.

zakuskiena: ikusten zaituena.

zakuskit: ikusten zaitut.

zaltzain: zaldiak zaintzen dituena.

zalu: malgua, hautsi gabe oker daitekeena, zurruna ez dena.

zamalari: zamak edo kargak garraiatzen dituen langilea.

zarraizkit: jarraiki zakizkit, zu jarraitu niri.

zatozke: etorriko zara, zatoz (seguraski).

zela: zaldi gaineko aulkia.

zelatan: ezkutuan begira, espiatzen.

zelatu: zaldiari zela jarri.

zerraion: jarraitzen zitzaion.

zerraizkien: jarraitzen zitzaizkien.

zerraldo erori: ziplo erori, hilik balego bezala.

zeutzan: etzanik zeuden, etzaten ziren.

zinbaloak: metalezko bi platertxorekin eginiko musika tresna.

zinkurin: minezko kexa, negarra.

zirrara: emozioa.

zizpuru: pena edo tristurazko arnas etena.

zizpuruka: asnas etenak eginez.

zurbil: kolore gabe.

Georgiar alfabetoaz

Georgiarrek beren historian zehar hiru alfabeto izan dituzte. Lehenbizikoa, *mtavruli* izenekoa, V-XI. mendeetan erabiltzen zen, eta oraindik ere maiz ikus daiteke Georgiako eliza zahar, antzinako monumentu eta artxiboetako izkribu zaharretan. Bigarrena, *nuskhuri* deitua, aurrekotik eratorria da eta IX. mendean hasi zen erabiltzen; joan den mendera arte erlijio liburuetan iraun zuen. Gaur egun normalean erabiltzen den bakarra, ordea, hirugarrena da, *mkhedruli* deritzona, XI. mendean aurrekoetatik errege administrazioaren inguruan moldatua. Alfabeto horietan ez da letra larri eta xeheen artean bereizketarik egiten.

■ LIBURU HAU UNIGRAF, S. L.,
■ MÓSTOLES (MADRIL), MOLDIZTEGIAN INPRIMATU ZEN 1999. URTEKO UZTAILEAN ETA AZALEKO ZEIN BARNEKO ORRIALDEETAN PAPER ERABAT BIRZIKLATUA ERABILI ZEN.



Xota Rustaveli, Jerusalemeko Gurutzearen Monasterioko fresko batean ageri denez.



Zaldun tigrelarruduna

Xota Rustaveli

ZALDUN TIGRELARRUDUNA Georgiako literatura zahar-
raren obra gorena da. Idazlan hau Xota Rustavelik,
Tamar erreginaren gorteko poeta handiak, burutu
zuen XII. mendean, eta hor amodio eta adiskideta-
sunezko istorio hunkigarriak azaltzen dizkigu.
Kontakizunaren heroi nagusia, zaldun tigrelarrudu-
na, bere neska maitea galdu ondoren, haren bila ari
da mundu osoan zehar, etsipenez. Bere bidean beste
bi zaldun aurkituko ditu, berari zintzoki laguntzeko
prest. Elkarrekin era askotako abenturak bizi behar-
ko dituzte, arrisku handiz eta pasadizo jakingarriz
beteak, azkenean amaiera zoriontsua izateko.

Arabia, Persia, India, Txina eta ekialdeko beste leku
askotako paisajeak, hiriak eta jende exotikoak gurut-
zatzen dira hor, nork bere ohitura eta pentsaera
ezberdinekin, kristau eta islamiar filosofia berezien
elkargune, errealitatea eta irudimena nahasiz, beti ere
giza sentimendu hoberenak azpimarratu eta iraun-
kortasunaren balioa goretsiz.

Obra hau munduko hizkuntza askotara itzuli eta
argitaratu da. Oraingo itzulpen hau Georgia, geor-
giera eta bertako kultura hain ongi ezagutzen dituen
Xabier Kintanak egina da, euskaldunok ere georgiar
herri anaiaren literatur lan paregabe hau geure
mintzairan dastatzeko aukera izan dezagun.

ALFAGUARA

Zubia

